



Ikus-entzunekoen paradigma berria eta hizkuntza ez-hegemonikoak

2020 | 03

Etorkizuneko desfioez gogoeta

Ikus-entzunekoen paradigma berria eta hizkuntza ez-hegemonikoak

Egileak: Josu Amezaga Albizu, Carlos Ares, Jon Artatxo
Aurtenetxe, Enric Marín i Otto, Jaume Ripoll Vaquer and
Laura Santamaria

Publikatzaileak: Coppieters eta Ezkerraberri fundazioak
2020

Coppieters fundazioa
BRUSELA | 2020





Coppieters Fundazioak ikerketa politikoa sustatzen du Europan eta nazioartean, eta, batez ere, arlo hauetan jartzen du arreta: kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren kudeaketan, maila anitzeko gobernantzan, gobernu azpizentralen gobernantza politikoa eta ekonomikoa, deszentralizazioan, estatuen eta konstituzioen erreforman, autodeterminazioan, gatazken konponbidean, giza eskubideetan eta bakearen sustapenean. Coppieters Fundazioa Europako fundazio politikoa da, eta Europako Parlamentuak sortu eta onartu zuen 2007an.



Ezkerraberri Fundazioa jatorrian Aralar alderdi politikoari lotutako fundazioa da. Ezkerraberrik Euskal Herrian eztabaida sozio-politikoa bultzatu nahi du ezkerreko ikuspegi nazional aurrerakoiaren talaiatik.



EHUGune, Euskal Herriko Unibetsitatearen eta gizartearen arteko topagunea da, non garrantzitsutzat eta estrategikotzat jotzen ditugun arazo sozialei, kulturelei, ekonomikoei eta politikoei gogoetarako espazioa eskaitzen diegun.



This publication is financed with the support of the European Parliament (EP). The EP is not responsible for any use made of the content of this publication. The editor of the publication is the sole person liable.

Edukiak

Egileei buruz	6
Aitzin solasa	10
Nolako Ikus-entzunezko hedabideak behar ditugu estaturik gabeko herrietan?	16
Ikus-entzunezko komunikabideak eta hizkuntza ez-hegemonikoak Galizia aldetiko ikuspegia	28
Plataforma digitalak, edukien ekoizpena, hizkuntza-aniztasuna. Legeak egin behar dira. Zer lege ordea?	42
Ekosistema audiobisualaren digitalizazioa eta eraldatzea Mendeko hizkuntza eta kulturen mehatxu eta aukerak: Broadcastetik eta LTDtik Broadbandera eta 5Gra	50
Hegemoniarik ezetik	80
Katalanez, mesedez! katalanezko multimedia itzulpengintzaren iragana eta etorkizun-premia	88
Coppieters fundazioaren mezua	104
Publikazio honi buruzko oharrak	111

Egileei buruz

Josu Amezaga Albizu

Euskal Herriko Unibertsitatea

Josu ia hiru hamarkadaz geroztik ari da EHU lanean eta bereziki hizkuntza-komunikazioa-nortasuna trinomioaren inguruan garatu du ikerketa-lana. NOR Ikerketa Taldearen koordinatzailea da. Talde honek 14 ikerlari biltzen ditu trinomio beraren inguruan ere. Zuzendutako azken ikerketa proiektuak, MULTILINGUAL TV, komunikazio-espazio nazionalen inguruan gertatzen ari diren aldaketak eta nazio-nortasunen birsorkuntzari dakarzkioiten erronkak aztertu zituen. Ikerketa honen ondorio gisa zenbait lan argitaratu ditu, besteak beste *Hizkuntza gutxiak komunikazio espazio nazionalen aldaketen aurrean* (BAT Soziolinguistika aldizkaria) eta *Mediacentric spaces and physical spaces in minority language use: A case study on the Basque language press* (Catalan Journal of Communication and Cultural Studies aldizkarian). Argitaratutako lanen artean aipatzekoa da 2017an Ezkerraberri Fundazioarekin argitaratutako *Nola sortu espazio komunikatibo komuna Euskal Herrian?* izenekoa.

Carlos Ares

Zopilote SL

Carlos ikus-entzunezkoen produktorea, gidogilea eta zuzendaria da. Publizitate-euskarriak, laburmetraiak, dokumentalak eta telebista-programak landu izan ditu. 1997an Andres Mahia eta Xose Castrorekin batera Zopilote SL ekoizpen-etxea sortu zuen, batez ere telebistarako lan egiten duena. 2015az gero Galiziako Ikus-entzunezkoen Akademiako zuzendaria da. Irakaskuntzan era badu esperientzia master eta ikastaroetan irakasle moduan sarri aritu baita.

Jon Artatxo Aurtenetxe

Artatxo Abogados

Jonek Deustuko unibertsitatean zuzenbidean lizentziatu zen eta ondoren ikus-entzunezkoen zuzenbidean masterra egin zuen. Abokatu eta aholkulari juridiko moduan egiten du lan. Egile-eskubideetan eta teknologia berrietan dago espezializatuta. IBAIAren, ikus-entzunezkoen euskal ekoizleen elkartearen, aholkulari juridikoa da besteak beste.

Inaki Irazabalbeitia Fernandez

Ezkerraberri fundazioa

Inakik Kimikako Zientzietako doktoretza lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Bere karrera profesionala euskara biziberritzeari eta Elhuyar Fundazioko taldeari lotuta dago nagusiki: Elhuyar aldizkariko zuzendaria (1983-1990), Elhuyar Fundazioko zuzendari orokorra (1995-2003), Elekako kudeatzailea (2006-2011), eta Fundazioaren patronatuko kidea (2005-2011). Euskal Herriko Unibertsitateko zuzendari nagusia (1987-1991) eta Zuzendaritza Kontseiluko kidea (1983-2008) izan da. Hizkuntza normalizatzeko hainbat ekimenen sorreran ere parte hartu du hala nola, Euskaldunon Egunkaria, Kontseilua edo Langune. Inaki euskaltzain urgazlea da. Europako Parlamentuko kide izan zen Berdeak-ALE taldean (2103-2104). Gaur egun, Inaki Alkizako alkatea da eta Ezkerraberri Fundazioko zuzendaria. Europako Aliantza Libreko ohorezko kidea eta Coppieters Fundazioaren diruzaina da.

Enric Marín i Otto

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

Enric-ek Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Informazio Zientzietan lortu zuen doktoradutza. Unibertsitate horretako Komunikazio Zientzien Fakultatean irakasle da 1978az gero. Egun Kultura eta Komunikabideak departamentuan dihardu lanean eta ikerkuntzan. Kataluniako Generalitatean ardura politikoak izan ditu. 2004-2006 bitartean Generalitateko Komunikazio Idazkaria eta Kataluniako Ikus-entzunezko Komunikabideen Korporazioaren administrazio-kontseiluko kide izan zen. 2010ean erakunde horretako presidente izendatu zuten. Idazle oparoa izan da. Dozena erdi bat liburu eta hamaika artikuluko zientifiko publikatu ditu. Atzen liburuak, *Obertura Republicana* entsegu politikoak, 2019an ikusi zuen argia.

Jaume Ripoll Vaquer

Filmin

Jaume Zinemagintzan graduatu zen ESCAC-en (Escola Superior de Cinema i Audiovisuals de Catalunya). Bere karrera bideo musikalak eta dokumentalak zuzentzen hasi zuen. Manga Films-en lanean 6 urtez aritu zen eta tarte horretan hasi zen hedabideetan artikuluak idazten joerei eta bideojokoei buruz. 2005ean Cameon, zinema independenteko banatzaile ospetsuan, lanean hasi zen editore nagusi moduan. 2007an beste bi lagunekin batera Filimin sortu zuen non, egun, editore nagusia eta garapenerako zuzendaria den. Jaume EUROVODen, on-line banaketaz arduratzen zen Europa mailako elkartearen, lehendakari ordea da. 2010ean Jaumek Atlantida Film Fest izeneko sortu zuen, non zinemaldiaren programazio osoa on-line ematen den. Jaume hainbat zinemalditako epai-mahaiko kidea izan da. Irakasle moduan, 2013z gero UOCen On-line Banaketa masterraren zuzendaria da eta hainbat unibertsitate eta jardunaldi ospetsutan hizlari aritu da.

Laura Santamaria

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

Laura itzulpengintzako irakaslea da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Itzulpengintza eta Interpretazioko Fakultatean. 2011 eta 2016 artean fakultateko dekanoa izan da. Hedabideei, intertestualitateari eta kulturarteko azterketei buruz ikertu du nagusiki. Irakaskuntzan itzulpengintza espezializatuan jardun du, hedabideenean eta juridikoan bereziki. Itzultzaile profesional gisa ere aritu izan da.

Aitzin solasa

Inaki Irazabalbeitia

Ezkerraberi fundazioaren zuzendaria

2020ko udaberrian eskribitzen ditut lerro hauek, konfinamenduaren udaberrian hain justu. 2019ko urrian ikus-entzunezkoak kontsumitzeko molde berriek hizkuntza eta kultura ez-hegemonikoetan izaten ari diren eraginez eztabaida izan genuenean, erronkak, aukerak, ahuldadeak eta zailtasunak aztertu genituen eta hizlariek oso zehatz seinalatu zituzten. Alabaina, inork ez genuen espero lau bat hilabeteren bueltan desafio, abagune, erkintasan eta gaiztasun horiek gure begien aurrean eztabaida egingo zutenik.

Konfinamenduak, etxean egon beharrak eta denbora okupatu beharrak pantailaren aurrean tarte luzeak pasatzea ekarri du. Pantaila telebista, ordenadorea, telefonoa edo tableta izan daiteke, noski. Eduki digitalen kontsumoa izugarri igo da, izan komunikabide digitalena, bideo-jokoena edo bideo-plataformena. Adibidez, Espainian egunkari digitalen trafikoa bikoiztu egin da konfinamenduaren hasierarekin. Eta ez ahaztu juntadizo birtualek giza harremanen beste dimentsio bat ekarri dutela, bai goi-mailako arduradunen bileretan baita lagunarteko bermut-hitzorduetan ere.

Pantailaren aurrean egoteak ikus-entzunezkoen kontsumoa izugarri haztea ekarri du. Espainian telebista-kontsumoa emendatu egin da adin-tarte guztietan eta bereziki 13 eta 24 urteko gazteen artean. Eta jakina, estrimin bidez filmak eta serieak eskaintzen dituzten plataformek kontsumoaren eztabaida bat izan dute. Serieak ikustea itxialdia pasatzen joateko tresnetako bat izan da Europan¹. Bi datu. Filmin plataformaren trafikoa % 70 hazi da konfinamenduaren lehen sei asteetan Espainian². Derradan bide batez Filmin dela plataforma bakarra euskarazko edukiak txukun eskaintzen dituen. Thierry Breton-ek, Europako Batasuneko Barne Merkaturako komisarioak, Netflix-i eskatu dio definizio altuko erresoluzioari uko egiteko sarea kolapsatzeko arriskua ebitatzeko³. Gehiegikeria dirudike, baina Netflix Interneteko trafiko-iturri handienetakoa da: 2019ko irailean kalkulatu zen Interneteko trafikoaren % 12,6a Netflix-i lepora zekiokela.

Konfinamenduan zehar zer gertatu da hizkuntza ez-hegemonikoekin? Ikus-entzunezkoen nolako eskaintza egon da? Kontsumoa hazi al da horien kasuan ere? Zein tamainan? Pandemiari buruzko informazioa zein neurritan eman eta kontsumitu da hizkuntza ez-hegemonikoetan? Ez daukat datu orokorrik juzkurik egiteko. Alabaina, euskararen kasuan nago ez dela horren mesederako izan. Adibidez, ETB1eko audientziak (euskarazkoak) behera egin du –inoizko baxuena: % 1,2ko ikusle-kuota–, ETB2koak (gaztelaniazkoak) gora egin duen bitartean. Miren Manias-ek *Berria* egunkarian oso ongi azaltzen du euskaldunok pairatu dugun egoera⁴:

'Halere, konfinamendu garaian egindako esfortzu handiena gaztelerazko katean kontzentratu da. Salbuespenezko saio batzuk kenduta –ETB3ko Bitartean, etxetik ikasten edota ETB1eko Etxekoak–, euskarazko espazio berri gutxi egon dira. Ez hori bakarrik: kirol saioen errepikapenekin bete dute ETB1eko ia programazio osoa. Audientzia datuak, nola ez, horren ispilu dira: ETB1 izan da autonomia erkidegoetako kate bakarra behera egin duena. Zer esan nahi du horrek? Zerbait gaizki egiten gara.'

Baliteke EITBko arduradunak pozik egotea taldeak konfinamendu garaian izan duen bilakaera positiboa medio. Eusko Jaurlaritzako beren arduradun politikoeke ere kontent egoteko motiboa badute gobernuaren propaganda-makinak ongi funtzionatu duelako –gaztelaniazko katearen informatiboek % 24ko ikusle-kuota

¹ <https://www.labelium.com/blog/es/streaming-conectar-usuarios-confinamiento/>

² <https://elpais.com/television/2020-05-06/jaume-ripoll-filmin-es-ahora-una-de-las-pocas-fuentes-de-ingresos-que-tiene-el-cine.html>

³ <https://edition.cnn.com/2020/03/19/tech/netflix-internet-overload-eu/index.html>

⁴ <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/027/002/2020-04-29/hizkuntza-dago-jokoan.htm>

izan dute–, baina neroni hizkuntza ez-hegemoniko baten hiztun moduan etsita nago eginiko hautuak darakutsadalako, berriz ere, hizkuntza hegemonikoaren aldeko hautua egiten ari direla gure arduradun politikoak komunikazio-espazio propioa eraikitze bidean –komunikazio-espazio propioarenari nahi dituzuen galdera ikur guztiak jartzea baduzue.

Entzun izan ditugu arduradun batzuk ikusleei leporatzen ETB1en pantaila-kuota txikia, alegia, ikusle-urritasunaren arazoia ez dela eskaintzen den programazio-mota, hori egokia baita, ikusleak kontsumitzen ez dutela baizik. Alabaina, konfinamenduaren garaian euskarazko beste kontsumo-digital batzuek hazkundera ikusi dute. Tokikom elkarteko prentsa digitalaren kontsumoa % 51 hazi pandemia hasi zenetik eta % 97 atzen urte betean⁵. Apika, programazioa ez da horren egokia!

Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko molde berriak hizkuntza ez-hegemonikoentzat aukera izateko erabaki politiko sendoak beharrezkoak direla erakutsi ziguten aipatu jardunaldian aritu ziren adituak. Esan nahi baita, euskaldunok, katalanok edo galesok zabaltzen ari den paradigma berri honetan gure hizkuntzaz ikus-entzunezko eskaintza txukun bat izan nahi badugu arduradun politikoek delibero eraginkorrak fite hartu beharko dituzte eskaintza hori bermatzeko. Merkatuaren arauen mende uzten bada, darwinismo linguistikoaren biktima izango gara.

Estatu espainolaren kasuan oso ongi adierazten du Enric Marínek bere artikuluan non dauden bi gako nagusiak:

1. **Europako politikak.** *Bereziki, Merkatu Digital Bakarra (MDB) definituz joatea eta 5Gri lotutako teknologia hedatzeko eskema bat definitzea.*

2. **Espainiako arautze-markoa.** *Testuinguru horretan, estatuko telekomunikazioen araudiaren arkitekturak eta irrati-frekuentzien espektroaren kudeaketak gero eta defentsa gutxiagorekin uzten dituzte autogobernu-erakunde subestatalak eta EAEko eta Kataluniako autogobernu autonomikoak.*

Berdin esan daiteke Europako beste ezein estaturen kasuan. Eta bi gako horiek erabaki politiko hutsak dira, bata Europako Batasunari dagokio eta bestea erakunde estatalei.

⁵ <https://tokikom.eus/2020/05/tokikomeko-webguneen-trafikoak-goranzko-joerari-etsi-dio-apirilean/>

Europako Parlamentuan aurreko legealdian zehar Ikus-entzunezkoei buruzko 2018/1808 zuzentaraua izango zena eztabaidatu zenean hizkuntza ez-hegemonikoei buruzko aipu inportante bat zegoen. Zuzentarau horren 13.1 artikulua hau da:

'Estatu Kideek zainduko dute beren eskumenen menpeko eskarrieko ikus-entzunezko hornitzaileek beren katalogoetan obra europarrak izan ditzaten gutxienez %30eko proportzioan eta berma dezatela obra horien prominentzia.'

Artikulu horrek bazuen beste esaldi bat erantsita Parlamentuan lehen irakurketan onartu zenean; *'Portzentaia horrek inkludituko ditu obra horien banatzen diren lurraldeko hizkuntza ofizialetan eginikoak.'* Esaldi soil horrek behartuko zituzkeen eskarrieko bideo-plataformak hizkuntza ez-hegemonikoetan ere eskaintza izatea. , Parlamentuak eta Kontseiluak desadostasunak gaingitzeko egin zituzten bileretatik atera zen testuan esaldi hori desagertu egin zen estaturen batek bultzatuta seguruenik –ez da oso azitia izan behar susmagarriak seinaltatzeko– eta horrela onartu zen.

Erabaki politiko hutsa, bidenabar, Europako Batasunaren izpirituaren kontrakoa aniztasuna ez duelako bermatzen eta merkatuak errentari baino ez dio begiratzen.

Alabaina legeak eta arauak ez dira nahikoa, borondate politikoa ere ezinbestekoa da. Jon Artatxok bere artikuluan ongi azaltzen duen legez:

'Espainiako estatuak ez dio dirurik eman 2012az geroztik Zinemari buruzko 55/2007 Legean aurreikusitako Hizkuntza Koofizialen Funtzari. Funtz horren bidez, 10 milioi eurorainoko aurrekontua esleitzen zitzaion, urtero, hizkuntza gutxituetan egindako obren ekoizpenari eta hedapenari.'

Egoitza parlamentarioan arazoak galdetu izan zaizkionean, entzungorrena egiten du Espainiako gobernuak. Legeak gutxi balio du borondaterik ez badago eta hizkuntza-aniztasuna zama moduan sentitzen bada.

Izan ere, badirudien arren arduradun politiko batzuk ez direla ohartzen edo ohartu ez nahi ez dutela, ikus-entzunezkoak kontsumitzeko moldeak aldatzen ari dira eta ez hori bakarrik sozializatzeko moduak ere, pandemiak argi laga duen bezala. Eta hori gertatu izan ez balitz legez jokatzen jarraitzen dute. Josu Amezagak klaru esplikatzen digu pasatzen ari dena:

'Kultura digitalaren garai honetan eragile berriak sortu dira, eta oso epe laburrean sekula ezagutu ez den ahalmena lortu dute. Eragile horiek kultura sortu, hedatu eta -bereziki- bideratu egiten dute. Gafa deiturikoak (Google, Apple, Facebook eta Amazon), beren jabetzako konpainiekin batera (Youtube, Whatsapp, Instagram, Android eta abar luzea) gure kultur kontsumoaren iturri nagusi bilakatu dira. Hauei munduko lau handien akronimoan sartu ez baina era berean handien taldean sartu beharreko konpainiak gehitu behar zaizkie: Microsoft, Twitter, Netflix edo Airbnb, adibidez, mendebaldetik datozen artean. Eta honez gero GAFari lehia egiten dion beste erraldoien kluba, Asiatik: BATX (Baidu, Alibaba, Tencent eta Xiaomi).'

Eta horiek guztiek telekomunikazio-azpiegitura sendoak behar dituzte bezeroei zerbitzuak emateko, zuntz optikoko sareak adibidez. Euskal erakunde publikoek Euskaltel 2013an saldu izana eta bere azpiegituren kontrol publikoa galdu izanak, epe motzeko ikuspegia erakustez gain –gaurko ogia eta biharko gosea– ahulezia-posizioan laga gaitu komunikazio-espazio subirano bat eraikitze momentuan eta euskarazko eskaintza sendo bat bermatzea zailagoa egiten du.

Eta borondate politikoa ere islatzen da elkarlan pribatu-publikoan aurrera egiteko aukera sortzen denean zure herritarrei euskarazko edukiak sarean eskaintzeko uko egiten diozunean. Jaume Ripoll-ek honelaxe kontatzen du:

'5000 (katalanezko edukiak) versus 37 (euskarazkoak), zergatik? 2017an, Kataluniako Generalitateak, Santi Vila buru duen Kultura Kontseilariaren bidez, Filmin.cat-en ideiarekin alde egitea erabaki zuelako, katalanezko filmak eta telesailak ez ezik berezko ildo editoriala eta komunikazio- eta marketin-kanal propioak ere izango dituen plataforma bat...

...Bere garaian, euskarazko hurbilketa bat egiten saiatu ginen, baina **Eusko Jaurlaritzari ez zitzaion interesatu** Filmin euskaraz egitea. Hori da errealitatea. Nahiago nuke noizbait hori egin ahal izaterik bagenu.'

Jaumek lerro horiek idatzi ondoren Filminek, euskarazko kanala zabaldu zuen 2020ko otsailean, erakutsiz borondatea dela helburuak lortzeko bidea⁶. Eusko Jaurlaritzako arduradunek ez zuten borondate hori erakutsi edo, okerrago dena, etorkizuna nondik datorren ez zuten ikusteko gaitasunik izan.

⁶ <https://www.europapress.es/euskera/noticia-filmin-euskaraz-euskarazko-lehen-streaming-kanala-abian-da-20200217142047.html>

Carlos Aresek galegoz bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du. Aldarri horretatik abiatuz publikotasunaren defentsa ere egiten du, galegoz edukiak ikusteko aukera telebista publikoak bakarrik eskaintzen diolako eta ez duelako sumatzen gainerakoek interesik dutenik. Merkatua kaiku hori!

'Ehunka kate ditugu. Eta, ehunka kanal horietatik, plataforma horietatik guztietatik, badakizue zenbat dauden galegoz, nire hizkuntzan? Nire alabena izatea nahi dudana hizkuntza horretan? Izan ere, eskubidea dut nire alabak hizkuntza horretan moldatzea nahi izateko. Bi bakarrik. Bi kanal baino ez. TVG eta TVG 2. Hara hor, telebista publikoak funtsezkoak diren ala ez.

Katerik gutxien dituzten etxeek ere 40 behintzat izango dituzte lurreko telebista digitalaren bidez, ezta? Bada, hortik gora. Galegoz, nire hizkuntzan, bi kate baino ez ditugu. Eta nik eskubidea dut nire hizkuntzan mintzatzeko eta nire hizkuntzan bizimodua egiteko. Eta eskubidea dut telebista-edukiak ikusteko.'

Laura Santamariak katalanezko bikoizketak espazio komunikatibo eta kultural katalanaren indartzeari eginiko ekarpenak azaltzen ditu, ajeak begien bistan jartzen ditu eta etorkizunari begira gogoeta egiten du bere artikuluan. Daitort, euskaldun bezala inbidiaz begiratzen diodala ikus-entzunezkoen alorrean Katalunian egin denari atzen 40 urteotan eta euskaldunontzat eta beste kultura eta hizkuntza ez-hegemonikoentzako etsenplu eta erreferentzia egokiak direla, akatsak akats eta gabeziak gabezi.

Bukatzeko eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakasle den Beatriz Zabaldondori berari zor baitzaio liburu honen jatorri den jardunaldiaren diseinua eta hizlarien proposamena. Bere esfortzu eta jakintzarik gabe ez ginatkeen honaino ailegatuko. Eskerrak ere EhuGuneke zuzendari Joxerramon Bengoetxeari elkarlana proposatu genionean ez zuelako duda-izpirik izan gure proposamena onartzeko, beste behin. Bideanbar, eskertu nahi ditut Bizkaia Aretoko Ione Arana eta bere lankideak jardunaldia eroso eta egoki joan zedin egin zuten lanagatik. Halaber, Coppieters fundazioari eskerrak eta graziak, beste behin Ezkerraberrirengan jarri duen konfiantzagatik. Azkenik, oso estimatua Julie Duval-ek, Coppieterseko proiektu-arduradunak, liburua txukuntxukun kalea ikus zezan egin duen lan arduratsua.

Espero dut liburuaren edukiez eman dizkizuedan zertzelada hauek leitzeko gogoia piztuko dizuela. Gozatu eta ikasi!

Nolako Ikus-entzunezko hedabideak behar ditugu estaturik gabeko herrietan?

Josu Amezaga Albizu

Aldaketa kultural handiko garaia

Estaturik gabeko herrietan nolako ikus-entzunezkoak behar diren pentsatu ahal izateko, oso kontuan hartu behar dugu bizi dugun aldaketa kultural handia.

Duela lau hamarkada soziologia ikasten genuenok, ondo barneratu genuen sozializazio eragile nagusiak zein ziren. Autore klasikoei jarraiki, familia, parekoen taldea ("kalea", lagunartea eta abar) eta eskola aipatzen ziren lehen mailako sozializazio eragile nagusi gisa. Historian zehar, eragile batzuk indartuz eta ahulduz joan ziren. Horrela, gure testuinguruan bederen, Elizak presentzia handia izan zuen lehenago, eta indarra galduz joan zen Estatuak irabazten zuen neurrian.

Beste eragile batzuek aldiz milaka urtetan zehar mantendu zuten beren indarra familiak eta parekoen taldeak esaterako, haien izaeran aldaketa sakonak geratu arren; familia handitik familia txikira pasatzea, edota parekoen bizitzan gertatutako aldaketak, adibidez.

Eskema klasiko hura ikasten ari ginelarik, zera irakurtzen genuen: komunikabideak (garai hartan prentsa, irratia, telebista eta zinema, gehienbat) sozializazio agente berriak zirela, eta espazio handia irabazten ari zirela.

Gogoratu behar dugu sozializaziotzat banakoa pertsona bihurtzen den prozesua ulertzen dugula. Hots, kultura bat barneratzen deneko prozesua, kultura barneratzeak bihurtzen baikaitu giza abere.

XIX eta XX. mendeetan zehar indartuz joan zen estatuak, bestalde, gero eta pisu handiagoa izan du pertsonen sozializazioan; hots, kulturaren transmisioan. Eskola bere egin du: kasu batzuetan, bere menpeko sistema publiko indartsua sortuz eta garatuz. Bestetuetan sistema pribatua arautuz: estatuak izan du, eta du, ekimen pribatuko hezkuntza erakundeek eskain dezaketen hezkuntzaren gaineko eskumen osoa. Bi sistema horien kontrolaz gain, estatuak du, halaber, derrigorrezko hezkuntza ezartzeko, oinarritzko kurrikuluma ezartzeko, eta beste hainbat arau ezartzeko ahalmena.

Komunikabideen arloan ere antzeko indarra izan du Estatuak, historian zehar. Europan inprenta garatzen hasi zelarik, Errege boterearen baimena behar zuen ezer inprimatu nahi zuenak (haren hondakina da gaur egun Estatu Espainolean, oraindik orain, indarrean dagoen Lege-gordailua). Komunikabide elektronikokoak sortu zirelarik (irratia lehenik eta telebista geroago) jabetza publikokoak izan ziren (AEBtan eta beste herrialde gutxi batzuetan izan ezik munduko gainerako herrialdeetan). Estatuak beretzat gorde zuen eremu berri horren kontrola; titulartasun zuzenaren bitartez lehenik, eta eremuaren arauketaren bitartez geroago.

Merkatua eta kultur industria ere agertu ziren komunikabideen eremuan; baina duela gutxira arte, haien jokalekua estatuak ezarritako joko zelaia izan da: merkatu nazionala, lege nazionalen menpekoa. Azken mende erdian ordea lehia bizian sartu dira Estatuak eta merkatua, komunikazioaren eta kultur industriaren eremuan. Eta, bi hitzetan, esan daiteke bigarrena ateratzen ari dela irabazle.

Baldintza hauetan egin behar izan diote aurre beren kultur transmisioari eta beren birsorkuntzari estaturik gabeko herriek. Kasu batzuetan, familiak eta parekoen

taldeak (modu zabalean ulertuta) ez dira gai izan dira estatu nazionalaren presioari eusteko, eta beren kultura eta nortasuna birsortzeko beste egiturarik gabe, desagertu egin dira herri gisa. Beste batzuk ordea gai izan dira gaur egunera arte irauteko, modu ahulago edo indartsuago batean; egitura politikorik gabe edo -Euskal Herriaren kasuan adibidez- gutxieneko egitura politiko batekin, boladaka bada ere.

Azken bizpahiru hamarkadetan ordea sozializazio eragile berriak sortu dira, globalizazioaren, botere kontzentrazioaren eta teknologiaren garapenak ahalbidetuta. Kultura digitalaren garaian gaude. Digitalak gero eta presentzia handiagoa du gure bizitzan. Kontsumozko kulturari erreparatzen badiogu, nabarmena da digitala erabat nagusitu zaiola analogikoari: euskarri digitaletan egiten dugu kontsumo kultural gehiena, agian arte plastikoak eta eszenikoen salbuespenarekin (Callejo Gallego, 2014). Kontsumozkoa ez den kulturaren arloan ere, digitalizazioa presentzia handia hartzen ari da. Parekoen arteko harremanetan eta are familia barneko harremanetan ere, kultura digitalak gero eta espazio handiagoa du: sare sozial deitzen ditugunak dira horren adibide.

Kultura digitalaren garai honetan eragile berriak sortu dira, eta oso epe laburrean sekula ezagutu ez den ahalmena lortu dute. Eragile horiek kultura sortu, hedatu eta -bereziki- bideratu egiten dute. GAFa deiturikoak (Google, Apple, Facebook eta Amazon), beren jabetzako konpainiekin batera (Youtube, Whatsapp, Instagram, Android eta abar luzea) gure kultur kontsumoaren iturri nagusi bilakatu dira. Hauei munduko lau handien akronimoan sartu ez baina era berean handien taldean sartu beharreko konpainiak gehitu behar zaizkie: Microsoft, Twitter, Netflix edo Airbnb, adibidez, mendebaldetik datozen artean. Eta honez gero GAFa lehia egiten dion beste erraldoien kluba, Asiatik: BATX (Baidu, Alibaba, Tencent eta Xiaomi).

Sarearen ideologiak hartzailearen askatasuna eta banakoari egiten zaion eskaintzaren zabaltasuna goraiatzan baditu ere, bistan da eragile horiek interes propioak dituztela, eta interes horien arabera eratzen dituztela banakoa produktu batera edo bestera daramaten algoritmoak. Azken finean merkatu librearen ideologia klasikoa baino ez da; banakoen beharrak merkatuak asetuko dituelako leloa, alegia.

Konpainia hauen handitasunak kolokan jarri du honez gero estatuak kulturaren eragiteko zuen ahalmenaren zati handi bat. Garazi Goiak ikus-entzunezkoen eremuan erakusten duenez, arlo honetan hamarkadetan zehar eta mundu osoan bere estiloagatik zein bere eragiteko ahalmenagatik eredu izan den BBC korporazioa, gaur egun, arrain txiki bat baino ez da marrazo handien aldean (Goia, 2017).

Kontsumitzen dugun kultura ez eze, kontsumozkoa ez den kultur transmisioan ere berebiziko indarra hartu dute konpainia erraldoiek, harremanen bideratzaile diren neurrian. *Sare sozialak*, orain, interneten bidez eta gehienetan konpainia transnazional baten bitartekaritzaren bitartez burutzen direnei deitzen diegu normaltasun osoz; lehenagoko gizarte sareak ordezkaten ari diren seinale agian.

Horrela, gertatzen ari diren aldaketek ez dute soilik merkatuak edo estatuak sozializazio eragile gisa duten garrantzia ukitzen: aitzitik eskolak, parekoen taldeak eta familiak berak duten garrantzia pitzatzen dute, eta hauei lekua kendu. Izan ere umeak oso gaztetatik jartzen dira kontaktuan sarean eta konpainia handiek bitartekotutako produktuekin, familiaren sozializaziotik kanpoko espazioetara barneratuz. Duela hamarkada batzuek telebistak antzeko fenomenoaren eragin zuen, bai; alabaina orduan familiak telebistaren erabileraren gainean zuen kontrola eta estatuak telebistako edukien gainean zuen kontrola askoz handiagoak ziren. Gaur egun, sareko edukiak, neurri handi batean, familiaren eta estatuaren kontrolatik kanpo daude.

Horregatik esan dugu, arestian, aldaketa kultural handien garaian gaudela. Eta testuinguru honetan pentsatu behar dute estaturik gabeko herriek nolako ikus-entzunezkoak behar dituzten.

Euskal Herriko ikus-entzunezkoen kasua: kontraesan handi bat

Azken berrogei urtean EiTb izan da Euskal Herrian ikus-entzunezkoen ardatz nagusia –ez bakarria ordea–. Sortu zen garai eta testuinguruan, 1982an eta Europan alegia, irri eta telebista sistema publikoek pisu handia zuten kulturaren transmisioan. Bai eta, ondorioz, nazioaren eraikuntzan: hala birsorkuntza kulturean nola hizkuntzarenean eta nortasunarenean ere. Gogora dezagun garai hartan Europako herrialde gehienetan telebista publikoak zuela monopolioa, eta hamarkada hartan hasi zirela kanal pribatuak sortzen (1984an Frantzia eta 1988an Espainia). Testuinguru hartan, telebistari dagokionez, inguruko estatuetan telebista sistema publikoek beren nazioetan lortzen zutena lortzeko aukera ikusi zuten hainbatek EiTbn: alegia eremu publiko propioa eraiki, berezko agenda sortu, botere politikoa zilegiztatu, hizkuntza ezarri eta nortasuna finkatu. Nazioa eraiki, labur esanda. Hemen nola edo hala naturaltzat hartu zen aukera hura ez zen ordea aukera

posible bakarra. Adibidez, urte berean Galesen sortutako S4C telebista beste asmo batzuekin sortu zen. Galesek ez zuen, artean, botere politikorik (1998ra arte ez ziren sortu Galesko Asanblada Nazionala eta Galesko Gobernu), eta telebistari hasieratik esleitu zitzaion egitekoa hizkuntzarekin zegoen lotuta; ez egitasmo politikoekin.

Telebista euskara sustatzeko bezainbeste nazioa eraikitzeko tresna izateak kontraesan bat eragin zion EiTBr: zein hizkuntzatan eraiki nazioa, erdaraz populazio guztia dakien baina euskaraz laurden batek soilik dakien herri batean? Izan ere euskaraz aritzeak eraikuntza nazionaletik kanpo utziko zuen populazioaren gehiengoa; eta erdaraz aritzeak euskararen kontra joko zuen. Hau, gainera, testuinguruko beste baldintza batzuekin ulertu behar da: ikus-entzunezkoak azpidatzi beharrean audioak bikoizteko ohitura dagoen ingurune batean eta telebisten edukiak % 100 hizkuntza bakar batean emititzen ziren ingurunean gertatzen zen: Espainia eta Frantziaren testuinguruan alegia.

Kontraesan honen gainean ibili da EiTBr lau hamarkadetan. Telebistarako irtenbide gisa eredu duala sortu zen 1986an: kanal bi, bata euskara hutsean eta bestea gaztelania hutsean. Banaketa honen teorizazioan, eredu dualarekin gainditzen zen kontraesana: euskarazko kanalak euskara sustatuko zuen, eta gaztelarazko kanalak nazioa eraikiko. Emaizta ordea bestelakoa izan da: euskararen sustapenetik begiratuta, aurrekontu bera bi kanalen artean banatu beharrak murriztu egin ditu euskarazko edukiak egiteko aukerak; sinbolikoki garrantzitsua den informazio generoa gaztelararekin lotu da, ez euskararekin; eta gaztelarazko telebistak lehia egin dio euskarazkoari, audientzia handiagoak lortzea eragotziz (Amezaga, 2013). Horrela, esan dezakegu lau hamarkadetan helburu politikoa nagusitu zaiola helburu linguistikoari. Areago: lehenengoa lortu nahi izateak, bigarrenean aurrera egitea eragotzi du.

Estatuak gabeko edozein herri badu zer ikasia, nire aburuz, euskal kasuaren historiatic, ikus-entzunezkoari gagozkiola; bereziki hizkuntza gutxitu propioa duten herrietatik begiratuta. Honekin ez dut esan nahi hizkuntzaren sustapenaren izenean helburu politikoa baztertu behar denik, ez eta kontrakoa ere. Azpimarratu nahi dudana da kasuan kasu kontraesan hori sor litekeela, eta nola aurre egin hausnartu beharra dagoela, zein bere baldintza, baliabide, eta egitasmoekin.

Edozein modutan, Euskal Herrian kontraesan hau lau hamarkadetan presente egon bada ere -eta halaxe dirau- testuingurua ez da berdina. Eta, ondorioz, kontraesanari aurre egiteko moduak ezberdinak izan daitezke.

Baldintzen aldaketa

Testuingurua bi mailatan aldatu da: Euskal Herrian bertan batetik; eta maila globalean bestetik.

Euskal Herriari dagokionez, aldatu den aldagai nagusia egoera soziolinguistikoa da. Euskarak hizkuntza gutxitu izaten jarraitzen du; eta erabilerak ez du hainbeste gora egin eremu batzuetan. Baina ezagutzak oso gora egin du: gaur egungo Euskal Herrian (zazpi lurraldeak harturik) gehiago dira euskara ulertzen dutenak ulertzen ez dutenak baino. Bestetik, eremu batzuetan erabilerak nabarmen gora egin du (hezkontzan eta bestelako eremu formaletan adibidez). Aldaketa hauek beste jokaleku batean jartzen dituzte euskarazko ikus-entzunezkoak.

Maila globalean ere aldaketa sakonak gertatu dira.

Arestian esan dugun bezala, estatuak indarra galdu dute sozializazio eragile gisa, eta horren barnean ikus-entzunezkoen gaineko kontrolaren zati bat ere galdu dute. 1980ko hamarkadan telebista pribatuen etorrerak aldaketa handi bat suposatu zuen, eta gobernuari telebistako edukiak nola edo hala bideratzeko aukera zertxobait murriztu zitzaion. Baina hau unean uneko gobernu batentzat arazoa izan badaiteke ere (besteak beste bere aldeko atxikimendu soziala lortzea zaildu diezaiokeelako), ez da hainbesteko galera estatuaren ikuspegitik. Izan ere estatua izanik oraindik ikus-entzunezkoen arauketa egiten duena (espazio irrati-elektroaren jabetzari eutsiz, oinarritzko legedia ezarri eta oro bat merkatu nazionala erdiguneko ardatz gisa kokatuz), sistema publiko zein pribatuek sistema nazional gisa jokatzea lortzen zuen. Naziogintzaren ikuspegitik, beraz, galera gutxi izan zuen estatu nazioak telebista pribatuen etorrerarekin. Azkenean kanal nagusi guztiek -publikoek zein pribatuek- nazio bera birsortzen zuten: estatuaren nazioa, alegia.

Benetako aldaketa geroago etorri da, merkataritzaren globalizazioaren, garapen teknologikoaren, liberalizazio eta desarauketaren, komunikazio eta informazio egituren kontzentrazioaren edota migrazio jarioen eskutik. Espazio nazionalak, komunikazio espazio gisa, indarra galdu dute, eta estatuak gero eta zailtasun handiagoak dituzte beren irudiko espazio propioa babesteko. Esanguratsua izan da 2019aren amaieran kargua hartu duen Europako Batzordeko lehendakaritza berriko Komisariora baten izena: "Gure Bizimodu Europarra Sustatzeko Komisariora"¹ Esanguratsua, kontinente zaharreko eliteek Europako bizimodua arriskuan ikusten

¹ "Sustatu" aditza azken uneko aldaketa izan da, jatorrizkoak ("Babestu") sortutako arrabotsen ondorioz gertatua.

dutela iradokitzen dutelako. Eta atal honi eman zaizkion eskuduntzak ikusirik (hezkuntza, integrazioa, migrazioa eta segurtasuna –sic–) ez dirudi bizimodu hori arriskuan jartzten duena joera ekonomikoa denik, edota mehatxu militarra (horiek denak beste atal batzuen ardurak dira). Gehiago dirudi aldaketa kulturalaren mehatxua ikusten dela.

Antzeko joerak antzeman daitezke Amerikako Estatu Batuetako lehendakari Donald Trumpen asmo batzuen atzean (Mexikoren mugan harresia eraikitzea adibidez) edota Erresuma Batuko Brexitaren atzean. Hauek, eta beste askok, estatuek beren menpeko lurraldean gertatzen diren komunikazio eta kultur aldaketak bideratzeko dituzten zailtasunak islatzen dituzte.

Halaber, ikus-entzunezkoen merkatu nazionalak ahultzen ari dira. Telebista linealetik *streaming* eta VOD (*Video On Demand*) sistemara igarotzeak, lehenik zetorren joera bat azkartu dute. Netflixen gorakada adibide argia da: Estatu Espainolera 2016an sartu zelarik, 2019ko udaberrian Hego Euskal Herriko populazioaren % 21engana iristen zen (CIES, 2019). Honi bestelako plataformak gehitu behar zaizkio (Prime, % 6arekin, edo HBO, % 4arekin, adibidez). Horrela, ikus-entzunezkoen espazio nazionala ahulduz doa.

Beste alde batetik, globalizazioarekin batera planeta mailako erronkak ere sortu edota ikusgai bihurtu dira. Auzi ekonomiko eta politikoak gero eta gehiago, planeta mailakoak dira. Baina beste alde batetik planeta osoa ukitzen duten arazoak ere lehen baino larriagoak eta ikusgarriagoak dira. Klima aldaketa, itsasoen kutsadura, migrazio jarioak, genero bereizkeria, eta abar. Honek, sareak ahalbidetzen dituen harreman moduekin konbinatuta, planeta mailako esfera publiko berriak sortzea eragiten ari da, esfera publikoa J. Habermasek nazioaren mailan definitzen zituen zentzu berean ulertuta (Habermas, 1962). Martxoaren 8ko mundu mailako mobilizazioek, *Fridays for Future* mugimendu globalak deitutako grebek, planeta mailako Gobernu Kanpoko Erakunde kanpainen eta abar, esfera publiko berrien sorrera iradokitzen dute. Esfera horiek ez dituzte orain arteko espazio nazionalak ordezkatzeko, eta zenbait ikerlariren arabera erreakzioa ere sor lezakete espazio nazional eta komunitarioak berrindartuz (Castells, 1997). Lehenago aipatu ditugun kasuak (Europa, AEB edo Erresuma Batua) horren adibide; baina nolabait lehengo monopolioa ahultzen dute.

Horiekin batera kulturalen ere eraldaketa handiak gertatzen ari dira. Multikulturalitatea dagoen tokietan (lurralde batean komunitate kultural ezberdinak bizitzea alegia), autore batzuek gehiago ikusten dute transkulturalitatea: hots, batzuk kultura

hegemonikoan soilik bizi diren bitartean, beste batzuk kultura hegemonikoan zein kultura gutxituan edo ez hegemonikoan bizi dira aldi berean, batetik bestera jauzi eginez eten gabe (Robins, 2006). Honek bat egiten du, bestalde, nortasun likidoen auziarekin (Bauman, 2017).

Azkenik, hemen hori garatzeko lekurik ez badago ere, komunikazio bide gero eta anitzagoak aipatu beharra dago, ikus-entzunezkoen euskarri nagusi izan diren komunikabide tradizionalak baino askoz harago doazenak.

Aldaketen aurrean, bestelako pentsamolde bat

Aldaketa hauek –eta beste asko– gogoan hartu beharra dago estaturik gabeko herrietan behar diren –eta ahal diren– ikus-entzunezkoak pentsatzeko.

Besteak beste, hegemonia maila handia lortuko duten komunikabide publiko propioen ideia berrikusi beharra dago. Jadanik ez dago merkatu nazionalako portzentaje handiak hartzen dituen telebista kanalik². Lehenago esan bezala, ikus-entzunezkoek oraindik orain paper garrantzitsua joka dezakete nazioen eraketan; baina sistema nazional gisa aritzen badira. Banaka harturik (1980ra arte Europan zegoen ereduari jarraiki alegia) oso mugatuta daude. Eta estaturik gabeko herrietako ikus-entzunezkoen errealitatea, kasu gehienetan, komunikabide bakarrek osatzen dute; ez komunikabide ugarien sistemek (Zabaleta, Ferré-Pavia, Gutierrez, Fernandez, & Xamardo, 2014).

Honek kolokan jartzen du EiTbK oraindik duen eredu dualaren zentzua. Izan ere populazio osoarengana iritsi ahal izateko populazio osoak ulertzen duen hizkuntza ere –gaztelania alegia– erabili beharra dagoelako ustea, gaur egun, eztabaidagarria da. Telebista kanal guztien artean (ETB1, ETB2, ETB3 eta ETB4) merkatu kuotaren % 10-%11 lortzen duen artean, galdetu beharra dago ea populazio osoarengana iristea benetako helburu egingarria ote den; edo zaharkituta geratutako ideologia bati ote dagokion. Izan ere asmo horretan oinarrituta burutzen den ereduak kostu handia du euskararentzat, lehenago azaldu dugun moduan. Agian interesgarriagoa litzateke esfortzua hizkuntzaren sustapenean kontzentratzea, hori ere nazioa eraikitzeo berebiziko bidea baita. Honek ez du esan nahi, gaur egun, euskara hutsezko

² Médiamétrie etxeak audientzia neurketa sistematikoak dituzten munduko 90 herrialdeetan neurtutako 5.000 baino gehiago kanaletatik, bakarra iristen da merkatu nazionalaren % 50eko audientziara; eta beste hamaikak soilik lortzen dute % 20 gainditzea (Eurodata TV, 2014).

eskaintza. Izan ere gero eta gehiago dira emanaldi berean eta kanal berean hizkuntza ezberdinei lekua egiteko aukerak eta praktikak (audio kanal bikoitzak, azpidatziak e.a.), eta aukera horiek baliagarriak izan beharko lirateke gurea bezalako testuinguru soziolinguistiko nahasian.

Halaber, ikus-entzunezkoetatik nazioa eraikitzea ezin daiteke ulertu, jadanik, komunikabide publiko eta handien eginkizun eksklusibo gisa. Komunikabide pribatuak edota are ekimen sozialeko komunikabide txikiak ere politika horretara bildu beharra dago, ikus-entzunezkoen sistema nazionala eratuko bada. Eta horretarako tresnak arauketa sustapena dira (Amezaga Albizu, 2017). Zoritxarrez ezer gutxi egin da arlo honetan gurean EiTb sortu zenetik hona: Komunikazio Legerik edota Ikus-entzunezkoen Kontseilurik ez da sortu EAEn; eta eremu nazionalari ez baina gutxienez eremu autonomikoari lotutako sistema eratzeko aukerak ez dira behar bezala baliatu. Kasu batzuetan, indarrean jarri ez direlako (telebista kanal autonomikoen gaineko eskuduntzak kasu); beste batzuetan baliatu direnean arreta txikia jarri zaiolako espazio nazionala eratzeari (tokiko telebista eta irrati emakidak adibidez). Azkenik, espazio estatuala egunero birsortzen duten ikus-entzunezkoen gainean eragiteko ezer gutxi egin da. Bistan da haien gaineko eskumena estatuarena dela; baina euskal politikak ez du inoiz borrokarik planteatu eremu horretan, estatuarekin izan dituen harreman eta negoziazioetan adibidez.

Komunikazioko subiranotasunaren bidean, XXI. mendean

Espazio nazionala eratzeari begira bada, azkenik, pentsatu beharreko beste eremu bat, ikus-entzunezkoen arloari gagozkiolarik: komunikazio azpiegitura.

Izan ere, estatuak beren neurriko ikus-entzunezkoen sistema nazionala eraikitzeke eduki duten tresna garrantzitsuenetako bat, komunikabide publikoen jabetzarekin batera, azpiegituren kontrola izan da. Azpiegitura horiek, gure testuinguruan, duela hiru hamarkadara arte gehienbat espazio irrati-elektikoan oinarritzen ziren. Estatuak izanik espazio horren jabetza eta kontrola zuena, hark diseinatu ahal izan zuen bere neurriko espazioa telebista pribatuak etorri zirenean ere. Hauek estatuak zedarritutako joko zelaian eta hark ezarritako baldintzetan jokatu behar izan zuten: hortik eratu ziren telebista publiko zein pribatuak osatutako ikus-entzunezkoen espazio nazional espainola edota frantsesa.

Teknologiaren garapenak, batetik (internet, telekomunikazioak eta digitalizazioak); eta liberalizazioak, bestetik (desarauketa eta telefonia zein ikus-entzunezko publikoen monopolioaren amaiera) egoera berriak sortarazi zituzten duela bi hamarkada: informazio jario handiagoa garraiatu behar zen, eta agente berriak etorri ziren. Testuinguru horretan sortu zen Euskalnet elkarte publikoa, EAE ehunduko zuen kable bidezko sarea eraikitzeke, 1992an; eta hiru urte beranduago Euskaltel, hasieran telefoniarako baina laster ikus-entzunezkoen datuetarako azpiegitura eta agente gisa. Hasieran kablean oinarritua, geroago hari gabeko komunikazioan ere barneratua.

Oso denbora laburrean merkatu kuota handia lortu zuen Euskaltelek, gaur egun EAeko etheen heren batera iristen delarik bere datu, telefono eta telebista zerbitzuekin. Horrela, esan ahal dugu euskal aginte publikoek lehenago sekula izan ez zuten botere bat eskuratu zutela komunikazioaren eremuan. Enpresa sortu berri eta arrakastatsuen jabetzan kutxa publikoek eta Eusko Jaurlaritzak zuten kontrola berme bat izan zitekeen komunikazioko subiranotasunaren bidean (beti ere XXI. mendean komunikazioaren subiranotasunaz hitz egin daitekeen neurrian). Halandaze, ordura arte espazio irrati-elektikoan zein seinale garraiatuko ziren estatuak erabakitzen zuen bezala, kablean zein seinale hedatuko ziren kablearen jabeak erabakitzeke ahalmena eskuratu zen: Euskaltelek erabakitzea, alegia.

Erabakimen honen garrantziaren adibide bat gaur egungo telebista kanalen eskaintzan ikus dezakegu: Euskaltelek EAeko populazioaren % 30ri ematen dio telebista zerbitzua (CIES, 2019). Haien telebistetako urruneko agintean, ETB1 agertzen da dialaren lehen postuan, eta ETB 2 bigarreanean. Hamaikagarren postuan Hamaika Telebista dute; eta aurrerago ETB3, ETB4, eta euskarazko tokiko telebista ia guztiak. Telebista Movistarren eskutik ikusten dutenek berriz (EAeko biztanleen % 23k) bederatzigarren postuan dute ETB1, eta hamargarren postuan ETB2³; aurrerago dute ETB3, baina gainerako euskarazko telebistak ez dira agertzen haien dialean. Vodafoneko bezeroek (% 3k) zazpigarren eta zortzigarren postuetan dituzte ETBko lehen bi kanalak, aurrerago ETB3, ETB4 eta ETBSat, eta euskarazko beste eskaintzarik ez. Orange aukeratu dutenek aldiz (% 2k) aukera bakarra dute dialean: ETBSat, bi digituko kokapen batean (82).⁴

³ Azken hau, beraz, bi digituko kokapenean, desabantaila handiko kokapenean alegia.

⁴ Gogora dezagun ETBSaten edukiak gehienbat ETB2ko saioek osatzen dutela, ETB1eko gutxi batzuekin batera. Halaber, esan dezagun Movistar, Vodafone zein Orangeren zerbitzua dutenek beti dutela aukera lur gaineko telebista digitalean aurki daitezkeen seinaleak ikusteko: EAeri dagokionez, ETB1 eta ETB2 ia kasu guztietan, eta barruti bakoitzean egon litekeen tokiko telebista ere.

Nafarroan aldiz, Euskaltel 2019an hasi da zerbitzua ematen, eta gaur gaurkoz populazioaren % 1engana baino ez da iristen. Haiei zazpigarren eta zortzigarren postuetan agertzen zaizkie ETB1 eta ETB2, baiian Euskaltelen esku dago etxe nafar horietan ere euskal kanalak (horiek eta gainerakoak) lehen postuetara eramatea; edo ez.

Dialaren aukera hau, azpiegiturak kontrolatzeak eman dezakeenaren adibide bat baino ez da. Beste adibide bat, datuen banaketa sarearen egituraketari dagokiona da: kablezko zein uhin bidezko sarea nola eta noraino zabalduko den (hiriguneetara, herri txikietara, auzo urrunetara...) adibidez, garrantzi handikoa da lurralde antolamenduaren ikuspegitik eta baita gizartearen kohesioaren ikuspegitik.

Honengatik guztiagatik, nekez uler daiteke euskal agintek Euskaltel 2012an pribatizatu izana. Jaurlaritzak bere akzio guztiak eta kutexek haien partehartze gehiena saldu izana, batetik, eta publikoak ziren aurrezki kutexak pribatizatu izana, bestetik, jabe pribatuen esku utzi dute Euskaltel. Zoritxarrez, lerrook idazten ari garen unean zabaldua dauden zurrumurruek (zuntz optikoko sarearen balizko salmentari buruz) apenas ireki duten azpiegitura honen izaera estrategikoari buruzko debata, komunikazioaren eta kulturaren ikuspegitik bederen.

Une horretan beraz hasieran izan zuen orientabide politikoa galtzeko arriskua du Euskaltelek, ikus-entzunezkoen banaketa sisteman ez eze komunikazioaren teknologiararen garapenetan gakoa izan zitekeen agente estrategiko bat etekin ekonomikoa baino bilatzen ez duten eragile transnazionalen esku utzita.

Zalantzarik ez da, Euskaltelen kasua oso argigarria dela estaturik gabeko herriek ikus-entzunezkoen arloan dituzten aukerez, arrakastez, eta errakuntzez hausnartzeko. Argigarria da bestalde, sarriegitan nagusitzen den ikuspegi bat kolokan jartzeko: estaturik gabeko herriek behar duten komunikazioaren inguruko debata, komunikabide publikoen inguruko debatera mugatzen duen ikuspegia alegia. Gero eta gehiago, nire ustez, komunikazio politikaz hitz egin beharra dago, ez soilik komunikabideez. Hauek, haren atal bat baino ez dira.

Erreferentziak

Amezaga Albizu, J. (2017). Komunikazio espazioaren garrantzia naziogintzaren erronkaren aurrean. In Ezkerraberri Fundazioa (Arg.), *Nola sortu espazio komunikatibo komuna Euskal Herrian?* (or. 14–49). http://ezkerraberri.eus/eu/Argitalpenak/20180216/Nola_sortu_espazio_komunikatibo_komuna_Euskal_Herrian

Amezaga Albizu, J. (2013). Euskal Telebista 30 urteren ostean. *Jakin*, 194–195, 11–50.

Bauman, Z. (2017). *Modernidad líquida*. Fondo de Cultura Económica.

Callejo Gallego, M. J. (2014). El consumo de cultura digital: crecimiento continuo, lento y con sombras. In Observatorio de la Cultura y la Comunicación, Fundación Alternativas (Arg.), *Informe sobre el estado de la cultura en España 2014* (or. 133–144; E. Bustamante & F. Rueda). Madrid.

Castells, M. (1997). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 2: El poder de la identidad*. Madrid: Alianza.

CIES. (2019). *Estudio de audiencia de medios. 1a oleada 2019*. Iruñea.

Eurodata TV. (2014). *One TV Year in the World*. Paris: Médiametrie.

Goia, G. (2017). *Ikus-entzunezko britaniarren joerak*. <https://www.youtube.com/watch?v=8SbsOMNORpw>

Habermas, J. (1962). *Historia y crítica de la opinión pública. La transformación estructural de la vida pública* (3. arg., 1986). Mexiko: Gustavo Gili.

Robins, K. (2006). *Challenge of Transcultural Diversities Cultural Policy And Cultural Diversity* (1. arg.). Council of Europe.

Zabaleta, I., Ferré-Pavía, C., Gutierrez, A., Fernandez, I., & Xamardo, N. (2014). European minority language media and journalism: Framing their marginal reality. *International Communication Gazette*, 76(3), 275–295. <https://doi.org/10.1177/1748048513516907>

Ikus-entzunezko komunikabideak eta hizkuntza ez-hegemonikoak Galizia aldetiko ikuspegia

Carlos Ares

Badira 30 urte inguru telebista egiten dihardudala, eta, kulturgintzan, baten bat gehiago ere bai. Lehenik eta behin, produkzio-lanetan. Eta, azken 25 urteetan, telebistarako edukiak sortzen; mende-laurdena, alajaina. Gidoilari, telesail-sortzaile, zuzendari eta ekoizle exekutiboa naiz. Eta 22 urte daramatzat Produccións Zopilote enpresan –beste bi bazkiderekin partekatzen dut ekoizpen-etxe hori, adiskide minak biak ere–. Hasieran, edukiak sortzen zituen ekoizpen-etxe hark. Baina, azkeneko urteetan, ekoizpen-lanak ere egiten ditugu.

Zopiloten, hasierako garaietan, gidoiak egiten genituen enkarguz. Ondoren, telesailak sortzen genituen. Geroago, ekoizle kide bihurtu ginen. David Mamet egilearen *State and Maine* film zinez gomendagarrian dioten moduan, "zer ote

da ekoizle kide bat?" Eta, erantzuna, berriz, algara artean, honako hauxe: "Hala izateagatik gehiago kobratzen ez duen bat".

Gerora, geure telesail eta programetako ekoizle exekutibo izan ginen, baita zuzendari ere. Ondoren, koproduttore, eta, azken urteetatik hona, ekoizle. Erabateko kontrola dugu egiten dugunaren gainean.

Esan genezake etengabeko borrokan dihardugula, etengabeko bilaketa-lanetan, ahalik eta kontrol handiena izateko gure obren eta edukien gainean. Ahalik eta gehien kontrolatzeko gure telesailak edo programak.

Jardunaldi honetan, neurri batean –neurri eder batean–, etxetresna elektriko bati buruz jardungo dugu. Izan ere, horixe da telebista: etxetresna elektriko bat.

Eta, egiaz, gure bizitza askoz ere nekezagoa litzateke hozkailurik gabe, edo sukaldarik ez bagenu. Garbigailurik ez edukitzeak ere zailduko luke, edo pentsa ontzi-garbigailurik izan ezean! Baina, nahiz eta telebista ez izan ezinbesteko etxetresna bizi izateko, harexek egiten digu bizitza atseginen.

Telebista ikusiz izan ditut bizitzako unerik onenetako batzuk, eta sinetsiez adazue, gero, bizitza betea dudala, hamaikatxo une atseginez jantzia.

Deigarria iruditzen zait pertsona askok jakitea 1895eko abenduaren 28an izan zela jendaurreko lehen zinema-emanaldia. Bai, Inuzente Egunean, Paris aldean. Barraketako ikuskizun baten modukoa zen, eta gazteek oso gogoko zuten. Gaur egungo moduan, bistan da.

Baina inortok ere ez daki noiz sortu zen telebista. Nire adinekoek, berrogeita hamar urtetik gorakoek. Eta osteko belaunaldiei dagokienez, zer esanik ez, pentsatzen baitugu telebista betidanik egon izan dela etxeetan. Gure bizitzetako parte dela. Gure parte.

Nire gurasoek 80 urte eskas dituzte, eta ondo gogoan dute noiz ikusi zuten telebista lehenbizikoz. Hasieran, tabernetan; ondoren, bizilagunen etxeetan. Eta, azkenik, beren etxean. Egundoko balioa ematen diote. Eta ez naiz ari nire aitona-amonez edo nire gurasoen aitona-amonez, zeinak ezagutu baintuen orain urte asko. Banuen izeba zahar bat, telebistaren aurrean arropak aldatzen ez zituena, inork ikusiko ote zuen edo.

Ezin dugu irudikatu ere egin zer izan ote zen etxetresna hura agertu izana, zer ekarri ote zuen etxetresna zoragarri hark haien bizitzetara.

Bada, oso bitxia da beti kontatzen dudan istorio hau, eta iruditzen zait merezi duela berriro ere kontatzea. Izan ere, baliagarri askoa delakoan nago, telebistaz, edukiez eta plataformez mintzatzeko.

1926ko urtarrilaren 26an izan zen lehendabiziko telebista-emanaldi publikoa. Seguru nago zuetako inortxok ere ez zuela datu horren berri.

John Logie Baird ingeniari eta zientzialari eskoziarra zuen atzean. Eta huraxe izan zen, hain justu ere, lehendabiziko telebista-sistema publikoaren arduraduna. Koloretako lehendabiziko telebista-hodiarena ere bai.

Hainbat saiakuntza egin zituen, irudiak distantzia batera proiektatzeko. Hala, Maltako Gurutzearen irudi dardarkari bat metro batzuetara transmititzea lortu zuen 1924an. Aurrerago ikusiko dugu Logie Baird xelege samarra zela zer eman aukeratzeko garaian. Akaso garaiak izango ziren halakoxeak. Edo baliteke telebistagintzan dihardugunok ere pertsona bitxi samarrak izatea.

Dena dela, 1926ko urtarrilaren 26 horretantxe egin zuen telebista-sistema publiko baten lehen erakustaldia, Londresko Soho auzoan, *Frith Street* kaleko etxe batean. Metro batzuetara bidali zituen irudiak. Gela batetik bestera. Eta zientzialari-talde bateko kideak izan ziren lehendabiziko ikusleak.

Eta zer ikusi ote zuten, bada, lehendabiziko aukeratu haiek, gizarte zientifiko britainiarreko pertsona nabarmen haiek? 1. irudiko txorimaloa.



1. irudia. Bill panpina.



Logie Baird, zientzialari apartekoa izateaz gainera, bentrilokiazale amorratua ere bazen, eta iruditu zitzaion bere Bill panpina zela egokiena zientzialari-talde jaso hark telebista bidez ikusteko.

Nire iritzian, txundigarria da bentrilokia-panpina bat ikustea lehendabizikoz telebista-aparailu primitibo batean. Eta, funtsean, ederki asko erakusten du zer nolakoa den telebista. Ez diogula ematen merezi duen garrantzia. Logie Bairdek ez zuen pentsatu lehenik eta behin artelan bat ematea jendaurrean, Da Vinciren koadro bat, Kapera Sixtinoa, eskultura bat, Shakespearearen antzezlan bateko pasarte bat. Ez. Erabaki zuen, konbentziturik erabaki ere, txorimalo zatar hura ikusi behar zutela.

Oso gauza gutxi iruditzen zaizkit telebistarako desegokiagoak Bill panpina gizagaixoa baino. Ez al da hala? Baliteke ondo asko erakustea telebista zer den, baina ni ez naiz erromantiko bat.

Irudiak 25 lerroko bereizmena zuen gutxi gorabehera, eta izugarri txikia zen. Gaur egun, telebista arrunt batek 2048 pixeleko bereizmena dauka. Baina garrantzitsuena da nabarmen ageri zela Bill.

Kontatzen dutenez, Logie Baird probaketa batzuk egiten ari zen, ezertxok ere ez zezan huts egin gonbidatu zituen zientzialari guztien aurrean, eta haur bat ipini zuen, aprendiz bat, gero saiakuntza egin behar zuten gelan. Antza denez, haurrak korrika ospa egin zuen Bill ikusi orduko. Ez zait harritzen. Ezin esan, horregatik, haurra koldarra zenik. Britainiarra izanik ere. Edonork egingo zuen hanka. Hortaz, ustez lehendabiziko telebista-ikuslea izan zen hark hanka-jokoan alde egin zuen irudia ikusi bezain pronto. Bitxia, ezta?

Eta zergatik kontatzen dut hau? Zergatik ekin diot anekdota horrekin?

Bada, ez diogulako ematen telebistari merezi duen garrantzia. Ez baitakigu asmatzailearen izena bera ere.

Saiakuntza egin zuten eraikina bota egin zuten, eta, haren tokian, eraikin-bloke bat dago gaur egun. Eta, han, lehen telebista-emanaldia oroitzeke plaka bat dago.

Londresen izan naizen guztietan, inoiz ez naiz inguratu Frith Street aldera. Eta ez dut ezagutzen, gainera, hara arribatu den inortxo ere. Eta bada bazter bitxietara joaten denik ere. Bateko Jack errai-ateratzailearen krimen-agertokiak direla, besteko Sherlock Holmesen kasuetakoak direla, nahiz eta kasu horiek sekula gertatu ez.

Halakoxeak gara telebistako ikus-entzuleok. Halakoxeak gara telebistagintzan dihardugunok.

Eta orain ekingo diogu polemikari. Lehen esan dudanez, gidoilari, ekoizle exekutibo, zuzendari, ekoizle eta *show runner* ere banaiz –ikus-entzunezko sortzaileok horrenbeste borroka eginda eskuratzen dugun kreditu hori-. Baina, horrekin guztiarekin batera, tipo oso bitxia nauzue, telebista publikoen defendatzaile sutsu eta erabatekoa ere banaiz eta.

Izan ere, uste dut ezinbestekoak direla demokraziak eta komunikabideek ondo funtzionatuko badute. Eta iruditzen zait funtsezko egitekoa dutela faktore askotan eta askotan: linguistikoak, sozialak eta are ekonomikoak eta enpleguarekin lotuak.

Halaxe izan zen hasiera-hasieratik. Hasierako telebista-emanaldiak publikoak izan ziren: lehendabizikoa, BBCrena, Erresuma Batuan. Ez zuten ordutegi erregularrik. Ahal zuten garaian emititzen zuten, ahal zuten moduan.

Handik urte batzuetara, 1930eko hamarkadan, telebista-kate pribatuak agertu ziren Estatu Batuetan, CBS edo NBC, kasurako.

53 urte ditut, eta nire oroitzapen zaharrenetako bat telebista ikustea da. Zinema ere bai, jakina. Baina, nire lehen oroitzapenen artean, nire aita ikusten dut futboleko jokatzeko. Jokalari bikaina, nahiz eta tamalez ez zen inoiz profesionala izan. Baina baita telebista ikustea ere. Eta ez dut uste negatiboa denik. Eta, hitza ematen dizuet, orduak ematen nituen kalean. Gure garaian jolas gintezkeen kalean, nire alaben belaunaldian ez bezala. Futboleko aritzen ginen, ni neroni gure aita baino dezente panggalago (zer ez ote nuke emango hura bezala aritzeko!). Baina ondo gogoan dut auto bat igaro eta geratu egiten ginela. Hamar edo hamabost minututik behin igarotzen baitzen auto bat. Orain, nire alabek ez lituzkete hogeitasegundo ere emango jolasten kale horietan beretan.

Baina, etxera iritsi, eta pozik egoten nintzen telebista ikusten.

Beste istorio bat kontatuko dizuet. Oraingoan, pertsonala. Dakizuen moduan, eta telebistari esker zuzenean ikusi genuen, gizakia Ilargira iritsi zen orain 50 urte, uztailaren 21ean.

Nik ez nuen hiru urterik ere artean. Pentsatzekoa denez, ez dut gogoan. Eta horren garrantzitsua zen telebista, horren garrantzitsua da, ezen gurasoek esnatu egin

baininduten 03:56an. Nik uste dut horixe dela Armstrongek Ilargia zapaldu zueneko ordu ofiziala. Bada, esnatu egin ninduten, "umeak une hori bizi" zezan. Telebistan ikusi ahal izan zezan. Nire arrebak urtebete baino gutxiago zuen artean, eta uste dut libratu zela.

Pentsa telebista garrantzitsua den ala ez.

Eta, orain, neure buruaz hitz egingo dut berriro ere. Gogoan dut txikitan zineman ikusi nuen lehendabiziko filma: *Banbi*. Eta iruditutik zitzaidan zoragarria, magia. Guztia ahaztarazten zuen une paregabea. Inork ezin ninduen konbentzitu ikusten ari nintzen hura ez zela egia. Garai bateko zinema-aretoek zuten usain hura, desinfektatzaile-usaina. Zergatik ez dute egungo aretoek usain hura bera? Huraxe da, hain justu, zorionarekin lotzen dudana usainetako bat.

Nire bizitzan ez zen ezer gehiago berdina izan, zinema-areto batetik igaro ostean.

Baina nik, telebista horren maitea izanik eta telebista egiten dihardudan aldetik, ez dut gogoan zer telebista-programa ikusi nuen lehendabizikoz.

Asko ditut gogoan, hala nola *El hombre y la Tierra*¹, *Los Payasos de la Tele*² (a zer negarrak egin nituen Fofó hil zenean). Haur-programa ugari ditut gogoan. Futbol-partida bikainak, oso epikoak, lokatzez jositako zelaietan, publikoa zelaiaren ertz-ertzean zela. Gogoan dut Lribar handia... Gogoan ditut goizaldeko boxeoko-lehiak, Muhammad Alirekin. Baina baita gurasoen baimenarekin-edo ikusten nituen telesailak ere; baimena-edo diot, bestela haurra ez baitzen lotara joaten.

Eta, geroago, telebistari esker, zinema klasikoak ezagutu nuen. Nire adinekook telebistan ikusi genituen John Ford, Huston, Hitchcock, Renoir, Orson Welles, Lubitsch, Billy Wilder, William Wyler eta halako zinemagile handien obra osoa... Telebistan ikusten genituen zinemako izenik handienak. Oso zorionekoak ginen, eta ez genekien.

Nahiz eta Espainiako estatua grisa, itsusia eta hotza zen, joan den mendeko 70eko urte haietan. Umetan, zoriontsu ginen telebista ikusten. Eta kolorez jantzia ageri zitzagun mundua, goxoa, pozez betea, nahiz eta zuri-beltzeko filmen, telesailen eta programen bidez ikusi.

¹ Naturari buruzko telesaila, RTVEk emana 1974 eta 1981 bitartean. Félix Rodríguez de la Fuente zuen zuzendari, eta mugarririk izan zen Espainiako estatuan, produkzioari zegokionez.

² RTVEren *El gran circo de RTVE* programaren kaleko izena, zeina Aragón sendiko pailazoek gidatu baitzuten 1970etik 1981era bitartean.

Ezertxo ere ez zen berdina izan niretzat telebista ikusi ostean. Eta beste inoren bizitzan ere ez.

Telebista publikoak ezinbestekoak dira; bereziki, hizkuntza propioa duten nazioetan, herrialdeetan edo erkidegoetan. Eta, ohar zaitezte, hiru termino ezberdin eman ditudala aukeran, segun eta zeinek hitz egiten duen eta hizlari horrek zer ideologia politiko duen. Nahita baliatu ditut.

Ehunka kanal ditugu etxean. Ez hori bakarrik. Plataforma bat, bi edo hiru ere baditugu –nire kasuan, behinik behin–, edukiz beterik. Eduki kaskarrez, hala-holako eta paregabez beterik. Halaxe izan da beti telebistan. Ez da kontu berria. Adin guztietarako edukiak, gustu guztiak asetzekoak.

Gaur egun, jendeak gezurra dio. Tira, ez da gezurra ere, huts handi bat da. Baina maiz errepikatzen da. "Nik ez dut telebista ikusten".

Ez da egia. Ez duzu telebista kontsumitzen orain urte gutxi batzuk kontsumitzen genuen moduan. Orain hamar urte baino gutxiago. Gogoan duzue? Egunkarietan ikusten genuen programazioa. Egunkariak... Gaur egun erabiltzen ez dugun beste zerbaite. Ezta arraina biltzeko ere, Davis Simonen *The Wire* paregabean dioten moduan. Gogoratzen ez? Arrandegira joan, eta egunkari-orrietan biltzen ziguten arraina. Orain legez kanpokoa da hori.

Nork hartzen du gaur egun egunkaria programazioa ikusteko? Edo nork kontsultatzen du teletestua? Bai, oraindik ere kate batzuek badaukate teletestua. Edo nor aritzen da *zappingean*? Gu hala aritzen ginen. Eta urruneko agintea bera ere, orain makina bat urte, etxeko txikiak izaten ginen. "Ea, aldatu katea!". Eta lehendabiziko katetik bigarrenera aldatzen zenuen, eskutxoekin eraginda.

Bai, gero eta telebista gutxiago kontsumitzen da Logie Baird bikainak asmatutako aparailuan. Baina sekula baino telebista gehiago kontsumitzen da beste bitarteko batzuetan, ordenagailu, tablet edo smartphoneetan. Nahiz eta jendeak ezetz esan, hori telebista kontsumitzea da.

Eta, egunkariak ez ditugula irakurtzen esan arren, gaur egun inoiz baino informazio gehiago kontsumitzen da. Berriro ere ordenagailu, tablet edo smartphoneetan.

Ehunka kate ditugu. Eta, ehunka kanal horietatik, plataforma horietatik guztietatik, badakizue zenbat dauden galegoz, nire hizkuntzan? Nire alabena izatea nahi

dudan hizkuntza horretan? Izan ere, eskubidea dut nire alabak hizkuntza horretan moldatzea nahi izateko. Bi bakarrik. Bi kanal baino ez. TVG eta TVG 2. Hara hor, telebista publikoak funtsezkoak diren ala ez.

Katerik gutxien dituzten etxeek ere 40 behintzat izango dituzte lurreko telebista digitalaren bidez, ezta? Bada, hortik gora. Galegoz, nire hizkuntzan, bi kate baino ez ditugu. Eta nik eskubidea dut nire hizkuntzan mintzatzeko eta nire hizkuntzan bizimodua egiteko. Eta eskubidea dut telebista-edukiak ikusteko.

Bi kanal baino ez nire hizkuntzan. Eta zer gertatzen da telebista-kate pribatuekin? Zenbat programazio dugu euskaraz, katalanez, galegoz, bablez? Espainiako estatuko hizkuntza guztietan? Nazio, herrialde, erkidego bakoitzeko berezko hizkuntzetan, kanal pribatu deitzen ditugun horietan? Bat bera ere ez. Batzuetan, gainera, gaizki idazten dituzte gure herrietako izenak ere. Gaizki idatzi edo gaizki ahoskatu. Eta ez dute endredo handiegirik hartzen zuzentzeko ere. "Hara orain ere, nazionalistak. Ez dago, bada, aurreragoko lanik!" Bai, baditugu aurreragoko lanak. Baina hori ere garrantzitsua da.

Eta telebista pribatu gisa aipatu ditut. Baina termino hori oker samarra da. Oso gutxi hitz egiten baita, baina gehiago egin beharko genuke. Guzti-guztiak, handienetik txikienera, finantza-talde handien esku daudenak, dohainik emandako kontzesioak izan ziren. Bai, musu-truk emanak. Lehendabizi, Aznarren gobernuak. Eta, ondoren, Zapaterorenak.

Are gehiago. Orain, lurreko telebista digitaleko kanal ia guztiak bi komunikabide-eta finantza-talde handitan daude bilduta: Mediaset³ eta AtresMedia⁴.

Kate horietan, jatorrizko bertsioan daude ikusgai edukiak, filmak, telesailak. Edonola ere, gero eta gutxiago ematen dira taldeek berek sortutakoak ez diren ekoizpenak. Eduki horiek gaztelaniazko azpitoluekin ikus daitezke. Baina azpitolu horiek ez daude eskuragarri euskaraz, katalanez, galegoz, bablez...

Eta eduki propioak gure hizkuntzan edukitzea, pentsatu ere ez.

Eta edukien plataformetan? Badago bat, Movistar (beste komunikabide- eta finantza-talde handi batena, hain justu), eduki guztiak ez bada ere batzuk behintzat

³ Mediaset telebista-komunikazioan jarduten duen enpresa italiar bat da. 1978an sortu zuen Silvio Berlusconi, Telemilano izenarekin, eta 1996an hartu zuen gaur egungo izena.

⁴ Atresmedia Espainiako komunikabide-talde bat da, eta hainbat jardueraren sektoretan dihardu, batez ere ikus-entzunezkoan.

katalanez ematen dituena. Euskaraz ere bai baten bat. Baina, hara zer ezustekoa, galegoz alerik ere ez. Nik ezin dut ikusi *Game of Thrones*⁵ galegozko azpitoluekin. Pentsatzen dut nire hizkuntza ez dela errentagarria. Errentagarria ez den hizkuntza bat hitz egitea ere!

Baina beste plataforma batzuetan –Amazon, Netflix, HBO...– ezin da azpitolurik eskuratu gaztelania ez den beste hizkuntzaren batean.

Eta zergatik ez du agintzen Espainiako estatuko edo Europako araudiak kateek eta plataformek azpitoluak ematea estatuko hizkuntzetan?

Inori ere ez zaiolako interesatzen. Haientzat arazo "txikia" delako. "Hara orain ere nazionalistak, betiko erretolikarekin."

Eta egia, egia absolutua botatzeko –eta ni ez naiz egia absolutuen oso laguna, baina hau halaxe da–, nazioei herrialde, erkidego, lurralde edo eskualde deitzen dieten horiek zaindu egin beharko lituzkete toki horietako berezko hizkuntzak. Espainiako hizkuntzak baitira, ala ez? Eta, Espainiako hizkuntzak badira, legez babestu beharko dira. Eta ez badira Espainiako hizkuntzak, etor daitezela eta bidal gaitzabela pikutara. Nik hala ikusten dut, behinik behin.

Horrenbestez, telebista publikoek babesten dituzte gure hizkuntzak. Zoritzarrez, haiek hartzen dute beren bizkar gure berezko hizkuntzen erabilera oso-osorik. Kate pribatuek –edo, hobeto esanik, arrazoi politikoak direla-eta emaniko doako kontzesioek– ez dituzte babesten. Kontrakoa ezpada. Eta plataformek oso neurri txikian baino ez dute egiten, izan beharko lukeenaren zati txiki batean baino ez.

Eta egoera are okerragoa da publiko gazteenaren artean. Nik hiru urteko alaba bat daukat. Eta plataforma berriak eduki kaskarrez josita daude. Hala-holako edukiak ere badituzte, eta baita eduki paregabeak ere adin modu horretako ikusleentzat. Baina zati txiki bat baino ezin dezake ikus bere hizkuntzan. Amak eta biok ikas dezan nahi dugun hizkuntzan. Geure eskubidea baita. Eduki gehienak gaztelaniaz daude. Ez da harritzekoa gure alabak bi hizkuntzak nahastea, kontuan izanda ikus-entzunezko materiala eta Galizian nagusi den hezkuntza-sistema. Edo, behinik behin, ez hitz egitea amak eta biok egiten diogun hizkuntza berean.

⁵ Erdi Aroan girotutako fantasia-telesaila, HBO kateak sortua eta zortzi denboralditan emana, 2011 eta 2019 artean.

Beste horrenbeste gertatzen da hamahiru urteko beste alabarekin. Ikus-entzunezko materialak kontsumitzen ditu; gutxi Logie Bairdek asmatutako aparailu konbentzionaletik, eta ia bat bera ere ez galegoz. Nire hamahiru urteko alabak apenas erabiltzen du galegoa. Eta, sinetsiez, ez da munduko gauzarik politena zure alabarekin beste hizkuntza batean mintzatzea. Ez da. Ez da polita norbaiti zenbat maite duzun esatea, gauza politak adieraztea, eta beste hizkuntza batean egitea.

Hori dela eta, iruditzen zait beharrezkoa litzatekeela estatuko eta Europako araudi bat izatea, telebistei eta plataformei eskatuz balia dezatela nazio, herrialde, erkidego edo dena delako bakoitzeko berezko hizkuntza. Eta ez dut errepikatuko nazio esan ordez baliatzen diren kontzeptu politikoen soka.

Baina ez dago halakorik, eta, ziurrenik, ez da izango hurrengo garaietan ere. Tamalez. Hori horrela, behin eta berriz esango dut hau: telebista autonomikoen esku dago berezko hizkuntzen babesa.

Telebista horiek, gure hizkuntzak normalizatzen eta normatibizatzen laguntzeaz gainera, gertutasuna ere ematen diote ikus-entzuleari. Gertuko egiten zaizkigun albisteak eta edukiak emanez, beren hizkuntzan eta kulturaren trebatzen dituzte ikus-entzuleak. Eta jakiten dute inguruan zer gertatzen den.

Horrenbestez, baliagarriak izan behar dute herritarren esku ipintzeko erkidego bakoitzaren ikus-entzunezko ondarea, beren web-atarien bidez. Funtsezko lana da hori, ikusteko zer-nolakoak ginen edo are zer-nola mintzo ginen orain hainbat urte.

Lagunariak dira, halaber, ikus-entzunezkoen sektorean kalitatezko enpleguak sortzeko, oso beharrezkoak baitira.

Gainera, telebista merkeak dira. Espainiako estatuko telebista-kate autonomikoak merkeagoak dira Europar Batasunak eskualde-telebista deitzen dituen kateen batezbestekoa baino. Galiziako telebista biztanleko 30 euro inguru kostatzen da, eta zenbateko horren bueltan dabilta estatuko telebista publiko guztiak.

Diru asko iruditzen zaizue? Bada, nik petralduko zaituztet orain, hainbat datu emanda.

Duela urte batzuk, Googlen egindako bilaketa batean, honako datu hauek agertu zitzaizkidan –eta ni ez naiz aditua ekonomian eta halakoetan–:

Espainiako estatuak 140 milioi euro ematen dizkie laguntzatan automobilgintza-enpresei. Eta beste horrenbeste autonomia-erkidegoek. Baina, kontuz! Laguntza horiek mailarik handieneko autoentzat ere badira, garestienentzat. Aberatsenek ere eskura dituzte laguntza horiek. Nik ez daukat autorik. Eta laguntza horiek ez didate graziaren izpirik egiten.

Gure autopistak enpresa pribatuek kudeatzen dituzte.

Eta onena kontatuko dizuet, bazter guztiak sutan ipintzen dituen kontu bat. Badira urte batzuk datuok kontsultatu nituela: Bankuak erreskatatzeko. Zenbat diru gastatzen dugu familiak berriketa gutxirekin etxegabetzen dituzten erakunde horiekin? 51.000 milioi euro. 1.214 euro herritar bakoitzak orain hainbat urte. Eta zenbateko hori nabarmen igo da. Oso erakunde maitekorak baitira bankuak herritarrekin.

Laguntzak ditugu arrantzarako, nekazaritzarako, enpresak sortzeko, enplegua sortzeko; ondo ikusten ditut horiek guztiak. Ederki iruditzen zait. Baina denerako daude laguntzak, dirulaguntzak.

Horrenbestez, gizartearen zati batek esaten duenean telebista autonomikoak garestiak direla, bota zenbateko horiek guztiak. Eta ia beti telebista pribatuen *lobby* batetik etorriak dira kontu horiek. Telebista publikoak itxi nahi baitituzte, enbarazu egiten baitiete. Lehiakide gisa ikusten dituzte, eta uste dute hala diru gehiago eskuratuko dutela publizitatearekin. Sekulako hutsa: enpresek ez dute publizitatetan gehiago inbertituko kate jakin batean beste batzuetan inbertitzeari utzi diotelako.

Nik mundu zabaleko serieak ikusten ditut. Gure serieak saldu behar ditugu, ez baitira plataformetan topa ditzakegun beste serie asko baino kaskarragoak. Netflixen, gaur egun bada serie bat galegoz: *O sabor das Margaridas*⁶. Mundu zabaletik iritsi dira zorion-mezuak. Mundu osoko argitalpen espezializatuek hitz egiten dute serie horretaz, gorai patuz. Galizian, mundu osoan saldu diren telesailak egin dira. Portugalko telebistarekin ere egin ziren koprodukzioak. Eta hortxe dugu *Merlí*⁷ telesaila ere, Televisió de Catalunyaarena, bai baitakigu gure lana ondo egiten. Denbora luzea daramagu telesailak egiten, eta arrakastaz, gainera.

⁶ Galiziako telesail dramatiko bat, TVGn estreinatua 2018ko urriaren 3an.

⁷ Katalanez ekoiztako telesaila, TV3 kateak emana 2015 eta 2018 bitartean.

Zer gertatzen da? Bada, aurrekontu txikiagoa dugula Estatu Batuetako edo Erresuma Batuko telesailak baino.

Aprobetxatu egin beharko genituzke plataforma batzuk eta besteak, gure telesailak bil ditzaten, gure telebista-produktuak, gure hizkuntzan eta jatorrizko bertsoan.

Erakundeen babesak izan beharko genuke, hala izan dadin.

Eduki ugari sortu behar dugu gure hizkuntzan plataforma horietarako. Eta eduki onak izango dira. Bai baitakigu gure lana ondo egiten.

Espainiako estatuari eta Europar Batasunari eskatu behar diegu zaindu ditzatela gure hizkuntzak. Eta, horretarako, telebista funtsezko erreminta dugu. Hizkuntzak zaindu egin behar baitira. Hizkuntza bat galtzen duen hiztun bakoitza galera bat baita gizateriarentzat.

Izan ere, Castelao edo Galiziako aberriaren aita parafraseatuz, eman dezagun Gloriako Atea galtzen dela, katedral erromaniko guztiak erortzen direla, edo desagertu egiten direla Beethovenen sinfonia guztiak, Miles Davisen musika edo The Clashen disko guztiak. Bada, hizkuntza bat galtzea are galera larriagoa da kulturarako, gizateriarentzat.

Ikus-entzunezkoak funtsezkoak dira gure hizkuntzak babesteko. Hizkuntzak guztion ondare baitira, baita hizkuntza hori ez dakien horrena ere. Baita nazio edo herrialde batekoa ez denarena ere, edo eskualde deitzen dionarena. Pertsona horien ondare ere bada, nahiz eta haiek jakin ez.

Oso gogorak gara telebista publikoekin. Izugarri eskatzen diegu. Ziurrenik ondo egingo dugu. Eta hori ez da gertatzen Espainiako estatuan bakarrik. Bazter guztietako kontua da. Baita BBCn ere, haiek ematen baititugu adibide moduan.

Britainia Handiko herritarren parte bat protestan ari da, BBC ez delako oso plurala, edo pluralegia delako, sentsibilitate gehiegitxori ematen dielako hitza. Baita ideia arrazistak edo xenofoboak defendatzen dituzten alderdiei ere.

Gogoratu dezagun, baina, BBCK bazuela *broadcast ban* izeneko murrizpen bat 1990eko hamarkadara arte, zeinaren arabera debekaturik baitzegoen Sinn Féin alderdiko ordezkarien ahotsa entzutea. Esate baterako, Gerry Adams ikusten zen, baina ahots bikoiztuak baliatzen ziren haren adierazpenak jasotzeko.

Hau da, telebista publikoek, zaharrenak berak eta eredugarri izanik ere, badute arazorik, eta sortzen dute ika-mikarik.

Onera eskatu behar diegu gure telebista publikoei. Kritiko izan behar dugu, baina maitekor jokatu behar dugu aldi berean. Zaindu egin behar ditugu. Izan ere, egia esan, ez dago askatasun gehiago telebista pribatuetan. Nahiz eta asko hitz egin telebista publikoko presioez, ez daukate batere zerikusirik telebista pribatu deitzen diegun horietako presioekin.

Funtsezkoa delako Espainiako estatuko Gobernuaren edo Europar Batasunaren babes handiagoa jasotzea, gure hizkuntzek ez dezaten jarraitu hiztunak galtzen. Guztiontzako baita kaltegarria, baita hizkuntza horiek ez dakizkitenentzat ere. Baita arrazoi politikoak direla medio mespretxatzen dituztenentzat ere. Eta, horretarako, ezinbestekoak dira telebista publikoak.

Ezin ditugu une oro zapuztu eta kritikatu telebista publikoak. Inoiz ez baitute beren izen ona berreskuratuko. Horrekin gizarteko alderdi atzerakoiari laguntzen baitiogu.

Eta eskatu behar dugu, era berean, plataformek babes ditzatela gure hizkuntzak. Aukera bat dira, erronka handi bat, eta plataforma horiek aberastu egingo dira gure ekoizpenekin. Izan ere, berriz diot, oso ondo dakigu gure lana egiten. Eta merke egiten dugu.

Baina funtsezkoa da gure telebista publikoak maitatzea eta zaintzea. Telebista publikoekin, hezkuntzarekin, osasunarekin, kulturarekin eta abarrekin jokutzen dugun bezala aritu behar dugu... Estatu-itun bat lortu behar dugu. Bai, politika egin behar da haiekin, jakina. Eta ederra izango da. Baina guztion artean zaindu eta errespetatu behar ditugu. Laguntza behar baitut, gure alabak *o pai e a súa nai* mintzo diren hizkuntza berean mintzo daitezen.

Plataforma digitalak, edukien ekoizpena, hizkuntza-aniztasuna. Legeak egin behar dira. Zer lege ordea?

Jon K. Artatxo Aurtenetxe

Eztabaidagaiarekiko hurbilketa, ekoizle independentearen ikuspegitik

Erronka bat da hizkuntza gutxituak erabiltzen dituzten ikus-entzunezko edukiak izatea (telesailak, dokumentalak, formatu berriak eta abar) *over the top* (OTT) eskaerapeko banaketa-plataformetako katalogoetan; ez da etorkizuneko erronka soilik, egungoa ere bada.

Gai korapilatsu horretara hurbilketa bat egiteko, beharrezkoa da hainbat ebidentzia jasotzea, azterketa sakonago baten abiapuntu gisa. Hasteko, gainbegiratu bat emanez gero OTT plataforma nagusiei (Netflix, Amazon Prime Video, HBO, Sky, Rakuten Tv), argi ikus daiteke hizkuntza gutxituetan –bereziki, euskaraz– ekoiztako ikus-entzunezko edukiak oso noizbehinka agertzen direla, kasu bereziren batean izan ezik (Filmin), zeinak arau orokorra berretsi besterik ez baitu egiten.

Bigarrenez, eztabaida honetan hainbat alderdi kontuan hartu behar badira ere (kultura-aniztasuna, hizkuntza-aniztasuna eta abar), merkatuaren logika nagusitzen da egungo errealitatean. Horri dagokionez, ez dugu alde batera utzi behar edukiak banatzen dituzten plataforma digitalak bihurtu direla, egun, merkatuan eta erabakietan agintzeko boteredun, nahiz eta haiek ez izan balio-katean funtzio nagusia bete beharko luketenak. Hainbesteko botere ukazina lortu dute, ezen "kultura-sektorea plataformatan antolatzearen" fenomenoak sortu baita.

Eta, azkenik, hirugarren ebidentzia bat dago. OTT plataformen nagusitasuna sakon aztertu behar da Lehia Zuzenbidearen ikuspuntutik, bai *player* berrientzat merkatuan sartzeko oztopo izatera hel daitezkeen lizentzia-hitzarmenei dagokionez, bai ikus-entzunezko produktuen katalogo nagusien eskubideen jabeekin egiten dituzten kontzentrazio-jarduerari dagokionez, horren ondorioz plataformak "edukien zaindari" bihurtu baitira.

Premisa horiek kontuan hartuta, ondorio batera iritsi gara. Edukiak linean banatzeko plataforma gutxi izateak arriskuan jartzen du kultura- eta hizkuntza-aniztasuna. Obra bakoitzaren errentagarritasunaren arabera irizpideek gidatzen dituzte OTT plataforma horiek, eta, horregatik, hizkuntza gutxituetan sortutako ikus-entzunezko produktuak (JBA nahiz bikoiztuak) obra marjinalak dira, katalogoan duten presentziari, eskuragarritasunari edo sustapenari dagokionez.

"Kultura-sektorea plataformatan antolatzearen" fenomenoaren aurrean, **lehentasunezkoa da OTT plataformaren digitalen jardueraren erregulazioa eta** zehatzago, edukien eskaintza erregulazioa. Guztiz ados nago HOELCK eta RAVAINOSON¹-ek gai honi buruz duten iritziarekin: *"Plataformen borondatea ezin denez bermatu, erregulazioak plataformekiko hartzen duten jarrera erabakigarria izango da kultura-sektorearentzat. Legegileek diseinatzen dituzten legeak ez dute*

¹ HOELCK eta RAVAINOSON. "¿Mehatxua edo aukera? Kultura-aniztasuna EBn, plataforma digitalen garaian". *Mapping the Creative Value Chains. A study on the economy of culture in the digital age. Europako Batzardea, Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia.*

soilik kultura-sektore berritzaile eta ekonomikoki jasagarria sortu behar; aniztasuna, tokiko eta estatuetako ondarea eta antzeko balioak ere sortu behar dituzte".

Labur esanda, legeak sortu behar dira; erronka: zer lege sortu behar diren erabakitzea.

Bost hausnarketa over the top (OTT) plataformak eta hizkuntza gutxituetan egindako edukien eskaintza erregulatze oinarriari buruz

Ikus-entzunezko Komunikaziorako Zerbitzuen Direktiba aldatzen duen 2018/1808 Direktibak ² 13.1 artikuluan ezartzen du bere jurisdikzioaren barruan dauden eta **ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak ematen dituzten erakundeak behartuta daudela haien katalogoaren % 30 Europako obrak osatua izatera:**

13.1 artikulua

1. Estatu kideen ardura izango da haien jurisdikzioaren barruan dauden ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaileek beren katalogoaren % 30 Europako obrak osatua izatera behartzera eta obra horien nabarmentasuna bermatzera.

Direktibaren 13. artikulua erredakzioa urriegia da ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaileen lege-betebeharraren mugei dagokionez, eta horrek, ezinbestean, hainbat hausnarketa dakartza berekin. Hemen azalduko ditugu, eztabaidari ekarpena egingo diotelakoan.

1. Direktibak ez du inolako neurri zehatzik aurreikusten hizkuntza gutxituetan egindako obrak babesteko edo sustatzeko. OTT plataformek 13.1 artikulua lege-betebeharra bere osotasunean bete dezakete hizkuntza menderatzaileetako batean (ingelese, frantsesez, alemanez edo gaztelaniaz) egindako obra europarrekin. Horrek agerian uzten du legegileek ez dutela inolako sentikortasunik hizkuntza gutxituak babesteari dagokionez, nahiz eta hizkuntza horiek izan, hain zuzen ere, babesik handiena behar dutenak.

² EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA BATZORDEAREN (EB) 2018/1808 DIREKTIBA, 2018ko azaroaren 14koa, 2010/13/EB Direktiba aldatzen duena, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari dagokionez, eta merkatuaren errealitateen bilakaera kontuan hartuta, estatu kideek dituzten xedapen jakin batzuk –legezkoak, erregelamenduzkoak eta administratiboak– koordinatzeari buruzkoa.

2. Obrak katalogo batean izateak ez du haien ikusgaitasuna bermatzen. 13.1 artikuluko testuan hitz oso generiko bat erabiltzen da, "nabarmentasuna", katalogo horietan Europako obrak behar dutena adierazteko. Horri dagokionez, Europako obra horien ikusgaitasunaren alde egiteko hainbat mekanismo aipatzen dira direktiba horren 35. artikuluan, nahiz eta, oraingoan ere, proposatzen dituen neurriak zehaztasun gutxiarekin azaltzen diren: «(35) Ikusleen eskaeraren mendeko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emailek Europako obrak ekoizpena eta banaketa sustatu behar dute, eta bermatu behar dute beren katalogoetan Europako obrak gutxieneko ehuneko bat izatea eta obra horiei behar besteko nabarmentasuna ematea. Ikus-entzunezko edukien metadatuak Europako obra gisa kalifikatzeko etiketak sustatu beharko lirateke, metadatu horiek komunikazio-zerbitzuen emaileen esku egon daitezkeen. Europako obra horiek nabarmentasuna izateak esan nahi du obrak sustatu egin behar direla zerbitzu horietara helarazteko aukera erraztuta. Nabarmentasun hori hainbat modutan bermatu daiteke; esaterako, Europako obrak biltzen dituen atal bat sor daiteke zerbitzuan –eta hasierako web-orritik atal horretara sartzeko aukera eman–, zerbitzuaren bilaketa-tresnan Europako obrak bilatzeko aukera txerta daiteke, zerbitzuaren kanpainetan Europako obrak erabili daitezke edo zerbitzuko katalogoan Europako obrak gutxieneko ehuneko bat sustatu daiteke, iragarkien edo antzeko tresnen bidez».

3. Katalogo-kuota bat izatera behartzeak eragin mugatua izango du, horrekin batera ez bada behartzen ikus-entzunezko obra independenteen ekoizpenen aurretiazko finantziazioan parte hartzea. Inbertsio-kuota hori sistemaren elementu gako bat da, eta oso modu orokorrean dago jasota 13.2 artikuluan. Direktiba ezartzen duten estatu-araudiek izango duten garapen-mailaren mende dago bide horren eraginkortasuna:

13.2 artikulua:

Estatu kideek beren jurisdikzioaren mende dauden komunikazio-zerbitzuen emailei Europako obrak ekoizpenei laguntza finantzarioa emateko eskatzen dieten bezalaxe –bereziki, edukietan inbertsio zuzenak eginez eta funts nazionalak ekarpenak eginez–, beste estatu kide batzuetan egoitza duten baina bertako audientziei zuzenduriko komunikazio-zerbitzuak ematen dituztenei ere eskatu ahal izango diete ekarpen horiek egiteko; ekarpenak proportzionatuak eta ez-baztertzailak izango dira.

Eduki-ekoizpenari aurretiazko ekarpena egiteko betebeharra definitzeko garaian, nabarmentzekoa da ekarpenak egiteko aukerak ez direla mugatzen

zerbitzu-emaileek ekoizleei egindako zuzeneko ekarpenari edo komunikazio-eskubideak erosi eta ikusleen esku jartzeari (azken hori da egungo Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrean jasotako sistema). Horietaz gain, beste aukera batzuk aurreikusten dira; adibidez, funts batera bideratutako tasak ezartzea, bere lurraldean eskaintzen diren eta hari zuzenduta dauden ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuek sortutako diru-sarreretan oinarrituta³.

4. Legeen bidez erregulatzea eta araudiak garatzea bezain garrantzitsua da araudi horien segimendua egitea eta betetzen direla egiaztatzea. Direktiba berrian, Agintari eta Erakunde Erregulatuak Independenten atalean (direktibaren 30. artikulua), aipatzen da erakunde horiek arduratuko direla araudia betetzen dela egiaztatzeaz, eta, bereziki, hizkuntza gutxituetan sortutako ikus-entzunezko obrak katalogoetan izatea sustatzeaz eta haiek aurretiaz finantzatzeaz. 2013ra arte, Espainia izan da ikus-entzunezkoen erakunde erregulatuak independenterik ez zuten Europar Batasuneko estatu bakarra; funtzio hori Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak⁴ hartu zuen bere gain. Ikus-entzunezkoen Euskadiko Kontseilua sortzea, beraz, ezinbesteko eskaera da euskara ikus-entzunezko edukien merkatuan ikusi nahi badugu, eta, bereziki, OTT banaketa-plataformetako katalogoetan euskara izatea sustatu nahi badugu.
5. Aipaturiko guztiak ondorio nagusi batera garamatza: *No production, no game*. Ezin dira hizkuntza gutxituetan sortutako edukiak eskaeraren mendeko plataforma digitaletako katalogoetan eduki eta haiek ikusgai izatea lortu ikus-entzunezko obrak euskaraz eta gainerako hizkuntza gutxituetan ekoizten ez badira. Faktoreen ordena alderantzikatu behar dugu. Edukien ekoizpenean eta haien finantziazioan jarri behar da arreta (direktibaren 13.2 artikulua), ez soilik katalogoaren gaineko kuotak finkatzean (direktibaren 13.1 artikulua).

³ Direktibaren 36. artikulua kontuan hartuta: "Europako obratan nahikoa inbertsio egiten dela bermatzeko, estatu kideek finantza-betebeharrak ezarri behar dizkiete beren lurraldean ezarrita dauden komunikazio-zerbitzuen emaileei. Betebeharrak horiek ekoizpenari egindako zuzeneko ekarpenen bidez eta Europako obraren eskubideak erositako bidera daitezke. Halaber, estatu kideek funts batera bideratutako tasak ezar ditzakete, beren lurraldean eskaintzen diren eta hari zuzenduta dauden ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuek sortutako diru-sarreretan oinarrituta. Direktiba honek zehazten duenez, eta kontuan hartuta estatu kide bakoitzean finantza-betebeharren eta kultura-politiken artean dagoen lotura zuzena, estatu kide bakoitzari baimena ematen zaio beste estatu kide batean finkatuta dauden baina bere herrialdera zuzendurik dauden komunikazio-zerbitzuen emaileei betebeharrak ezartzeko. Kasu horretan, zerbitzuaren hartzailea den estatu kideko audientziaren bidez sortutako diru-sarreraren gainean ezarri behar dira finantza-betebeharrak. Komunikazio-zerbitzuen emaileak haien zerbitzuen hartzaile diren estatu kideetako zinema-obren finantziazio-planei ekarpena egitera behartuta dauden kasuetan, komunikazio-zerbitzuen emaileentzat –eta dagozkien zinema-obren finantziazio-plänen espariaren barruan– ematen diren laguntzak jasotzeko aukera izan behar dute modu ez-baztertzailan eta estatu kide horretan kokatuta egon gabe".

⁴ Datu esanguratsua: Katalunian 2000. urtean eratu zuten erakunde erregulatuak independentea (Consell Audiovisual d’Catalunya).

Ez du ezertarako balio pizgarriak ezartzeak hizkuntza gutxituetan sortutako ikus-entzunezko obrak izateko VOD plataformetako katalogoetan, hizkuntza horietan inolako ekoizpenik ez badago.

Hori dela eta, kondizio ekonomikoak eta juridikoak bermatu behar dira hizkuntza gutxituetan ikus-entzunezkoen ekoizpen-eskema iraunkorra ezarri ahal izateko. Gai horri dagokionez, eta eztabaida irekia sustatzeko helburu soilarekin, garrantzi argia duten gertaera batzuk mahaigaineratu behar dira:

- Espainiako estatuak ez dio dirurik eman 2012az geroztik Zinemari buruzko 55/2007 Legean aurreikusitako Hizkuntza Koofizialen Funtzari. Funtz horren bidez, 10 milioi eurorainoko aurrekontua esleitzen zitzaion, urtero, hizkuntza gutxituetan egindako obraren ekoizpenari eta hedapenari.
- RTVE Korporazioak ez ditu betetzen Ikus-entzunezkoen Lege Orokorren 4.3 artikuluan aurreikusitako lege-betebeharrak. Artikuluan zehazten denez: "Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen operadoreek Estatuko hizkuntza ofizialen ezagutza eta hedakuntza eta haien adierazpen kulturalak sustatuko dituzte. Horri dagokionez, titulartasun publikoa duten operadoreek kultura-industria sustatzen lagunduko dute; bereziki, Estatuan dauden hizkuntza eta kulturei lotutako ikus-entzunezko lanak".
- Kultura Ministerioaren Zinematografia Babesteko Funtzari egindako ekarpenak zuzenean kudeatu behar dira, IBAIAK, ikus-entzunezkoen ekoizle burujabeen elkarrekin, aspalditik eskatzen duenez.
- Frogatu denez, ikus-entzunezkoen ekoizpenak aurretiaz finantzatzeko betebeharra aplikatzea (% 6) izan da euskaraz kalitateko zinema ekoizteko aukera emateko tresnarik eraginkorrena. Ehuneko hori aplikatzeko borrokatu ez balitz ez genituzke izango euskaraz sortutako pelikula arrakastatsuak: *Loreak*, *Errementari*, *Dantza*, *Lasa eta Zabala* edo *Handia*. Guztiak merkatu handiagotara heldu dira, eta hainbat nazioarteko sari jaso dituzte. Ikus-entzunezko edukien ekoizpen independentea babesteko mekanismo hori gizarteak berak babestu behar du, laguntza hori desagerrarazi edo ahalik eta txikiena izatea nahi duten *lobby*-ei aurre egiteko.

Ekintza-proposamenak: *over the top* eskaeraren mendeko ikus-entzunezkoen banaketa-plataformen katalogoetan hizkuntza gutxituetan sortutako ikus-entzunezko obrak izatea sustatzen duten neurrien dekalogo

Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Direktibak ezartzen duenez, 2020ko irailaren 19a da Estatu kide bakoitzak aldaketa egiteko azken eguna. Ezartzeko hilabete gutxi falta direnean, zerbitzu-emaileek argi erakutsi dute zehaztasun gutxi nahi dutela direktibaren 13. artikuluan eta ahalik eta betebeharrak gutxien nahi dituztela edukien inguruan.

Bestalde, direktiba ezartzeak berekin ekarri beharko lituzke segidan aipatuko diren neurriak; dekalogo moduan aipatzen dira, eztabaida sustatzeko helburuarekin:

1. Direktiba ezartzeko prozesuan hizkuntza-kuota bat sortzea, OTT plataformetan hizkuntza gutxituetan sortutako ikus-entzunezko obrak daudela bermatzeko.
2. Hizkuntza gutxituetan egindako ikus-entzunezko obrak sustatzeko eta ikusarazteko klausula txertatzea.
3. Aurreiazko finantziarioan (% 6) inbertitzeko betebeharrak finkatzea eta formatu eta banaketa-plataforma berrietara egokitzea.
4. Zinemarentzako zerga-pizgarrien foru-arauak bateratzea, euskaraz egindako pelikula eta telesailak aplikatutako % 40ko kenkarian oinarrituta.
5. Zinemaren Legean dagoeneko aurreikusitako Hizkuntza Koofizialen Funtseko hornitzea –2012az geroztik aurrekontuetatik kanpo utzi dute–.
6. Zerbitzu-emaileen eta, bereziki, RTVE Korporazioaren betebeharrak dagokienez, ikus-entzunezkoen Lege Orokorra betetzea; hau da, gaztelania ez diren hizkuntza koofizialean sortutako ikus-entzunezko obrak ekoizpenean inbertitzea.
7. ICAAren Zinema Sustatzeko Funtseko egindako ekarpena Eusko Jaurlaritzari transferitzea eta hark zuzenean kudeatzea.

8. Galizia, Katalunia eta Euskadiko telebista publikoen artean estrategia bateratu bat garatzea, hizkuntza gutxituetan telesailak, pelikulak eta bestelako ikus-entzunezko obrak koproduzitzeko.
9. Ikus-entzunezkoen Euskal Kontseilua sortzea, ikus-entzunezkoen gaietan erregulatzaile eta gainbegiratzaile izateko.
10. Gizartean sozializazio eta dinamizazio-ekintzak egitea, euskaraz eta beste hizkuntza gutxituetan sortutako obrak Netflix, Amazon eta gainerako OTT plataformetan izateak duen garrantziaz jabetzeko, eta Europako nahiz Estatuak hainbat erakundetako agenda politikoetan eztabaida hori txerta dadin sustatzea.

Hedabideek gizarte modernoan duten garrantzia dela eta, are garrantzitsuagoa da kultura- eta hizkuntza-aniztasuna babestea. Big Dataren, algoritmo pertsonalizatuaren eta magnitude ekonomiko handien mantra berriek guztia irensten duten garaian, erregulatzailearen ardura da gizarte demokratiko eta moderno batean ezinbestekoak diren balio horiek zaintzea. Negozio-eredu berriak garatzeko erabiltzen diren berrikuntza disruptiboak eta teknologiaren aprobetxamendua bateragarriak izan behar dira kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren eta pluraltasunaren printzipioekin, eta oreka hori gauzatzea da legegilearen erronka nagusia.

Ekosistema audiobisualaren digitalizazioa eta eraldatzea

Mendeko hizkuntza eta kulturen mehatxu eta aukerak: Broadcastetik eta LTDtik Broadbandera eta 5Gra

Enric Marín i Otto

Sarrera

Diktadura frankistatik ateratzeko bidean, duela berrogei urte, deszentralizazio autonomiko bat definitu zen, zeinak kultura-, komunikazio- eta hizkuntza-politikak diseinatzeko gaitu baitzituen, besteak beste, Kataluniako eta EAeko autogobernuak, bi errealitate nazional horien adierazpen linguistiko eta kulturalak "normalizatzeke".

Lehenengo 20 urteetan, emaitza oro har positiboak –baina gorabeheratsuak– eman zituen eskumen-esparru autonomikoak. Baina milurteko batetik bestera igarotzearekin eta José María Aznarren politikak hedatzearekin batera, joera-aldaketa bat hasi zen. Hasieran, aldaketak ia ez ziren hautematen. Baina, urteak igaro ahala, dinamika negatiboak gero eta gehiago hautematen dira. Komunikazio- eta hizkuntza-politikak definitzeko marjina estutu egin da, eta euskararen eta katalanaren erabilera sozialaren hedapena gelditu egin da eta atzera ere egin du.

Joera-aldaketa hori eta lehenengo egoerara itzultzeko dauden aukerak ulertzeko, kontuan izan behar dugu bost faktore edo dinamika daudela:


- 1. Iraultza digitalaren etorrera:** komunikazioen alorreko metamorfosi teknologikoa, zeinak erabateko paradigma-aldaketa bat eragin baitu ondasun sinbolikoen ekoizpen-, banaketa- eta jabetze-prozesu guztietan.
- 2. Informazioaren gizartearen etorrerak** (iraultza digitalak bultzatu zuen) eragindako aldaketa kulturalen markoan, eduki audiobisualen ekoizpenean eta zabalkundearen **eragile globalak agertu izana**; besteak beste, Google, Facebook, Amazon eta Netflix.
- 3. Horren osagarri, ikus-entzunezko produktuak kontsumitzeko ohiturak aldatu izana**, ikusleria gero eta gutxiago dagoelako operadore tradizionalak ezarritako eskaintzen mende.
- 4. Europako politikak.** Bereziki, Merkatu Digital Bakarra (MDB) definituz joatea eta 5Gri lotutako teknologia hedatzeko eskema bat definitzea.
- 5. Espainiako arautze-markoa.** Testuinguru horretan, estatuko telekomunikazioen araudiaren arkitekturak eta irrati-frekuntzien espektroaren kudeaketak gero eta defentsa gutxiagorekin uzten dituzte autogobernu-erakunde subestatalak eta EAeko eta Kataluniako autogobernu autonomikoak.

Zer eragin konbinatu ditu bost faktore horien interakzioak? Funtsean, bi eragin ditu:

- Alderdi orokorrean, korporazio global handiek tokiko botere publikoen aldean duten gero eta gailentasun handiagoa. Eta, horren osagarri, logika enpresarial eta teknologikoak kohesio eta inklusio sozialaren eta hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren printzipioen aldean duen lehentasuna.

- Espainiako estatuaren "barruko" testuinguruan, ikusten da gaztelaniaren nagusitasun-posizioa indartu egin dela katalanaren, euskararen, galegoaren eta beste hizkuntza batzuen kaltetan. Itxuraz, "ekaitz perfektu" bat dugu. Hizkuntzaren, komunikazioaren eta kulturaren inguruko politika publikoak ordenatzen dituzten lehentasunak ez badira errotik eguneratzen, bistakoa da pixkanaka minorizatzeko arriskua dagoela.

Egoera konplexua da benetan, sinplifikatzeko aukera gutxikoa; bai aldagaien azterketari dagokionez, bai diagnostikoari eta proposamenei dagokienez. Zehazki Kataluniako errealitatea kontuan hartuta, jarraian agertzen den koadroan,¹ ikus-entzunezkoen sektorearen (Espainia, Europa eta testuinguru orokorra) diagnostiko bat egiteko lagungarriak diren aldagai batzuk erlazionatzen dira:



¹ Llibre Blanc de l'audiovisual de Catalunya i hartutako koadroa. <http://interaccio.diba.cat/sites/interaccio.diba.cat/files/llibreblancaudiovisual.pdf>. Consell de l'Audiovisual de Catalunya editatua 2017ko urtarrilean. Kataluniako ikus-entzunezkoen sektorearen egoerari buruzko diagnostiko zehatz eta dokumentatua da. Komunikazio honetan, diagnostiko horretatik jasotako informazio eta planteamendu ugari erabili da.

Testu honetan, adierazitako bost faktoreen eragin gurutzatua aztertzen saiatuko gara, eta, halaber, ondorio batzuk zehazten eta alor horretako politika publikoak eguneratzeko proposamenak ematen.

1. Komunikazioen alorreko metamorfosi teknologikoa

90eko hamarkadan Internet sortu zenean, paradigma-aldaketa bat hasi zen mota guztietako ondasun sinbolikoen ekoizpen-, zirkulazio- eta jabetze-prozesuetan. 80ko hamarkadaren amaieran, aurreikusteko moduko aldaketa-boladen logika batean sartuta geundela zirudien. Baina ez zen hala izan. Ordena geopolitiko zahar baten amaieraren sinboloa baino zerbait gehiago izan zen Berlingo harrisia erortzea. Garai-aldaketa bat hasia zela adierazten zuten seinale ugari izan ziren joan den mendearen azken hamarkadan. Manuel Castells gizarte-teorikoak modu oso eta sistematikoago batean ulertu zituen gertatzen ari ziren aldaketen irismena eta erradikaltasuna "La era de la información"² trilogian. Castellsen trilogia argitaratu zenetik hogei urte baino gehiago igaro dira, eta, urte horietan, gertatzen ari diren aldaketa sozialen dimentsio orain arte ezezaguna agerian uzten duen informazio ugari izan da. Bizitza sozialaren alderdi guztiei eragiten die mutazioak. Eta modu erabateko eta sakonean eragiten die gainera. Giza esperientzien arteko bitartekaritza komunikatiboko espazio guztiak eraldatu izanak eta kontzientzia-forma partikularretan bilakatzeak denboraren bizi-esperientzia eta espazio fisiko eta sozialaren pertzepzioa ere aldatzen ditu. Denbora eta espazioa: hain zuzen, identitate indibidual eta kolektiboak definitu eta eraikitze prozesuetako erreferentziak bi ardatzak.

Logika sozial berri horretan, identitate homogeen, uniforme eta dimentsiobakarrak gero eta ezohikoagoak dira. Baina mota guztietako ondasun ukigarri eta sinbolikoen ekoizpenaren, zirkulazioaren eta jabetzearen logika aldatzen ari da komunikazioen iraultza. Hain zuzen, testuinguru horretan ulertu behar da gizarte-bitartekaritza mota gehienek krisia, hasi kazetaritza, hezkuntzatik eta kudeaketa finantzariotik eta ordezkari politiko eredu tradizionala. Aldaketa soziala bizkorra da oso. Biztanle nagusienek eta haur eta gazteek entretenimenduko edukietara sartzeko erabiltzen dituzten gailuak erabili eta kontsumitzeko moduen arteko

² Manuel Castells. Castells, M. (1996). *The Rise of the Network Society, The Information Age: Economy, Society and Culture, I*. liburukia. Cambridge, Massachusetts; Oxford, UK: Blackwell. (1997). *The Power of Identity, The Information Age: Economy, Society and Culture, II*. liburukia. Cambridge, Massachusetts; Oxford, UK: Blackwell. (1998). *End of Millenium. The Information Age: Economy, Society and Culture, III*. liburukia. Cambridge, Massachusetts; Oxford, UK: Blackwell.

aldea da, seguruenik, gertatzen ari diren aldaketen abiaduraren eguneroko bizimoduko ebidentziarik bistakoena. Aldaketa horiek eragin zuzena dute XIX. eta XX. mendeetako erreferentziako instituzio politiko nagusian, hots, nazio-estatuan. Identitateak sortu eta proposatzeko ahalmen handieneko tresna instituzionala izan da gaurdaino. Baina kapitalismoa mundializatzearen egungo faseak planteatzen dituen erronkak oso bestelakoak dira duela 50 edo 100 urteko munduko egoerak planteatzen zituenen aldean. Eta nazio-estatua, modalitate guztietan, gainezka egiten ari da:

Nazio-estatuak, politikaren kudeaketa territorializatuaren logikatik, jada ezin ditu inpermeabilizatu herrialdeetako ekonomia eta kultura. Ekonomia eta kultura mugitu egiten dira, eta iragazki guztiak zeharkatzen dituzte; politika, aldiz, ezarritako nazio-estatuetatik, haiek kontrolatu eta mantentzen saiatzen da, hegemoniaren gako gisa. Horregatik erreakzionatzen du modu defentsiboan. Oldarkortasunez ere bai, identifikatutako mehatxuaren arabera. Lehiatzeko gai diren bestelako mendekotasun- eta menderatze-mekanismo batzuekin batera existitzen da nazio-estatua. Azken finean, aldaketa-ziklo horrek, zeina jarraitua izan baita berrikuntza teknologikoetarako gaitasun etengabearen ondorioz, eragin zuzena izan du ekonomia globalean eta haren funtzionamenduereduetan. Metatze-prozesu batzuk erraztu ditu, eta, oro har, desparekotasunak areagotu ditu. Ekonomiaren eragile, erakunde eta konglomeratu nagusiek bere neurrira eta esanetara eta bere logika gordinenaren arabera egindako globalizazio-prozesuaren aurrean izan duten bizitasuna eta erreakzionatzeko gaitasuna bat dator eta kontrajarri egiten da ia nazio-estatu guztiek eta botere politikoaren erakundeek izandako babes-jarrerarekin. Hala, atzera egiteko lubaki protekzionista edo espazio sinboliko bilakatzen dira nazio-estatu horiek; eta espazio sinboliko horietan, antzinako segurtasunak (errealak, idealizatuak edo irudikatuak) samintasunez oroitzea eta tokiko elite zaharren gailentasuna betikotzeko obsesioa erregairik onena dira mota guztietako populismo autoritario eta xenofoboak pizteko³.

Nazio-estatuak presio bikoitz bat jasaten du: dinamika globalizatzaileek eragiten dutena eta tokikoaren emergentziak eragiten duena. Bidegurutze horretan, estatuko nazionalismoaren inertziak berrestera darama, eta, hala, eragile ahulenak (botere-zentro subestatalak) ukatu eta itotzen saiatzera. Eta Espainiako estatuan ere hala izan da.

³ Marín, E. eta Tresserras, J.M. (2019). *Obertura republicana. Catalunya després del nacionalisme*. Editorial Pòrtic, 122-123 or.

Baina itzul gaitetzen komunikazio-ekosistemetak aldaketetara. Komunikazioaren sektoreaz ari bagara espezifikoki, jarraian zehazten diren kontzeptu eta prozesu hauetan sortzen ari diren logikak identifikatuko ditugu:

- **Komunikazio-ekosistemen globalizazioa.** Globalizazio horrek berekin dakar estatu-markoek partzialki gainezka egitea ondasun sinbolikoen zirkulazio-prozesuetako erreferentziako marko nagusi gisa. Hala, Internet kontzeptua, komunikazio-ekosistemaren jarduteko modu berria ezagun egin zuena eta hura identifikatzeko erabiltzen duguna, bi termino hauek elkartuz sortu zen: internazionala (*inter*) eta sarea (*net*). Bigarren terminoak bigarren ezaugarria deskribatzen du.
- **Sareko funtzionamendua.** Masa-komunikazioak ahalbidetu zituzten komunikabide analogiko tradizionalen norabide bakarreko logika (*Broadcast*) gainditzearen adierazgarri dira komunikazio-teknologia interaktiboak. Prentsatik eta publizitatetik zinemara, irrati eta telebistara.
- **Mota guztietako edukien integrazioa eta ikus-entzunezko edukien hegemonia.** Mota guztietako informazioa (alfanumerikoa, ikus-entzunezkoa...) informatizazioaren zenbakizko kodeetara itzulita modu agregatuan kudea daitezke eduki guztiak. Eta hori abantaila bat da ikus-entzunezko eduki kulturalerako. Halaber, baliabide analogiko tradizionalen banaketa zurruna gainditzeko aukera ematen du. Alde batetik, edukien konbergentziaren logika berrira egokitu behar dute industria kulturalak. Beste alde batetik, "komunikazio-dieta" modu potentzialki pertsonalizatu batean defini dezakete ikusleek.
- **Konpresioa, seinalearen fidagarritasuna eta eduki-eskaintzaren biderketa.** Azaldu berri dugun informazioaren digitalizazioarekin, halaber, esponentzialki areagotu daiteke igortzen den informazioaren emaria, kalitatea eta fidagarritasuna. Hala, eskaintzaren gaitasun efektiboa areagotzen da kantitateari eta dibertsitateari dagokienez, eta ikus-entzunezko edukiak ia mugarik gabe eskura daitezke.
- **Hartzearen asinkronia eta nonahikotasuna.** Azaldutako prozesuak batera gertatzeak apurtu egiten du transmisio-modu analogikoetan oinarritutako masa-komunikazioaren hartze sinkronikoaren logika. Baita LTDaren edo lineako lurreko telebista digitalaren hartzeak ere. Hartzeak gero eta mendekotasun gutxiago du emankizunak programatzen dituzten operadoreen emankizun-zerrendekin. Eduki gehienak eskuragarri daude une oro eta toki guztietan. Fenomeno horrek

ATAWAD izena du, hots, *any time, anywhere, any device* ingelesezko akronimoa. Tabletek eta, batez ere, *smartphone*ek erakusten dute modu grafikoenean errealtate hori; une honetan, komunikazio-paisaia berriko gailu nagusiak dira.

Baina azaldutako prozesuen inplikazio sozialak biderkatu egingo dira, gutxi barru, belaunaldi berriko banda zabaleko sare mugikorra heltzen denean, hots, **5G**.

2. 5G zabaltzea eta ikus-entzunezkoen industria

5Gk baldintzatuko ditu datozen hamar urteetako komunikazio elektronikoak. Izan ere, Manuel Castellsek "masa-autokomunikazioa" izena eman dien prozesuen azelerazio bizi bat bultzatu eta erraztuko du⁴. Bai, hala da. Baina hori bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa izango da sareko haririk gabeko telekomunikazioetan oinarritutako aplikazio sozial eta industrialen hedapena. Eragin kultural eta ekonomikoa berebizikoa izango da.

3G eta 4Gren aldean, 5Gk hiru ezaugarri bereizgarri nagusi ditu:

- 1. Hobekuntzak banda zabal mugikorrean** (eMBB: *enhanced Mobile Broadband*). Banda zabal mugikorrek bideratzen duen informazio-emia esponentzialki areagotzen da. Ahalmen handiko banda zabalaren monopolioa galtzen du zuntz optikoak, sare mugikorraren mesedetan.
- 2. Fidagarritasun handia eta sortasun baxua** (URLLC: *ultra reliable low latency communications*). Fidagarritasun ia perfektuari eta erantzun ia berehalakoari esker, doitasun handiko aplikazioak gauzatu daitezke; hasi ibilgailuak modu automatizatuan gidatzetik eta ebakuntza kirurgiko telematikoetara.
- 3. Makinen arteko komunikazio masiboen sarea** (MMTC: *massive machine type communications*), zeina gauzen adimenaren edo adimen artifizialaren (AA) oinarrian baitago. Lehenengo bi ezaugarrien ondorio logikoa da, eta ikuspuntu industrial batetik eta eguneroko bizimoduko antolakuntzaren aldaketen ikuspuntutik, eragin potentzial ikaragarria du.

⁴ Castells, M. (2009). *Communication power*. Oxford/New York, Oxford University Press.

5G sareak gaitzeko aukera ematen duten ahalmenaren, fidagarritasunaren eta konektagarritasunaren inguruko prestazio horiek aplikazio berriak bultzatuko dituzte telebistako produkzioan eskakizunen arabera, hala nola errealtate birtualeko (EB) esperientziak eta errealtate areagotuko (EA) esperientziak⁵. Halaber, esan bezala, gidari gabeko ibilgailuak, urruneko segimendu medikoak, robotizazio-zerbitzu aurreratuak eta automatizazio industrialekoak, etab. egingo dira. Carmina Crusafon irakasleak dioenez, "*eraldatze teknologiko horren erdigunean, espektroaren kudeaketa da politika digitalen elementu nagusia, eta, hala, baliabide estrategiko bat da edozein herrialderentzat. Hura ondo joatearen mende egongo da ekonomia digitalen aurrerapena. Ikus-entzunezkoen industrian ere eragin esanguratsu bat izango du 5Gk, teknologiar dagokionez ez ezik, balio-kate osoan ere bai*"⁶.

5Gri lotutako teknologiaren zabaltzeak markatuko du datorren hamarkada Europar Batasunean. Europako agintariek badakite Estatu Batuek eta Txinak 5G definitzeko lidergo teknologikoan duten borrokan Txinak duela abantaila teknologikoa. Eta, ziurrenik, Europako gizarteak esperientziazko zelai ezin hobeak dira belaunaldi berriko sare mugikorra ezartzeko. Ebk 3Grekin eta 4Grekin galdu zuen abantaila berreskuratzea da helburua. Horregatik eman zaio lehentasuna 5G hedatzeko planifikazioari. Finkatutako aurreikuspenen arabera, ezarpen-prozesuaren inflexio-puntua 2025ean dago. Datozen bost urteak erabakigarriak dira.

Gero sakonago azalduko dugunez, belaunaldi berriko sare mugikorra aurrera ateratzeko, beharrezkoa da irrati-frekuntzien espektroaren kudeaketa birdefinitu eta birdoitzea. Horregatik, irrati-frekuntzien espektroaren kudeaketa da politika digitalen elementu nagusia. Beraz, hemendik aurrera, irrati-frekuntzien espektroaren kontrolik gabe jada ezingo dira definitu politika linguistikoa eta kulturalak osoki eta modu autonomoan. Horrek, jakina, zuzeneko eragina du Kataluniako eta EAeko autogobernuek kulturaren eta komunikazioaren alorreko politika publikoak eguneratzeko zeregin gero eta premiazoagoa gauzatzeko duten ahalmen errealean.

Gaiaren garrantzia ondo ulertzeko, lagungarria da ekonomia audiobisual berriaren joera garrantzitsuenetarikoa batzuk identifikatzea; haietako bat da edukien produkzioko eta hedapeneko eragile global berrien goraldi sendoa.

⁵ Oro har, gailuen bidez eta gailuek erantsitako informazio grafikoaren bidez mundu errealearen zati bat irudikatzen duten teknologien multzoari esaten zaio errealtate areagotuko. Gailuek informazio birtuala gehitzen diete lehendik dagoen informazio fisikoari, eta errealtate areagotuko bat sortzen da denbora errealean.

⁶ Crusafón, C. (2018). *La industria audiovisual ante el despliegue del 5G: el caso de la Unión Europea*. Fonseca, *Journal of Communication*, 17, zk., 11-22 or. Hemen berreskuratua: <https://doi.org/10.14201/jfc2018171122>, 12. or.

3. Ekonomia audiobisual berria

Europako egoerari lehenasuna emanez eta balio erantsi gordinari dagokionez, ikusten dugu ikus-entzunezko jarduerak bilakaera desberdina izan duela estatuen artean. Oro har, Mediterraneoko eta ekialdeko herrialdeek dute jarrera makalena. Bilakaera desberdin hori negozio-eredu berriak eratzen ari diren testuinguru batean ari da gertatzen. Identifikatutako joera esanguratsuenetako batzuk puntu hauetan laburbiltzen dira:

- Nazioz gaindiko produkzio-enpresek **gero eta gehiago sendotzen dituzte integrazio horizontaleko prozesuak**. Integrazio-dinamika horiek indartzeak talde audiobisualetan sartuta ez dauden produkzio-enpresak ahultzen ditu.
- **Jarduera audiobisual, kultural eta sormenezkoak** antolamendu industrial gisa integratzeko joera. Baina berrikuntza teknologikoko inguruneek lan kooperatiboko eta kolaboratiboko esperientziak sortzen laguntzen dute.
- **Zerbitzu audiobisual tradizionalak diru-sarreraren banaketa aldatzea** (publizitatea, erabiltzaileen ordainketak eta bestelako salmentak). Algoritmoek kudeatutako eta datuen kudeaketa masiboan espezializatutako korporazio kudeatzaileek zentralizatutako publizitate-motetarako joera.
- **Berrikuntzara irekita dauden hirietan kokatzea ikus-entzunezkoen balio-kateko funtsezko jarduerak**. Ondorio horietarako, Katalunia eta EAE proiektzio globaleko metropoli-errealitatetzat jo beharko lirakeke.
- **Ikus-entzunezkoak beste telekomunikazio-zerbitzu batzuekin paketatzeko moduak sendotzea**. Banda zabaleko Interneteko zerbitzuak hornitzeko gero eta lehiakortasun handiagoa dagoen ingurune batean, *multiple play* motako paketatzeak sortzeko aukera da kable eta satellite bidezko emaile tradizionalen eta telekomunikazio-emaileen arteko lehiakortasunaren gakoa, ordainpeko telebistaren kontrola lortzeko testuinguruan. Azken horiek prezio-politikak eta sustapenak sartzeko aukera dute, eta horrek emaile tradizionalakiko duten lehiakortasun-abantaila areagotzen du.
- Baina telekomunikazio-operadoreek **OTT gisa** (*over the top*) **sailkatutako banaketa eta komertzializazio audiobisualen mota berriak garatzearen** arronkari aurre egin behar diote. Jarraian azaltzen den zerrendan ikusten

denez, komunikazioen eta entretenimenduaren espektrora guztia hartzen duten askotariko negozio-ereduak zabaldu dituzte:

- **Bilatzaileak eta sare sozialak**: Google, Facebook, Twitter, Instagram...
- **Neurrira egindako telebista eta bideoa**: Filmin, Rakuten TV, Netflix, Amazon Prime Video, BelN Connect, You Tube, Apple TV+...
- **Neurrira egindako musika eta irratia**: Spotify, Deezer, Apple Music, Google Play Music...
- **IP bidezko ahots-deiak**: Skype, Viber...
- **Berehalako mezularitza**: WhatsApp, Google Hangouts, Telegram...
- **Web-aplikazioak eta biltegitza**: Google, Dropbox, Amazon, OneDrive...

Osatu gabeko zerrenda hori gainera begiratu gero, ikusten dugu gehienak lauzpabost korporazio globalen inguruan taldekatzen direla: Google, Facebook, Apple, Amazon, Rakuten... Telekomunikazioko azpiegiturretan inbertsiorik egiteko beharrik gabe irabazi estratosferikoak sor ditzakeen benetako oligopolio global bat. Eta, ia beti, eskema fiskal orekatu batean bere enpresa-jardueretan lortutako irabaziekiko proportzioan ordaindu beharko lituzketen zerga-kargak saihesteko aukera izaten dute. Telekomunikazio operadoreen (Vodafone, Orange, Telefonica...) eta OTTen arteko lehia-baldintzen asimetria hori da ekonomia digital eta audiobisual berriaren eremuko borroka sor eta gogorrenetarikoa baten jatorria.

Hasiera batean, telekomunikazio-konpainiei mesede egin zieten pribatizazio-politikek, zeinek abantailak ekarri baitzizkien epe ertainera komunikazioaren alorreko beste eragile batzuen aldean; esate baterako, kable tradizional bidezko telebistako enpresen eta industria audiobisualeko operadore publiko eta pribatuaren aldean. Baina negozioaren onena ikus-entzunezko edukien eta haiei lotutako publizitate-modu berrien komertzializazioan dagoen heinean, OTTek abantaila dute. Edonola ere, artikulu honetan planteatzen den gaiaren ikuspegitik, behar bezala egiaztatutako bi egiaztapenetan zehazten da esanguratsua:

- Industria kulturalen pisua gero eta gehiago eta modu jarraituan doa ikus-entzunezkoen sektorerantz.
- Telekomunikazioen alorra ikus-entzunezkoen sektorea xurgatzen ari da erabat. Banda zabal mugikorrean oinarritutako komunikazioen hedapen gorakor eta azeleratuak are gehiago indartuko du joera hori. Eta oso nabarmen egingo du datuak 10 urteetan.

Dudarik gabe, irudikatu berri dugun paisaia globalak eraginak izango ditu tokian tokian, eta aukera berriak ere ekarriko ditu. Bada, aukera horiek identifikatzea funtsezkoa da gertuko politika publikoak definitzeko. Jokoan sartzen diren aldagai guztiak zerrendatu gabe, bost nabarmenduko ditugu:

1. Azaldu den testuinguru orokorrean, **ikus-entzunezkoen zerbitzuak eskaintzeko prozesuan gero eta garrantzi handiagoa hartzen du eskalako ekonomien logikak**. Joera hori are garrantzitsuagoa da EAEko eta Kataluniako errealitateetan, zeinetan beste dimentsio bateko merkatu audiobisualak gainjartzen baitira.
2. Jarduera audiobisualeko aukera berriak agertzea **erabiltzaileek sortutako edukietatik** abiatuta.
3. **Proiektu audiobisualen finantziario masiborako** (crowdfunding) aukera ematen duten zerbitzuak garatzea.
4. **Irrati- eta telebista-komunikazioko tokiko espazioa birdefinitzea** zerbitzu horiek *streamingean* eskainita.
5. **Zerbitzu publiko audiobisuala birsortu eta bultzatzeko** beharra.

Azken puntu hori erabakigarria da. Gorantz datorren komunikazio-ekosisteman, zerbitzu publiko audiobisualen funtzioak gero eta paper esanguratsua du. EAEko eta Kataluniako korporazio publiko audiobisualek funtzio hirukoitz bat izan zuten zirenean. Batetik, industria audiobisuala finkatu zuten lurraldean. Bigarrenik, euskara eta katalana normaltzeko prozesuetan lagundu zuten. Eta, hirugarrenik, eremu sinboliko espezifiko bat definitzen lagundu zuten frankismotik ateratzearen eta masa-kulturaren eta -komunikazioaren azken fasearen testuinguruan. Berrogei urte igaro ondoren, beharrezkoa da EITB (Euskal Irrati Telebista), CCMA (Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals) eta antzeko korporazioen inguruan berriz pentsatzea eta haiek birsortzea. Sistema audiobisualean eraldatze sakonak egiteko, beharrezkoa da ingurune berrian izango duten funtzioa eta xedea birdefinitzea.

Funtsean, merkatuko desorekak zuzendu behar dira, sistema audiobisual nazionalaren eragile gisa duten xedea indartuz eta sendotuz. Hegemonikoak ez diren kulturentzat –halakoak dira euskal kultura eta katalana–, korporazio publiko audiobisualen zentralitate sistemikoa beharrezkoa eta utziezina da. Funtzio hori bermatuko bada, mota guztietako eta leiho eta euskarri guztietarako edukiak ekoiztiko dituzten

faktoria indartsu bilakatzeko aukera emango duten enpresa-berringeniaritzako prozesuak egin beharko dira. CCMAren kasuan, birsortzeaz ari garenean, barne hartzen dira halaber Kataluniako sistema audiobisual publikoko gainerako elementuekiko (tokiko operadore audiobisual publikoak eta ACN, Agència Catalana de Notícies) harremana birdefinitu, bultzatu eta eguneratzea.

Horren osagarri, beharrezkoa da, gainera, definitzea CCMAk eta EITBk zer harreman izan behar duten eduki audiobisualeko banaketa digitaleko eragile berriekin; funtsean, telekomunizioen arlokoekin. Eragile berri horiekin hasi den erlazioa bi printziotan oinarritzen da, *must carry* (haiek behartzen ditu) edo *must offer* (korporazio publikoak behartzen ditu), zailtasun gehiagorik gabe.

Teknologia digital berriek erabiltzaileei eskaintzen dizkieten prestazioen eta haietatik eratortzen diren kontsumo-aldaketen eta negozio-aukeren ondorioa da errealitate berri hori. Bestalde, dagoeneko adierazi dugunez, *start over* eta *catch-up* zerbitzuek, neurrirako bideoak eta gainerako zerbitzuek zuzeneko eraginak dituzte, besteak beste, eskubide audiobisualen kudeaketan, negozio-ereduan eta eskakizunetan. Egoera horrekin, orain arte garrantzirik gabekoak ziruditen segurtasun juridikoko eta kalitate teknikoko mailak behar dituzte banatzaileek.

Kataluniako errealitatea kontuan hartuta, funtsean hiru motatako banatzaileez ari gara:

- Ordainpeko telebista digitaleko operadoreak (*telecomak*), nazioartekoak, estatukoak edo tokikoak direla ere. Bideo-edukiak eskaintzen dituzte telekomunikazio-zerbitzuaren osagarri, eta *must carry/must offer* eskeman oinarritzen da CCMArekin duten erlazioa. Adibideak: Movistar + Fibrecat.
- *Telecomen* hornitzaileak, haien eta CCMAren arteko bitartekariak, hainbat irtenbide tekniko gauzatzen dituztenak (*softwarea, set-top-boxa...*). Adibideak: Agile Content, Hablemos Yoigo-MásMóvilen hornitzailea eta TVUp, 'Emaginaren hornitzailea.
- Ordainpeko nahiz doako App-en eta OTTen sortzaile independenteak. Adibideak: goNET.TV eta Yowi.tv.

Korporazio publikoen eta ikus-entzunezkoen sektoreko eragile horien arteko erlazioa modu zehatz eta zorrotzean definitu beharko da, hiru helburu hauek lortzeko:

1. Operadore horien bezero eta erabiltzaileek erraz aurkitzea EITBk eta CCMAk sortutako edukiak, eta jatorrizko emisioaren kalitatearekin eta ezaugarriekin (bideoa, audioa, azpituak, audiodeskribapena, etab.) jasotzea.
2. CCMAk eta EITBk operadore publiko gisa eskubide audiobisualen alorrean dituzten interesak defendatzea. Eta korporazio publikoek sortu eta operadore pribatuek banatutako edukien kontsumo-datueterako sarbidea izateko. Ez da zentzuzkoa operadore pribatuek banatzen dituzten CCMAko eta EITBko edukien kontsumoaren datuak ezagutzea eta ez partekatzea.
3. Azkenik, bideo-edukien banaketak datozen urteetan nola eboluzionatuko duen gertuagotik jarraitu ahal izateko. Azken finean, aurreikusteko modukoa da LTD bidezko banaketa marjinala izatea hamar urtean. Eboluzio hori ezagutzea lagungarria izango da korporazio audiobisual publikoen berringeriaritza diseinatzeko.

CCMAk eta EITBk sektorean ez badute hartzen bere gain lidergo-funtzio eraginkorrik, gertuko banatzaileek eta App-en eta *set-top-boxen* tokiko sortzaileek, orain arte bezala, oihaneko lege antzeko batean jarraituko dute, hots, indartsuenaren legearekin jarraituko dute. Eta egoera horrek segurtasunik eza eta ezegonkortasuna sortzen ditu sektorean. Horregatik, agertoki konplexu hori argitzeko ahaleginak egin behar dira, merkatu audiobisuala eta gizarte digitala, betiere testuinguru nazionalan, irmotasun handiagoarekin garatzen laguntzeko.

Atal honekin amaitzeko, EITBren eta CCMAren xede eta funtzio berriei buruzko azken gogoeta bat egingo dugu: sistema audiobisuala digitalizatzearen eta eraldatzearen alorrean, gero eta esanguratsuagoa izango da EAEko eta Kataluniako korporazio publikoek lankidetzan aritzeko duten ahalmena. Besteak beste, beste korporazio audiobisual publiko batzuekin Europa mailan ezartzen diren itunetan parte hartzeko. Itun horiekin, besteak beste, esperientziak eta irtenbide tekniko eta antolakuntzakoak partekatu ahal izango dira, koprodukzioen errealizazioak areagotu ahal izango dira, eta edukien baterako banaketarako OTT plataforma komunak inplementatu ahal izango dira.

4. Ikus-entzunezko produktuen kontsumo-ohituren aldaketa

Audientzien portaeran ikusten diren joeretako batzuk oso garbiak dira⁷. Artikulu honetan aztertzen ari garen alorrari dagokionez, alderdi hauek dira garrantzitsuenak:

- **Europar ordainpeko telebista mantentzea**; telekomunikazioetako operadoreek gero eta protagonismo handiagoa izango dute. Protagonismo hori gero eta gehiago partekatzen dute OTTekin, zeinak aipatu baititugu dagoeneko.
- **Hedapen-leiho tradizionalen** (bideoa/DVDa eta aretoak) **bidezko kontsumo zinematografikoaren jaitsiera** eta VOD zerbitzuen (*video on demand*: eskariaren arabera zerbitzu audiobisualak) erabilera areagotzea.
- Aitzitik, **irritati-kontsumoko ohiturek ez dute izan aldaketa esanguratsurik.**
- **Telebista-kontsumoa eta kontsumo audiobisuala Interneteko zerbitzu berrietara irekitzea**. Nabarmenezkoa da ordainpeko nahiz doako App-en eta OTTen sortzaile independenteak agertu izana. goNET.TV, Yowi.tv eta antzeko ekimenez ari gara. Aurreko atalean azaldu dugunez, nabarmenezkoa da tokiko eragileak areagotu izana, bai edukiak hornitzen dituzten telekomunikazio-operadoreei dagokienez, bai sortzaile independenteei dagokienez.
- **Telebista-kontsumoaren jaitsiera konstante eta lineala eta kontsumo diferentia areagotzea**. Joera hori desberdina da herrialdearen eta biztanleria-segmentuen arabera. Nolanahi ere, paisaia audiobisuala gero eta gehiago eta modu itzulezinean baldintzatzen duen prozesu bat da.

⁷ Produktu audiobisualen kontsumoan izandako ohitura-aldaketak zehatzago eta kopurutan ezagutzeko, lan hau kontsultatu daiteke: "Libre Blanc de l'audiovisual de Catalunya". <http://interaccio.diba.cat/sites/interaccio.diba.cat/files/llibreblancaudiovisual.pdf>, 11-31 or.


Koadro honek garbi irudikatzen du ohitura-aldaketen bilakaera denboran zehar:

Munduan lineako telebistaren eta Internet bidezko telebistaren kontsumoari egunean batez beste eskainitako minutuak (2019ko eta 2020ko datuak aurreikuspenak dira):

urtea	LTB	Internet
2011	177.7	76.2
2012	178.7	85.0
2013	175.0	95.1
2014	173.1	108.8
2015	174.1	120.3
2016	173.9	131.0
2017	174.0	146.7
2018	172.2	159.7
2019	170.3	170.6
2020	167.7	180.3

Iturria: Zenith. Publicis Groupe, "Libre blanc de l'audiovisual a Catalunya"n jasoa

LTBren kontsumoa egonkor mantentzen da, beherazko joerarekin; eta Internet bidezko telebistaren eta neurrirako telebistaren kontsumoak goranzko joera konstante bat dute. Ez da uneko edo koiunturako gertaera bat, egiturazko joera bat baizik. Fenomenoa are nabarmenagoa da kontsumo audiobisualeko ohiturak adin-tarteka aztertzen baditugu. Jarraian agertzen den grafikoan, Katalunian 2017an zegoen egoera erakusten da. Belaunaldien arabera bereizten diren jokabideak ikusten dira:



Azaldu dugun egoerak bi ondoriotara eta galdera bat egitera garamatza. Hauek dira ondorioak:

1. Produktu audiobisualak ekoizti eta banatzeko logika berriak, negozio-eredu berriak eta kontsumo-eredu berriak bateratzen direnez, ikus-entzunezkoen sektorea arautzen duten legeak zaharkituta geratu dira.
2. Beharrezkoa da kultura-aniztasuna babestuko duten eta korporazio global handiek ezarritako praktika oligopolikoak mugatuko dituzten arautze-modalitate berriak ezartzea. Eguneraketa eta birdefinizio hori gabe, euskara, katalana eta hegemonikoak ez diren beste hizkuntza batzuk mendekotasun-egoera objektiboki kezkarri batera iritsiko dira.

Bada, testuinguru horretan, galdera hau planteatzen zaigu: zer-nolako arautzeak, eta zer esparru arautzailetatik? Kataluniari eta Euskadiri dagokienez, hauek dira erreferentziako hiru esparru arauemaileak: autonomia-estatutuak mugatu eta garatzen dituztenak, Espainiako Erreinuako parte izatetik eratortzen direnak eta Europar Batasuneko parte izatetik eratortzen direnak. Azter ditzagun, lehenik eta behin, Europako markoak eskaintzen dituen aukerak.

5. Europako aukerak: merkatu digital bakarraren (mdb) definizioa eta 5G-ren sustapena

Europa eraikitzeke proiektua hiru hankako mahai baten modukoa da, zeinean ekonomia, politika eta kultura izango bailirateke hankak. Bistakoa dirudi hiru hanka edo zutabe horietan sendoena ekonomia dela. Egia da mota guztietako desoreka eta asimetriak jasaten dituela, baina politikaren zutabea baino sendoagoa da, hura higatua baitute ordezkariak demokratikoaren inguruko gabeziek eta korporatibismo estatalek. Baina kultura da zutaberik makalena. Egoera kezagarria da, politika kultural komun eta handinahirik gabe ezinezkoa baita balio demokratiko partekatuetan oinarritutako proiektu-identitate bat definitzea. Datu bakar batekin ulertuko dugu egoera: Europako herritar guztiek partekatzen dituzten kontsumo audiobisual bakarrak AEBn ekotzitakoak dira! Europako kulturetako dieta audiobisualaren osagai nagusia tokiko produktuen eta produktu globalen nahaste bat da; produktu global horien jatorria AEB da ia erabat. Europako kultura audiobisualean ez dago imaginario propio partekaturik. Egiturazko gabezia hori zuzendu nahian, EB azken urteotan Merkatu Digital Bakarra proiektuaren (MDB) oinarriak definitzen joan da. MDB⁸ zehaztu arteko prozesua ez da bizkorra izan, ez eta lineala ere; luzea eta bihurtunetsu samarra izan da. Hona zein diren gertaera nagusiak:

- 1993. Bangemann txostena (Europako Batzordea) > "Informazioaren gizartea" kontzeptua sartu zen Europako Batzordearen politiketan. Liberalizazio-politikekin bat zetorren inspirazio orokorra.
- 2000. Lisboako agenda. (Europako Kontseilua) > Jakintzan oinarritutako ekonomiaren aldeko apustua egin eta politika digitalei lotutako gizarte-kohesioaren kontzeptua sartu zen. Dokumentu horretan definitutako helburuak partzialki baino ez dira egin edo osatu.
- 2005. i2010: informazioaren gizartea hazkunderako eta enplegurako (Europako Batzordea) > Iraunkortasunaren kontzeptua sendotu zen politika digitaletan.
- 2010. Europarako Agenda Digitala (Europako Batzordea) > Merkatu Digital Bakarra kontzeptua sartu zen eta azpiegituren eta banda-zabaleraren zentralitatearen aldeko apustua egin zen.

⁸ MUD proiektuaren definizioari buruz gehiago sakontzeko: Petit, M. (2017). *Comunicació, xarxes i algoritmes. Per una política digital propia a Catalunya*. Angle Editorial, 31-51 or.

- 2015. **Merkatu Digital Bakarrerako Estrategia** (Europako Batzordea) > Oinarritzko printzipioa izango litzateke "produktu fisikoen" merkaturan dagoena merkatu digitalera eramateko helburua.

Berehalako epean, MDB ahalbidetzeko Europako Batzordearen estrategiak, halaberharrez, lehentasuna eman behar dio banda zabaleko sareko hari gabeko komunikazio mugikorrek hedatzeari; hau da, 5Gri. Eta 5G ezartzeko, irrati-frekuntzien espektroaren zati esanguratsu bat erabili behar da, hots: UHF (ingelesezko *Ultra High Frequency*ren akronimoa: frekuentzia ultrahandia). Bada, hain zuzen, UHFren espazioa okupatzen aritu da telebista analogiko tradizionala eta LTDA. Horrengatik planifikatu da irrati-frekuntzien berrantolaketa: banda zabaleko komunikazio mugikorrek garatzeko aukera emango duen espazioa libre uzteko. "Dibidendu digitala" esan izan zaio. Espazio erradioelektrikoaren berrantolaketaren definizioa bizkortu egin da azken urteotan. Hauek izan dira prozesuko une esanguratsuenak:

- 2014. "Lamy txostena" argitaratu zen> Dokumentu horretan, 700 MHz-eko banda banda zabaleko komunikazio elektronikoetara orientatzeko gomendatzen da. Ondorengo politikak markatu zituen dokumentu horrek, argi eta garbi.
- 2015. 800 MHz-eko bandari eragin zion lehenengo "dibidendu digitala".
- 2016. 5G hedatzeko plana.
- 2017. Europako Kontseiluaren eta Parlamentuaren erabakia, 700 MHz-eko banda 5Grako libre uztekoa.
- 2018. Komunikazioen Europako kode berria indarrean sartu zen.

Plan teknikoa definitzearekin batera, 5Gren hedapena definituko duten dokumentu, partzuergo eta proiektuei forma ematen joan da EB. Ekimen esanguratsuenak zehazten dira jarraian:

- **5G PPP** (*5G Public Private Partnership*) **partzuergo publiko-pribatua**. 2013an sortu zen Europako Batzordeak eta 5G Azpiegiturako Elkartek (5GIA) sinatutako akordio baten bitartez; 5GIAk sektore pribatua ordezkatu zuen (besteak beste, Huawei, NEC eta beste konpainia global batzuk). Europako industriaren, unibertsitateen eta erakundeen artean baterako estrategia bat diseinatzeke helburua du partzuergo horrek.

- 5Gren inguruko Liburu Zuria (2016) egin zen, zeinean 5G hedatzeko prozesuan aurreikusitako lehentasunak aurreirudikatzen dituzten bost eremu definitzen baitira: etorkizuneko lantegiak, energia, mugikortasuna, osasuna eta komunikabideak.
- **5G MEDIA proiektua**(5G PPP)> *Streaminga* zerbitzu gisa du ardatz. 15 erakundek parte hartzen dute, haien artean RTVE.
- **5G-Xcast proiektua**(5G PPP)> Aurrekoa baino asmo handiagokoa da, eta hari gabeko hedapenean eta multidifusioan zentratzen da. 18 erakundek parte hartzen dute (UERren partaidetzarekin, Brexita gauzatu arte, BBCk zuzendu du).

Aurreikusitako plangintzarekin bat etorri, bi inflexio-puntu zehaztu dira egutegian. Lehenik eta behin, 2020. urtea. Urtea amaitzerako, estatu kide gehienek 700 MHz-eko banda esleituta edukiko dute 5G hedatu ahal izateko; orain arte LTDak hartzen zuen espektroaren zati esanguratsu bat hartuko du orain. Banda zabaleko komunikazio mugikorrei tokia egiteko irrati-frekuntzien espektroan egin den berrantolaketa horren ondorioz, LTD-hargailuak birsintonizatu behar dira. 2020rako, halaber, aurreikusten da 5Gk dituen aukera narratibo audiobisualei buruzko saiakuntza bat egitea, futboleko EURO 2020 erreferentziazko ikuskizuna egingo dela aprobetxatuz.

Aurreikusten da 2025erako hedatzea 5Gn oinarritutako komunikazioak orokortzeko aukera emango duen azpiegitura. Beste eremu askotan bezala, EBko estatu kideak erritmo desberdinean ari dira gauzatzen aurreikusitako plangintza. 2019. urtearen amaieran, Irlanda, Luxenburgo, Espainia, Kroazia eta Letonia ziren estatu atzeratuenak.

6. Europako marko arautzailea eta telekomunikazioetako eskumenen banaketa eta irrati-frekuntzien espektroaren kudeaketa espainian

Europako zer marko arautzailek bideratuko du ikus-entzunezkoetan MDB ezartzea?

Europako marko arautzailea pixkanaka definitu da. TSF («mugarik gabeko telebista») direktiba, 1989koa, izan zen telebistako irrati-difusioa arautzeko arau komun lehenengo markoa.

la hogeita hiru geroago, 2010ean, araudi hori eta 1997an eta 2007an egin zitzaizkion zuzenketak testu bakar batean bateratu ziren: **Ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzuen direktiba (IEKZD)**; 2018an berrikusi, eguneratu eta zabaldu zen, eta EBko komunikabideen inguruko araudiaren muina da.


IEKZDk, besteak beste, alderdi hauek arautzen ditu: komunikazio komertzialak, adin txikioen babesa, gorroto-diskurtsoaren debekua, Europako obrak sustatzea, bideoak banatzeko plataformak arautzea, irisgarritasuna eta erakunde arautzaileak.

Dibertsitate linguistiko eta kulturala sustatzearen ikuspegitik, IEKZDk funtsezko kontzeptu bat barne hartu eta hedatzen du: "interes orokorreko ikus-entzunezko komunikabideen zerbitzuak modu egokian nabarmentzea" (38. kontuan hartuzkoa eta 7. artikulua, a apartatua). Ondorio eta proposamenen atalean itzuliko gara gai horretara, baina dagoeneko esan dezakegu Europako araudian ez dagoela inolako oztoporik katalanezko eta euskarazko kultura audiobisuala normaltzeko. Bat ere oztoporik ez. Arazoak etxeokoa dira.

Espainiako Erreinuan, Konstituzioaren 149. artikulua zehazten du telebistaren oinarri arautzailea, eta Estatuaren eskumen eksklusiboak definitzen ditu. 27. apartatuan, ezartzen da Estatuak eskumen eksklusiboa duela oinarritzeko arau hauek ezartzeko: "*Prensa, irrati eta telebistari eta oro har hedabide guztiei buruzko arauak, alde batera utzi gabe haiek garatu eta betearazteko orduan autonomia-erkidegoei dagozkien ahalmenak*". Hori kultura audiobisualera ekarrita, eskumen-banaketaren arabera, Estatuak ahalmen eksklusiboa du irrati-frekuntzien espektroa planifikatzeko, frekuentziak esleitzeko eta irrati-telebistako operadoreen "mapa" onesteko. Autonomia-erkidegoek, aldiz, Estatuak esleitutako espektroaren parte arautzen dute.

EAEko autonomia-estatutua eta Kataluniakoa ez dira berdin-berdinak adierazpen kultural audiobisualei dagokienez. Hala, EAEko autonomia-estatutuaren artikulua bermatzaileagoak dira. Baina eskumen-banaketaren eskema asimetriko horrek ondorio garbi bat du trantsizio digitalean: autogobernu autonomikoaren devaluazio progresiboa kulturaren eta komunikazioaren alorrean. Estatuak berrikuntza digital guztiak aprobetxatu ditu gaztelaniaren posizio menderatzailea indartzeko. Kataluniaren kasua oso adierazgarria da. Telebista pribatuen aurretik, katalanezko eta gaztelaniako eskaintza orekatu bat zegoen, zeina bi operadore publikoek bermatzen baitzuten: RTVEk eta CCMak (jatorrian, CCRTV). Telebista pribatuen emakidak ez zuen ekarri hizkuntzaren inguruko eta lurralde-deskonexioaren inguruko klausularik. Hala, katalanezko telebista-eskaintza heren bat baino gutxiago

izatera igaro zen. Baina LTDra igarotzea izan zen behin betiko kolpea, telebistako eskaintza biderkatu egin baitzen. Jarraian agertzen den koadroak (*El llibre blanc de l'audiovisual a Catalunya*) modu grafikoan erakusten du:



Movistar, Vodafone, Orange eta gainerako erreferentziazko telekomunikazio-konpainien eskaintza audiobisual gero eta handiagoarekin, are gehiago baztertzen da katalanezko telebista-eskaintza. Ondorioz, katalanezko telebistako produktuen eskaintzaren eta eskariaren artean erlazio orekatu bat izateko aukeraren oreka hautsi da. Movistar+eko erabiltzaile batentzat, katalanezko telebista-edukiak erabat marjinalak dira: gaztelaniaz egindako eta gaztelaniara doblatutako edukien eskaintza ia eskusiboa da.

Irratigintzari erreparatzen badiogu, bestelako paisaia dugu erabat. Aldea oso deigarria da. Koadro honetan, ikusten da katalanaren presentzia nola normaldu den azken 20 urteotan:

urtea	Katalanezko entzuleak	Gaztelaniazko entzuleak
2000	1.329.000	1.903.000
2017	2.534.000	2.652.000

Hizkuntza-politika autonomikoak izan ostean 40 urtez, ikus-entzunezko komunikazioen artetik, irratigintzan baino ez da normalizatu katalanaren presentzia. Telebistan marjinala izateko joera du, eta zineman eta bideo-jokoetan ia sumatu ere ez da egiten. Halako dibergentzia duten bi errealitate horien aurrean, galderak bistakoak dira: Zeren ondoriozkoa da telebistako eta irratiko eskaintzaren arteko desberdintasuna? Beharbada, katalanaren ezaugarri morfosintaktiko eta fonetikoak egokiak dira irratiko edukietarako, baina ez dira egokiak bideoeko edukietarako? Bistan denez, hori ez da arrazoia. Hizkuntzaren espezifikotasunek ez dute zerikusirik. Eskumen-markoaren espezifikotasunetan eta hedatze-teknologietan bilatu behar da erantzuna. Lehenik eta behin, irratia batez ere tokiko analogia analogikoarekin (FM) funtzionatzen du oraindik. Bestalde, irratigintzak du loturarik estuena Kataluniako Parlamentuaren legeekin (Hizkuntza-politikari buruzko 1/1998 Legea eta Kataluniako ikus-entzunezko komunikazioari buruzko 22/2005 Legea). Eta, horren osagarri, Generalitateak erabateko eskumenak ditu operadoreei lehiaketa bidez irradi-zerbitzuak ustiatzeko baimenak emateko.

Ondorioa: telebistaren alorrean ez bezala, irratigintzaren alorrean, botere publikoen ekintzaren bitartez katalanezko edukien eskaintza gizartearen eskari errealekin orekatu daiteke. Aldiz, eskusiboki Estatuko araudia baino iristen ez den eremuetan, gaztelania ez bestelako hizkuntzetako adierazpen kultural eta ikus-entzunezkoak gero eta gehiago baztertzea errealitate itxuraz saihetsezin bat da. Lege fisiko baten segurtasunarekin eta auresangarritasunarekin funtzionatzen duen eragin bat da. Baina ez da "lege fisiko" bat. "Lege politiko" bat da.

7. Ondorio eta proposamenak

Testu honetan proposatutako balorazio-azterketaren ondorioak lau puntu hauetan laburtu daitezke:

1. Lehenik eta behin, **komunikazio elektronikoen bilakaera teknologikoa eta Europako arau-esparrua mendeko errealitate linguistiko eta kulturalen (EAEkoa, Kataluniakoa...) normalizazio sozialaren aldekoak izan zitezkeen.**
2. Baina **Estatuko araudian jasotzen den logikaren aplikazio sistematikoak eraginkortasunez neutralizatzen ditu euskarazko eta katalanezko eskaintza audiobisuala normaltzeko saiakerak.** Berrikuntza teknologikoak eta araudi berriak ateratzen diren heinean, gaztelaniazkoa ez den ikus-entzunezkoen

eskaintza gero eta marjinalagoa izaten ari da. Eta guztia komunikazio-teknologia digitalak hedatzearen berezko ondorio saihetsezina izango balitz bezala. Euskarazko eta katalanezko ikus-entzunezko edukiak baztertzeko joera hori bereziki kezkatzekoa da kontuan hartzen badugu ikus-entzunezkoen industriari jada industria kulturalen enbor nagusia direla. Eta, etorkizunean are gehiago izango dira.

3. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumenen banaketa asimetrikoa (estatu mailako telebista pribatuak, LTDaren araudia) kontuan hartuta, joera hori dagoeneko ikusten zen telebista analogikoarekin eta lurreko telebista digitalarekin. Baina **ikus-entzunezkoen sektoreak Internetera migratzeak eta OTT-ak ugaritzeak ikus-entzunezkoen erregulazioa telekomunikazioen eremu hertsira darama (batez ere haririk gabeak). Eta eremu horretan estatuak bakarrik ditu eskumenak.** Beraz, *broadcastetik* eta *LTDtik broadbandera* eta 5Grara igarota, EAeko eta Kataluniako autogobernuek galdu egiten dute Espainiako Konstituzioak hasiera batean aitortu zizkien eskumen apurren zati handi bat.
4. Azkenik, testuinguru berri horretan, **irradi-frekuntzien espektroaren kontrolaren auzia planteatzea (kontrol partekatua edo eskusiboa) lehenetsun politiko nagusi bat da.** Komunikazio elektronikoen eta irradi-frekuntzien espektroaren kudeaketaren gaineko subiranotasunik edo baterako subiranotasunik gabe, jada ezin da imajinatu inolako subiranotasun linguistikoa eta kulturalik.

EAeko eta Kataluniako autogobernuek nola eguneratu, birdefinitu eta blindatu beharko litzukete politika audiobisual eta kulturalak? Gure helburua ez da zerrenda zehatz bat egitea, baina, Kataluniako eta EAeko estatus politikoak eboluzionatzen duen moduan eboluzionatzen duela ere, datozen urteetan (ahal izanez gero, 2025a baino lehen) helburu hauek zehaztu eta moldatu beharko lirateke:

- **EITB eta CCMA korporazio audiobisual publikoen funtzioa birdefinitzea** (eta, oro har, sektore audiobisual publikoarena). Horretarako, xedea, proiektu teknikoa, enpresa-eredua eta -egitura eta zuzendaritza- eta kudeaketa-kultura eguneratu beharko lirateke. Beharrezkoa da eraldatze sakon bat egitea MDB aurrez eratzen ari den ordena komunikatibora egokitzeko.
- Irrati eta Telebista Autonomikoen Erakundearen Federazioaren (FORTA) markoan lankidetzan aritzeko mugak egiaztatuta, **EAeko eta Kataluniako zerbitzu**

audiobisual publikoen (ZAP) artean lankidetzaren estuago bat izateko politika bat ezartzea. Funtsean, bi helburu izango ditu: esperientzia eta baliabideak partekatzea eta geometria aldakorreko itunak egitea Europa mailan beste korporazio audiobisual publiko batzuekin.

- **Europako korporazio audiobisual publikoek partekatutako, parte hartutako eta bultzatutako banatze-formula bat eratzeko modua aztertzea.** Europako zerbitzu audiobisual publiko gisa sortutako OTT eleaniztun bat, Europan ekoiztutako fikziozko produktu audiobisualak banatzen dituen.
- **Telekomunikazio-operadore berrien eta tokiko OTT-aren ugaritzea aprobetxatzea itunak finkatzeko eragile berri horien eta korporazio publiko nazionalen (EITB eta CCMA) artean.** Telekomunikazioen eremuan eskumenak juridikoki definitzeaz gainera, gune komunikatibo nazionalak eraikitzen lagunduko duten inertzia positiboak jar daitezke martxan.
- Autonomia-estatutuek mugatzen dituzten autogobernu-marjinak aprobetxatzea **kulturaren definizio juridiko bat garatzeko legalki, zeinak Interneteko eduki audiobisualak barne hartuko baititu.**
- Arautzeko ahalmen handiagoa ematea **CACi eta ikus-entzunezkoak arautzeko organismoak, EAZE zerbitzu audiobisualak eta Interneten gara daitezkeen guztiak barne hartuta.** EAeren kasuan, EAeko Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren sorrera bultzatzea, CACren esperientzia aprobetxatuta eta egokituta.
- **IEKZDn jasotzen den kontzeptu hau hedatzea: "interes orokorreko ikus-entzunezko komunikabideen zerbitzuak modu egokian nabarmentzea".** Kontzeptu hori garatzeko unean, hizkuntza-aniztasuna oinarritzko irizpidetzat ezarri beharko litzateke nabarmentze hori zerbitzu audiobisual linealetan (ZAL) eta eskariaren arabera eskaintzen diren zerbitzu audiobisualen (SVOD, AVOD, TVOD) ezartzeko.

EAE eta Katalunia ongi berezitate nazional dira, zeinek parekatu ezin diren egoera politiko, ekonomiko eta kulturalak bizi izan eta bizi baitituzte. Baina desberdintasun horiek izateak ez du esan nahi haien artean ez dagoenik paralelismo oso nabarmen eta indartsurik. Paralelismo horiek, hein batean, Espainiako Erreinuaren eta Europar Batasunean egoteak eragiten ditu. Ekonomia eta kultura nazioarteko bihurtzearen markoan trantsizio teknologiko digitalean dauden gizartearen konplexutasunak dakartzen erronken garrantzia erakutsi nahi izan dugu

testu honetan. Testuinguru horretan, EAeko eta Kataluniako gizarteak izango dira, seguruenik, Europako hegoaldean erronka partekatu gehien dituztenak. Hori dela eta, datozen urteetan gero eta beharrezkoagoa izango da EAeko eta Kataluniako autogobernuen arteko lankidetzaren sendotzea, esperientzia, diagnostiko eta proposamen politikoak partekatzeko. Eta, halaber, *lobby* lanak egiteko elkarrekin Madril eta Bruselan. Kulturaren eta komunikazioaren alorrari, zeina gero eta estrategikoagoa baita, lehentasuna eman beharko litzaioke lankidetzaren intelektual, sozial eta instituzionaleko gune horiek definitzeko garaian.

Bibliografia

Ala-Fossi, M. eta Bonet, M. (2018). Who's Afraid of a Pan-European Spectrum Policy? The EU and the Battles Over the UHF Broadcast Band. *International Journal of Communication*, 12, 337-358.

Analysys Mason Consulting (2018). «The 700MHz band may largely be used for mobile in Europe by 2020, but 5G everywhere by 2025 is unlikely», uztailaren 25ekoa. Hemen berreskuratua: <http://www.analysismason.com/About-Us/News/Newsletter/the-700mhz-band-by-2020-Jul18/>

Castells, M. (2016). *El imperio del aire. Espectro radioeléctrico y radiodifusión*. Bartzelona: Editorial UOC.

Castells, M (1996). The Rise of the Network Society, *The Information Age: Economy, Society and Culture*, I. liburukia. Cambridge, Massachusetts; Oxford, UK: Blackwell.

Castells, M (1997). The Power of Identity, *The Information Age: Economy, Society and Culture*, II. liburukia. Cambridge, Massachusetts; Oxford, UK: Blackwell.

Castells, Manuel (1998). *End of Millenium. The Information Age: Economy, Society and Culture*, III. liburukia. Cambridge, Massachusetts; Oxford, UK: Blackwell.

Castells, M. (2009). *Communication power*. Oxford/New York, Oxford University Press.

Europako Batzardea. (2016a). Europako Kontseiluaren eta Parlamentuaren erabaki-proposamena, Europar Batasunean 470-790 MHz bitarteko banda-zabalera

erabiltzeari buruzkoa. SWD (2016) 19 final / SWD (2016) 20 final . COM (2016) 43 final , otsailaren 2a. Hemen berreskuratua: <https://ec.europa.eu/transparency/regdoc/rep/1/2016/ES/1-2016-43-ES-F1-1.PDF>

Europako Batzardea. (2016b). Communication from the Commission to The European Parliament, The Council, The European Economic and Social Committee and The Committee of The Regions. 5G For Europe: An Action Plan. SWD/2016/0306 Final. Hemen berreskuratua: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=SWD:2016:306:FIN>

Europako Batzardea. (2010). «Europa 2020: Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador» komunikazioa [COM(2010) 2020 final, 2010-03-03koa]. Hemen berreskuratua: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=LEGISSUM%3Aem0028>

Europako Kontseilua. (2017). «La UE coordina el espectro clave para impulsar la conectividad en la carrera hacia la 5G», apirilaren 25eko prentsa-oharra. Hemen berreskuratua: <http://www.consilium.europa.eu/es/press/press-releases/2017/04/25-mobile-connectivity-5g-technology/>

Consell de l'Audiovisual de Catalunya, (2017). *Llibre Blanc de l'audiovisual de Catalunya*. CACk editatua. Hemen berreskuratua: <http://interaccio.diba.cat/sites/interaccio.diba.cat/files/lilibreblancaudiovisual.pdf>

Crusafón, C. (2018). La industria audiovisual ante el despliegue del 5G: el caso de la Unión Europea. *Fonseca, Journal of Communication*, 17. zk., 11-22 or. Hemen berreskuratua: <https://doi.org/10.14201/fjc2018171122>

Cullell-March, C. (2010). *La política del espectro radioeléctrico en la Unión Europea: la armonización del dividendo digital en el Reino Unido y España*. Dokore-tesia. Bartzelona: Universitat Internacional de Catalunya.

Digital TV Europe. (2016). «EC and industry groups set out 5G vision», uztailaren 8koa. Hemen berreskuratua: <https://www.digitaltveurope.com/2016/07/08/ec-and-industry-groups-set-out-5g-vision/>

European Broadcasting Union. (2018). Trials Tests and Projects Relating To 4G/5G Broadcast Sup-ported by European PSB Technical Report, uztaila. Geneva: EBU. Hemen berreskuratua: <https://tech.ebu.ch/docs/techreports/tr044.pdf>

European Commission - Radio Spectrum Policy Group (2016). «Strategy Roadmap Towards 5G for Europe – Opinion on spectrum related aspects for next-generation wireless systems (5G)», RSPG16-032 FINAL, 2016ko azaroa. URL: http://rspg-spectrum.eu/wp-content/uploads/2013/05/RPSG16-032-Opinion_5G.pdf

GSMA. (2017). La serie CMR. Posicionamiento de Política Pública de GSMA. Irrati Komunikazioen Mundu Konferentzia, 2019. Visión de la industria móvil sobre el punto de agenda 1.13 Resumen ejecutivo. Hemendik berreskuratua: <https://www.gsma.com/spectrum/wp-content/uploads/2017/09/AI-1.13-Policy-Position-SPA.pdf>

Lamy, P. (2014). Results of the work of the High Level Group on the future use of the UHF band (470–790 MHz). Report to the European Commission, Brusela, Belgika. Hemendik berreskuratua: http://ec.europa.eu/information_society/newsroom/ce/dae/document.cfm?doc_id=6721

Marín, E. eta Tresserras, J.M. (2019). *Obertura republicana. Catalunya després del nacionalisme*. Editorial Pòrtic.

Michalis, M. (2016). Global Communications and National Policies: The View from the EU. Iturria: Flew, T., Iosifidis P. eta Steemers, J. (editoreakXX), *Global Media and National Policies. The return of the State* (122-137 or.). London: Macmillan Palgrave.

Petit, M. (2017). *Comunicació, xarxes i algoritmes. Per una política digital propia a Catalunya*. Angle Editorial.

Puppis, M. (2010). Media Governance: A New Concept for the Analysis of Media Policy and Regulation. *Communication, Culture and Critique*, 3(2), 134-149.

5G Infrastructure Association (5G-IA). (2018). 5G Pan-European Trials Roadmap Version 3.0, maiatzaren 5ekoa. Hemendik berreskuratua: https://5g-ppp.eu/wp-content/uploads/2018/05/5GInfraPPP_TrialsWG_Roadmap_Version3.0.pdf

5G Private Public Partnership (5G PPP). (2018). 5G-Xcast project details, folleto informativo. Hemendik berreskuratua: http://5g-xcast.eu/wp-content/uploads/2018/09/5G_Xcast_Brochure_Designer_version.pdf

5G Private Public Partnership (5G PPP). (2017a). 5G Innovations for new Business Opportunities, martxo. Hemen berreskuratua: <https://5g-ppp.eu/roadmaps>

5G Private Public Partnership (5G PPP). (2017b). Media Industry Meets 5G, eskuliburu informatiboa. Hemen berreskuratua: <http://www.5gmedia.eu/cms/wp-content/uploads/2017/12/Media-industry-meets-5G-the-5G-MEDIA-project-in-5G-PPP-phase-2.pdf>

5G Private Public Partnership (5G PPP). (2016) 5G-PPP White Paper on Media & Entertainment Vertical Sector, urtarrila. Hemen berreskuratua: <https://5g-ppp.eu/wp-content/uploads/2016/02/5G-PPP-White-Paper-on-Media-Entertainment-Vertical-Sector.pdf>

Eranskina. Oinarrizko definizioak⁹

Ikus-entzunezkoen sektorea

Barne hartzen dira zerbitzu audiobisualak (linealak eta eskariaren araberakoak), zinema eta publizitatea, eta balio-kateko eragile guztiak hartzen ditu; batez ere, ekoizpena, edizioa eta banaketa).

Hala ere, konbergentzia digitaleko prozesuaren ondorioz, ikus-entzunezkoen sektorearen irismena zabaltzen ari da eduki editorial, musikal eta ludiko digitalak (irratiko, zinemako, telebistako eta publizitateko edukiez gainera) sartu direnetik. Eraldaketa hori bereziki ari zaie eragiten ikus-entzunezko zerbitzuen emaileei, eta, batez ere, eskariaren araberako edukiak eskaintzen dituztenei. Hala, zerbitzu horietan zentzu zabalean hartzen da ikus-entzunezkoen sektorea, zenbait eduki-mota barne hartzen baitira eta negozio-ereduak eta sarbide-teknologiak partekatzen baitituzte.

Hala ere, ikus-entzunezkoen sektorea jarduerak etorkizunean duten bilakaeraren arabera eta, bereziki, sektoreko Europako politikek zehazten dituzten irizpideen arabera mugatuko dela jotzen da.

⁹ Oinarrizko definizioen glosario hau "Libre blanc de l'audiovisual a Catalunya"ko 3. eranskinaren euskarazko itzulpena da.

Zerbitzu audiobisualak

Ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzu linealak eta eskariaren araberakoak barne hartzen ditu:

- **Zerbitzu audiobisual linealak (ZAL):** edukien ordukako programazio batean oinarritzen diren irrati- eta telebista-emisioko zerbitzuak, zeinak banatu baitaitezke bai irrati-difusiorako (lurretikoa eta satelite bidezkoa) bai banda zabaleko sareetarako (finkoa eta mugikorra).
- **Eskariaren araberako zerbitzu audiobisualak (EAZE):** eduki audiobisualetarako (katalogokoak eta zuzenekoak) sarbidea eskaintzen duten zerbitzuak, zeinak eskatu egin behar baitira. Banda zabaletik (finkoa eta mugikorra) banatzen dira.

SVOD

Subscription video on demand akronimoa. Ordainpeko harpidetza baten bidez eskatzen den zerbitzu audiobisuala, zerbitzu-hornitzailearen katalogo guztirako sarbidea ematen duena.

AVOD

Advertising video on demand akronimoa. Eskaerapeko zerbitzu audiobisual doakoa; bideoetan publizitatea sartzean oinarritzen da haren negozio-eredua.

TVOD

Transaction video on demand akronimoa. eskaerapeko zerbitzu audiobisuala; erabiltzaileak ikusi nahi duen bideo bakoitza ordaintzen du.

Catch up TV

Telebista-zerbitzuen emaileek ematen duten eskaerapeko zerbitzu audiobisuala; denbora-tarte mugatu batez Internet bidez programazio-zerrendan sartu eta edukiak ikusteko aukera ematen du.

OTT

Over-the-top akronimoa. Hornitzaileak Internet bidez zuzenean erabiltzaileei eskaintzen dien eskaerapeko zerbitzu audiobisuala; ez da beharrezkoa telekomunikazio-operadoreekin akordiorik egitea.

ATAWAD

Any time, anywhere, any device akronimoa. Internet bidez nonahitik eskuratu daitezkeen zerbitzu audiobisualak. Hau da, edozein unetan, edozein tokitan eta pantaila duen edozein gailuren bidez eskuratu daitezkeenak.


Hegemoniarik ezetik

Jaume Ripoll

Hegemonikoak ez diren hizkuntzei buruz hitz egin dugu, eta goiz osoa daramagu horretan; ni hegemonikoa ez den plataforma bati buruz hitz egitera nator.

Filmin, ezagutzen gaituzuenontzat, duela 13 urte baino gehiago jaio zen, gaur egun oso onartuta dauden alternatibek posta bidez DVDak eta Internet bidez beste abesti batzuk alokatzen zituztenean. Gurean, aitzindariak izan ginen. Filmin Katalunian jaiotako konpainia bat da; Bartzelonan du egoitza, Madrilen eta Lisboan bulegoak ditu, eta Portugalen eta Mexikon ere eskaintzen du zerbitzua.

Irudiaren goiko aldeari erreparatzen badiozue, asmo globalak dituzten konpainia multinazionalak agertzen dira. Bokazio hegemonikoa duten konglomeratuak dira. Denak, gu izan ezik. Gu ipurmasailei buruz hitz egitera gatoz, ipurdiei buruz. Hemen



dauden ipurmasailak –pentsatzen dut aretoko zinemazaleenei ezagunak egingo zaizkizuela–, ipurmasail hauek Pasollinirenak ziren, haren aktoreenak. Ipurdi hauek Canterburyko ipuinetako ipurdiak dira. Agian, hemengo zaharrek edo hemengo perbertituek ezagutuko dituzue.

Pasollinik, Espainian, milioi bat ikusle baino gehiago izaten zituen zinema-aretoetan 70eko hamarkadaren amaieran. Baina ez berak bakarrik, baita Bergmanek, Rohmerrek eta Costa Gavrarek ere. Gaur egun, 40 urte geroago, erreleboa hartu dieten zuzendariak, asko jota, ikusle horren % 10era iristen dira zinema-aretoetan. Ez nator zinema hegemonikoaz hitz egitera, zinema ezberdinaz hitz egitera nator, erronka jotzen duen zinemaz hitz egitera nator, eta ez Europako Parlamentuak kulturarekiko betebeharra duelako entretenitzen zaituen zinemaz.

Pixka bat nekatuta nago europar zinema versus zinema amerikarra ideia horrekin. Barkatu, ez dago alderik; Europan zein AEBn daude huts egiten duten filmak. Europako zinema-mota bat defendatu behar badugu, ezberdintasuna, berezitasuna, aldarrikatzen duen zinema da, laztandu ez ezik jipoitu ere egiten zaituena. Hori da Filminen defendatu nahi dugun zinema, zinema garrantzitsua eta beharrezkoa.

Uste dut arazo nagusiaren aurrean gaudela, hau da, peripeziaren diktaduraren aurrean, eta peripezia soilik eskaintzen ez duen plataforma da, edo plataformak dira, estamentu publikoetan sustatu eta lagundu behar direnak. Baita, noski, hegemonikoak ez diren hizkuntzetan ere. Horixe gara gu gaur, funtsean zinemajaleak, ikusteke duen guztia irensten duen jendea, edonon eta edonola. Ez naiz zinemaren purista izango, eta ez dut esango filmak non ikusi behar diren; argi daukagu: nahi dugun lekuan edo ahal dugun tokian. Horrek hizkuntzak ere inplikatzeko ditu. Filminen 3.500 film luze ditugu katalanez, katalanezko azpitoluekin, eta 1.500 telesail-atal; beraz, 5.000 titulu ditugu katalan bikoiztuan edo katalanezko azpitoluekin. Euskaraz 37 ditugu.

5000 versus 37, zergatik? 2017an, Kataluniako Generalitateak, Santi Vila buru duen Kultura Kontseilaritzaren bidez, Filmin.cat-en ideiarekin alde egitea erabaki zuelako, katalanezko filmak eta telesailak ez ezik berezko ildo editoriala eta komunikazio-eta marketin-kanal propioak ere izango dituen plataforma bat. Eta, horri esker, gaur egun pribilegiozko posizio batean gaudela esan dezakegu, zinema ez-hegemoniko horrek milioi bat ikusle izan baititu Katalunian azken hilabeteetan. Zifra errekorra da guk eskaintzen dugun edukirako.

Guk ez dugu Giocondarik, ezta Veronésen¹ Kanako ezteirik ere, Louvreko museoak bezala, eta badakizue zer den hori. Gaur egun ikusleak mugiarazten dituzten bi aktibo nagusiei aurre egin behar diegu guk: nostalgiari eta berritasunari. Oinarrian, gure bi motorrak dira. Gu ez gaude Veronés eta Da Vinciren arteko Louvreko borroka horretan; gu Louvreko bosgarren solairuan gaude. Gu eta gurekin daudenek egiten dituzten filmak. Mundu osoko jaialdietan irabazi duten film inportatuak. Nola lortuko dugu hor geldituko ez diren eta bosgarren solairura etorriko diren ikusle nahikoak egotea? Filmak ikustera joaten direnak, baina ez ikusi dituztela esateagatik. Aurkitu egin dituztela eta partekatu egin nahi dituztela esateagatik baizik. Hori da gakoa. Jendea errepikapenaren eta ospearen arabera mugitzen den ikusle-mundu honetan, garrantzitsua da beste gauza batzuen balioaz jabetzea. Eta horiek dira Filminen erakutsi nahi ditugun balioak. Izozkia liburuaren aurka. Nik Kurosawaren 15 film ditut, baina, azkenean, *Stranger Things*² ikusiko dut. Hori da, hain zuzen ere, ikusle askok duten edo guk guztiok izan dezakegun elikadura kultural gastronomikoaren dilema. Bada, ongi da. Ez dugu igarotzen egun osoa izozkiak jaten; ez dezagun igaro egun osoa izozkiak diren film eta telesailak ikusten.

¹ Paolo Cagliari, XVI. mendeko italiar margolaria, Paolo Venonese izenez ere ezaguna, Veronakoa izateagatik. Koadroa Giocondaren aurrez aurre dago zintzilik.

² Netflixek ekoiztutako suspensezko seriea.

Lau elementu hartu behar ditugu kontuan, hizkuntza-aniztasunaz eta hemen aipatu diren arazoez hitz egin nahi badugu. Bat eskubideen gaia da; ez naiz hasiko hitz egiten Interneten zine-eskubideen munduak duen konplexutasunaz. Filminen 14.000 film inguru ditugu, eta asko dira, batzuentzat existitzen diren plataforma bakarrak diruditen horietako askorenak baino askoz film gehiago... Herrialde honetan Mr. Marshall sindromea dugu, eta ondo legoke hura une batez gainetik kentzea. Beraz, eskubideez hitz egiteko, garrantzitsua da zenbait gauza bereiztea. Hemen Merlí³ eta TV3 edo IB3ko erreferentzia izan diren beste telesail batzuk aipatu dira, *Treufoc*⁴ eta *Mai neva a ciutat*⁵ kasurako. Filminen ere publiko berria lortu duten telesailak dira. Bat, gaztelaniaz azpitolatuta daudelako, eta, beraz, gaztelaniazko azpitoluak dituzten telesail katalanak Estatu osoan ikusi ahal izatea lortzen dugulako; eta, bi, horrek aukera ematen digulako publiko potentziala zabaltzeko.

Filmek katalanez eta gaztelaniaz azpitolatzen du ikusten dugun guztia, eta urtean 55-60 serie inguru ikusten ditugu. Beraz, astean telesail bat, gutxi gorabehera: *Los Durrell*⁶ eta *Ms. Willson*⁷, adibidez, Erresuma Batuan ikaragarriko arrakasta izan duten serieak, 10 milioi ikuslerekin; eta Norvegiar edo Danimarkar ikaragarriko arrakasta izan dutenak, esaterako, *Home Ground*⁸ edo *Lykkeland*⁹.

Beste elementu garrantzitsu bat filmen estreinaldiena da; hau da, zinemak plataformetan duen ikusgarritasuna. Nork zaintzen du zaindaria? Inork ez.

Anekdotak bat gogoratzen dut. Barak Obama AEBko presidentetzara iritsi zenean, bere buruari galdetu zion nola pasatu ahal izan zitzaien subprime hipoteken gaia banku-erregulatzaileei, eta zergatik jo zieten adarra erregulatzaileei hainbeste denboran. Funtsean, bankariek haiek ikuskatu behar zituztenek baino 15 aldiz gehiago kobratzen zuten; beraz, normala da ikuskatu behar zutenek ez izatea bankariek zuten ahalmena. Areto honetan benetan norbaitek sinesten badu Europar Batasuneko norbait gai izango dela, bat, Netflix, Amazon edo HBOren gomendio pertsonalizatuko algoritmoa ulertzeko, eta hartan oinarrituta Europako tituluaren gortetasuna ulertzeko, bada ETK ere ez luke halako inozentziarik izango; hori ez

³ Katalanez ekoiztutako telesaila, TV3k 2015 eta 2018 artean emandakoa. Publiko gazteari zuzenduta dago, eta filosofiako irakasle berri bat bigarren hezkuntzako institutu batera iristearen ondorioak kontatzen ditu. EITBk euskarara bikoiztuta eman du ETB1en.

⁴ Mallorcako IB3 telebistak 2017 eta 2019 artean ekoiztutako polizia-telesaila.

⁵ IB3k 2017tik aurrera ekoiztutako telesail komikoa.

⁶ ITVk ekoiztutako serie britainiarra. 4 denboraldi ekoizti dira 2016 eta 2019 artean.

⁷ 2018an ekoiztutako telesail dramatiko britainiarra.

⁸ Kirolari eta feminismoari buruzko serie norvegiarra, 2018tik aurrera ekoiztutakoa.

⁹ Norvegiako telesail dramatikoa, 2019an ekoiztia (*Zoriontasun-garaia*; *State of Happiness*).

da gertatuko. Ez da gertatuko, pentsaezina da. Bat, hori ez da gertatuko. Bi, % 30 Europako tituluak izateari buruz hitz egiten dugunean¹⁰, dagoeneko betetzen dute, ez dago arazorik, nazioarteko plataformei Europako tituluak interesatzen zaizkie. Netflixen arrakastaren oinarrietako bat Europako tituluak dira. Zergatik? Tokian-tokian indartsuak izan direlako. Serieak hala dira. Lehen, Europako tituluak buruz hitz egiten genuen. Bai, noski, Europako zein titulu? Oso ondo dago ekoizlearen ikuspegitik, baina, kulturaren ikuspegitik, Europako Parlamentutik, hemen jada beste gauza batzuei buruz hitz egin genezake. Beti beteko dute, haientzat askoz errazagoa baita lurralde bakoitzean indartsu egotea, horrek aukera ematen baitie marka bat izateko. Hemen Estatuko telebistetan ikusi dugu denbora luzez. Ez nuke sufrutuko % 30 horregatik, hizkuntza ez-hegemonikoen presentziagatik sufrutuko nuke.

Eta azkenik, bada gauza garrantzitsu bat, katalogoaren asuntza, hain zuzen ere. Eta hor dator materialetarako sarbidea. Bi maila daude: azpitolatzea eta bikoizketa, funtsean. Azpitolatzearen arazo bat dugu gure lurraldean; jende askok bost aldiz edo azpitolatzen ditu filmak, zergatik? Jaialdiek ez dituztelako azpitolatzen partekatzen. Imajina ezazue, Donostiako jaialdiak 400 film azpitolatzen ditu. Azpitolatu horiek eskuratzeko, berriro ordaindu behar da ICACek, Eusko Jaurlaritzak, edo auskalo zeinek dagoeneko diruz lagundu dituen film horien truke. Hori arazo bat da. Bi, materialak, bikoizketak. Inork ez du bere gain hartu nahi kate autonomikoen hizkuntza ez-hegemonikoetan egindako bikoizketa zaharrak digitalizatzeko kostua. Horren ondorioa: bikoizketa horiek ez aurrera ez atzera gelditzen dira.

Hori dela eta, liburutegiek, berritasuna bezain garrantzitsuak diren katalogoek, benetako arazoa dute material horietara sartzeko. Eta beste arazo bat epeak dira. Beti miresten ditut argitaletxeen munduko nire kideak, liburuen edizioak 6 hilabetera, urtebetera, planifikatzen baitituzte. Guk bi astera planifikatzen ditugu merkaturatzeak. Gaur goizean, atzo iritsi zitzaigun telesail bat estreinatu dugu. Hori da gure inprobisazio-maila, hala da egunero; ostegun-gauetan lo gutxi egiten dugu Filminen, eta ez parrandan ibiltzen garelako, zoritxarrez. Eta hori diot, materialak prestatzeko denbora gutxi dugulako. Ez dugu denbora gehiago. Ez dugu astirik guk nahi adina hizkuntzatan bikoizteko, edo hizkuntza gehiagotan azpitolatzeko. Kasu

¹⁰ 2018ko azaroaren 14ko 2018/1808 (EB) DIREKTIBA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2010/13/EB Direktiba aldatzen duena.

«13-1. artikulua: Estatu kideek zainduko dute beren jurisdikziopeko nahierarako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaleek beren katalogoen % 30 behintzat Europako lanekin osatuko dutela, eta lan horien nabarmentasuna bermatuko dutela.»

zehatzago bat, esate baterako, Home Ground da. Telesail hori bertsiio ofizialean estreinatu genuen, eta asteak pasatu ahala bikoiztu dugu.

Eta, azkenik, garrantzitsua da telesailak, filmak eta edukiak ikusteko gailuak hitz egitea, eta ez eduki horiek ikusten diren moduagatik bakarrik; berriro diot, ez naiz formatuaren purista, izan beharko nukeen arren, aukeraketaren purista baizik. Zenbat denbora igarotzen dugu azkenean ikusiko duguna aukeratzeko? Zenbat klik aukeratu aurretik? Zenbat klik egiten ditugu zer ikusiko dugun zehaztu arte? Gailuaren arabera, gehiago edo gutxiago izango dira. Eta hori garrantzitsua da, berriro diot, eskaintzen dugun hori ez bada berritasun eta nostalgiaren duopolio horretan inskribatzen. Eta garrantzitsua da hori kontutan hartzea. Tituluak aurkitu nahi badituzu, funtsezkoa da nola nabigatzen duzun jakitea; Louvreko bosgarren solairura iritsi nahi baduzu, nola egingo dugu Giocondaren aurreko selfiearekin soilik gera ez daitezen. Hori da Filminen izan dugun gakoetako eta arrakastetako bat. Gailu bakoitzerako aplikazioak sortu ditugu; ez du inolako zentzurik webgunean bakarrik dagoen plataforma bat egiteak. Garatzaile batzuentzat tentagarria da: «eskualdeko gobernuren baten diru-laguntzaren bat lortuko dut. Plataforma bat egingo dut webgunean; 18 pertsonak eta 15 lagunek ikusiko dute. Eta, hortik aurrera, egin dudala esango dut eta dirulaguntza kobratuko dut. Garatzaileari % 60 ordainduko diot. Nik % 30 hartuko dut, eta % 10 Royaltietan emango dut. Eta bi urte barru plataforma hori hilda egongo da». Gaur egun, web-orri bat merkaturatzea pentsatzen badugu, soilik webean, zuzenean 1943an pentsatzen ari gara. Filminen, gaur egun, % 42-43 Smart TVetan kontsumitzen da, Smart TV desberdinetan. Weben beharera doa; urte-amaieran % 30ean egongo gara. Eta gainontzekoa tableten eta mugikorren artean banatzen da.

Marketina, beste giltzarri bat. Filminen, geure kanala dugu Twitterren, eta geure Facebookeko kontua, katalanez kasu honetan. Bere garaian, euskarazko hurbilketa bat egiten saiatu ginen, baina Eusko Jaurlaritzari ez zitzaion interesatu Filmin euskaraz egitea. Hori da errealitatea. Nahiago nuke noizbait hori egin ahal izaterik bagenu.

Baina uste dut garrantzitsua dela zuek ulertzea, era berean, hizkuntza ez-hegemonikoak defendatzen ditugunean zinema ez-hegemoniko hori defendatzen dugula, eta horra itzuliko naiz behin eta berriz. Nekatu samar bainago. Lehen, Enric Marínek Europako Netflix buruz hitz egin du. Europako Netflix ez da inoiz gauzatuko, hainbat arrazoigatik. Bat, Netflixek oso bokazio zehatza duelako, oso argia. Plataforma independenteen Europako Netflix bat egiteko ideia hori... ni Bruselan egon naiz Parlamentuan eztabaidatzen. Filmin Europako plataforma onena

izendatu dute urte askoan, eta esan didate «Zergatik ez duzue Europako Filmin bat egiten? 13.000 film dituzue, arrakastaren eredu izan zarete, Europako beste edozein harpidetza-plataformak baino harpidedun gehiago dituzue. Zergatik ez zarete Europara joaten?» Oso zaila da hori egitea; zuk James Bond modu berean sal dezakezu Europako herrialde guztietan, baina akatsa zera da, Haneke, Von Trier, Almodovar, edo Carlos Vermut Europako herrialde guztietan modu berean saltzen saiatzea. Herrialde bakoitzak marketin bat egin behar du, lan berezi bat; gauza generalista bat egiten baduzu, ia inori interesatuko ez zaion gauza bat bihurtuko da, eta oso garrantzitsua da eskualde bakoitzaren, estatu bakoitzaren, herrialde bakoitzaren espezifikotasuna. Hori alde batetik.

Gure azitia ez da Harry Potter; George Melies da Filminen dugun magoa. Oso garrantzitsua da zinemaren ondare europarraren ideia hori lantzea, eta zuek guztiok gonbidatzen zaituztet. Hori defendatzen duzuenean, defenda ezazue hizkuntza, defenda ezazue, halaber, hizkuntza horretan hitz egiten dela, hizkuntza horretan zer kalitaterekin hitz egiten den, eta zer esaten den gauzak hizkuntza horretan kontatzen direnean. Eta hortik dator Filminen garrantzia eta ekoizpen propioen garrantzia. Guk beste edozein plataformak baino lehenago egin genituen film propioak TV3rekin koprodukzioan, eta beste konpainia batzuekin. Sábado Peliculasekoak¹¹ VOD plataforma batek bere herrialdean egindako lehen filmetakoak izan ziren, katalana eta gaztelania nahasten zituzten filmak; beraz, biak zeuden bertan, eta guk urteetan egin ditugun gainerako koprodukzioek katalana eta gaztelania uztartu dituzte, eta, kasu batzuetan, ingelesa ere bai. Ojos negros film katalana da, osoki gazteleraz filmatua, Aragoi girotua. Filminen apustua oso argia da. Katalanaren defentsa, konpainia katalana garelako, baina euskara eta galiziera ere izan litezke. Galizieraz 115 film ditugu, euskaraz baino apur bat gehiago. Imajinatu zein den maila. Katalanezko 5000rekin alderatuta. Baina, batez ere, Filminen apustua zera da, zinema hori defendatzen saiatzea. Eta, horretarako, ezinbestekoa dugu gobernuak apustu sendoa egitea bai hizkuntzaren alde eta baita ikasgeletan ikus-entzunezko hezkuntza ematearen alde ere.

Gaurko nerabeek gaurko edukiak non ikusten dituzten aipatu dugu lehen. Baina gaurko eta biharko nerabeek atzokoek bezalako pelikulak ikusten jarraitzea nahi badugu, garrantzitsua da hezkuntza-lan bat, eta hori ere denon artean egin behar dugu. Hizkuntza bai, hezkuntza ere bai.

Telebista autonomikoekin, elkarrizketa eta elkarlana areagotu behar dira. Filmin ez da inoren etsai. Filmin ezta zinema-aretoen etsai ere; bukatu da mundu digital honetan pentsamendu bitarra izatea. Onen eta txarren mundua. Ez. Aliatuak egon behar dute, eta hemen denok ari gara zerbait defendatzen. Ikus-entzunezko onaren lurralde komun horren defentsan.

Hiru, norbaitek lan egin behar du. Diru publikoa behar da datu-baseak sortzeko, eta azpidazteko eta bikoizketarako sarbide erreala egoteko. Izan ere, beste plataformamota batzuk egon daitezke, prestakuntzakoak izan daitezkeenak; bada, jakin dezatela zer bikoiztu den eta zer erabili den –berriro diot, diru publikoarekin, eta hori gauza garrantzitsua da–.

Laugarrena, ez dago hemen. Uste dut garrantzitsua dela hau ere: autonomia-erkidagoetatik, gobernu nazionaletik edo Europatik dirua jaso duten film guztiak Europako herritarren eskura jarri beharko liriateke denbora bat igaro ondoren. Bi edo hiru urtera, ordainpean edo doan, bide batetik edo bestetik, eskuragarri egon beharko lukete. Ordaindutako, zuek guztiok batera finantzatutako, film asko daude, eta ez daude eskuragarri, ez Filminen, ez ordainpeko beste plataforma batzuetan, ezta YouTubeen ere. Ekoizlea bera ez da filmaz gehiago arduratzen, nekatuta dagoelako, edo dena delakoagatik. Eta hori arduragabekeria bat da, eta administrazioek eragotzi egin beharko lukete nolabait.

Eta bosgarrena, komunikabideak. Clickbaitetik bizi garen mundu honetan, beharrezkoa da hedabideen konplizitateak iratzartzea, berehalako itzuleraz harago. «Klick-amu» izatetik urrun gaudenok, eta zinema egin nahi duzuen zuetako asko, hortik kanpo egongo zarete ziurrenik, eta komunikabideekin batera lan egin behar dugu, daukazuen hori erakargarri egiteko. Duzuen produktu hori, duzuen film luze hori. Bestela bai izango direla hegemonikoak konpainia horiek. Eta une horretan, zalantzarik gabe, desberdintasunarekiko erabateko desinteresa egongo da.

Eskerrik asko.

¹¹ Zinema ekoizten duen konpainia.

Katalanez, mesedez! katalanezko multimedia itzulpengintzaren iragana eta etorkizun-premia

Laura Santamaria

Artikulu honetan, lehenik, katalan hizkuntzak bikoizketaren arloan zer presentzia izan duen azalduko dugu labur-labur; hastapenak, adibidez, zapuztu egin zituen erregimen frankistak, katalana erabiltzea debekatu baitzuen. Bigarrenik, hizkuntza-eta politika-normalkuntzan zeuden helburuak hobetu zitzaketen erabakiak noiz hartu ziren nabarmenduko dugu. Hirugarrenik, proposamen argudiatu bat egingo dugu, ikus-entzunezko lanen katalanezko itzulpenek orain arte beren lekua aurkitzeko zailtasunak izan dituzten arloetara –bideo-jokoetara, adibidez– zabaltzearen alde. Eta, azkenik, katalan hiztunek Eskaripekobideo-plataformak (VoD) katalanez erabiltzeko duten eskubidearen gainean hausnartuko dugu. Gogoeta horiek,

katalanari buruzkoak diren arren, antzeko egoera soziopolitikoan dauden beste hizkuntza batzuetara zabal daitezke.

Katalanezko bikoizketa. Datu garrantzitsuak eta ezarpen-eremuak

Katalanezko bikoizketa, egia esan, bikoizketa berarekin batera hasi zen ia-ia. Zinema soinu-duna sortu zenean, Hollywoodek bertako ekoizpenak Europa eleaniztuneran helarazteko estrategiak bilatu behar izan zituen. Garai hartako murrizketa teknologikoak zirela eta, ez zen kontu erraza. Hasiera-hasieratik bi modu aukeratu zituzten: bata, azpitoluak itzultzea; eta bestea, bikoizketa. Azpitoluak jartzeak zailtasun tekniko ugari gainditzea eskatzen zuen eta, gainera, ez zen konponbide egokiena, biztanle analfabeto asko baitzeuden. 1930ean, Edwing Hopking-ek bikoizketa asmatu zuen. Gaztelaniara bikoiztutako lehen filma Luther Reed-en *Rio Rita* (1929) musikala izan zen. Aukeratu zuten hizkuntza-ereduari "gaztelania neutroa" deitu zioten, eta asmoa zen gaztelaniaz egiten zuten herrialde guztiak barne hartzea. Bikoizketa 1930eko apirilean estreinatu nahi izan zuten Bartzelonako Tivoli zinemaren, baina arazoak izan zituzten soinu-ekipamenduekin eta, azkenean, azpitoluekin eman zuten (Montero, 2017). Katalanezko bikoizketaren abentura urte gutxi batzuk geroago hasi zen, 1933an, *Bric-à-brac et compagnie* (Purtzileria eta antzekoak) filmarekin; izenburua honela itzuli zuten: *Draps i ferro vell* (Trapuak eta burdin zaharra). Lan hori ikusgai dago oraindik Interneten. Bikoizketa kalitate duinekoa zen eta egindako aukera linguistikoa egokia. Urte asko itxaron behar izan genuen katalanera itzultitako filmak berriz ikusteko. Diktaduraren ondoren, David Lynch-en *Elephant man* (Elefante gizona) izan zen katalanez eman zuten lehen filma, Printzerrian, hain zuzen ere. Handik oso gutxira, 1981ko uztailearen 16an, *El País* egunkarian hau argitaratu zuten:

Elephant man filmaren katalanezko bertsioak izugarritzko arrakasta izan du. Bartzelonan, bi zinema-aretoetan eman dute gaztelaniaz eta katalanez, aldi berean, eta katalanezkoak heren bat ikusle gehiago erakarri du. Hori dela eta, Generalitateko Kultura Saila beste film komertzial baten bikoizketa prestatzen ari da.

Sail horretako zinema-zerbitzuen hasierako proiektua da hiru hilez behin film komertzial oso erakargarri bat bikoiztea, banatzaileek lan hori beren gain hartzen duten arte. Izan ere, emaitza komertzialak oso onak dira.

Urrutiko intxaurrak, ordea, gerora batere ez. Izan ere, bikoizketa hark arrakasta iragarri zuen arren, gaur egungo egoera oso bestelakoa da.

1983an, TV3 jarri zuten martxan. Hedabide berriak katalanera bikoiztuta eman zuen lehen filma *Zulu Dawn* (Egunsenti zulua) izan zen. Gaur egun, Ikus-entzunezko Hedabideen Korporazio Katalanaren hizkuntza-atariko datu-basearen arabera, katalanera bikoiztutako 12.765 lan daude, Kataluniako Telebistan (Televisió de Catalunya) eta zinema-aretoetan emanak.

Kataluniako Telebistak zer hedabide-mota izan nahi zuen adierazten duten bi lanik garrantzitsuenak dira, batetik, *Dallas*, zeina 1983an bertan ematen hasi baitziren; eta bestetik, *Dragoi Bola*, telesail entzutetsu bihurtua haur eta gazteentzako ordutegian, 1990ean ematen hasi zirenetik. 80ko hamarkadan erdialdeko katalana hobetsi zuten, gainerako katalan-aldaeren kalterako, baita Printzerriko aldaeraren kalterako ere. Aldi berean, behe-erregistroak erabiltzea erabaki zuten. Horren adibide da "Sue Ellen, ets un pendó" (Sue Ellen, mari-purtzil hutsa zara) esaldi ospetsua (https://www.ara.cat/media/Sue-Ellen-pendo-frase-JR_0_816518487.html). *Dallas* telesailaren pasarte batean entzun genuen behinola, eta egunkarietan agertzen jarraitzen du TV3en aukera linguistikoaren paradigma gisa. *Dallas* telesailaren asmoa zen katalanezko telebista ikusle-mota guztiak ikustea. Halaber, *Dragoi Bola* telesailarekin haur eta gazteentzako katea gazteria katalanaren erreferentziazko kate bihurtzea lortu zuten. Adin-talde jakin batentzat mitiko bihurtu ziren beste telesail batzuk ere bikoiztu zituzten. Asmoa zen adin-segmentu bat katalanezko telebistarekin fidelizatzea, gerora ere katalanezko ikus-entzunezkoak aukeratu zituzten. Aurrerago hitz egingo dugu gazteak fidelizatzeako ideia horretaz, eta azalduko dugu zergatik ez den lortu gazteek ikus-entzunezko ekoizpenak katalanarekin lotzea.

Beste egun garrantzitsu bat 1989ko apirilaren 5a izan zen: Irrati eta Telebista Autonomikoen Erakundearen Federazioa (FORTA) sortu zuten, eta Kataluniako Telebistak aurrerapauso ekonomiko handia eman zuen ikus-entzunezko ekoizpenak erosteko lehian.

2005ean Kataluniako Bikoizketa Zerbitzua sortu zuten. Ikus-entzunezko Hedabideen Korporazio Katalanak azaldukoaren arabera, zerbitzu hori sortzearen asmoa zen bikoizketa telebistara eramatea, DVDen bitartez, Kataluniako Telebistak eskaintzen zituen ekoizpenez harago. Teknologia hura zaharkitu egin zen eta, beraz, jarduera hark urte batzuk baino ez zuen iraun:

Ekintza horri esker, filmen merkataritza-ustiapenaren bigarren fasean (DVDak) eta telebistara heldu aurretik, katalanezko bertsioa ikusgai egongo da, eta gero eta garrantzi handiagoa duen merkatu horren egoera normalizatu egingo da (<https://www.ccma.cat/tv3/La-CCRTV-posa-en-marxa-el-Servei-Catala-del-Doblatge/noticia-arxiu/188058347/>).

Kataluniako Telebista sortu zenetik eta katalanezko bikoizketari berriz ekin zitzaionetik, hedabideetan katalana erabiltzeko amets asko ezerezean gelditu da.

Urte hauetan katalanez komunikatzeko eremu komun bat eratzea espero genuen, hizkuntza indartuko zuen eta aldaera guztietako hiztunek partekatuko zuten eremu bat. Baina katalanezko telebistek zatikatuta jarraitzen dute, programazioa autonomia-erkidegoan baino ez baita ikusten. Beste batzuen programazioa eskaintzeko garaian bikoizketaren aldeko apustua egin genuen, eta ez azpigituluen aldekoa. Orain, ordea, entzule berriak daude. Gazteek atzerriko hizkuntzak gehiago ezagutzen dituzte, eta gustuak ere aldatu egin dira, beharbada sarean egiten dutenagatik (bideo-jokoetan ibiltzen dira eta *youtuber* eta *influencer* bihurtzen dira edo haien jarraitzaile dira). Ikusle autonomo mota berri horiek era askotako hizkuntza- eta eduki-premiak dituzte, baita aukeraz beteriko mundu birtual bat ere, haien ikus-entzunezko nahiak asetzeko.

Uste genuen hizkuntza-ereduak estandar komun bat behar zuela eta, aldi berean, egiantzekoa izan behar zuela, jendeak katalanezko programazioa natural ikus zezan. Errealitatea, berriz ere, bestelakoa da. Ikusleek katalanez sortutako programazioa nahiago dute, gertukoagoak diren eta batzuetan araudian jasota ez dauden esamoldeak erabiltzen direla sentitzen dutelako. Hala eta guztiz ere, bikoizketako hizkuntza-eredua erregistro berriak gehitzen joan da, Katalan Ikaskuntzen Institutuak onartu dituen heinean.

Erabaki zuten ikusleak kanpoko programen bidez erakartzearen aldeko apustua egitea. Hitz egin dugu *Dragoi Bolaz*, baina gazteentzako beste programa batzuk ere arrakasta handia izan zuten, *Shin Chanek*, adibidez. Orain, gurean ekoiztutako telesailak jo behar dugu (*Merlí* eta *Les noies de l'hoquei*, adibidez), eta Eskaripekobideo-plataformetan aurkitzen ditugu katalanezko ikus-entzunezkoak, Netflixen, adibidez.

Biztanleen gustuak aldatu egin dira pixka bat, eta horrelakorik ez zegoen aurreikusita. Baina, aldi berean, ikus-entzunezko merkatuak, bilakatzen joan den eran, administrazioa alde batera utzi du neurri handi batean. Katalanaren erabilerari

dagokionez, ez dugu gazte-talde homogeneous, kolektibo horrek inoiz baino hizkuntza gehiago dakizkielako. Alde batetik, ingelesa ikas zezaten egindako ahalegina mamitzen joan da; eta beste alde batetik, katalanaz eta gaztelaniaz gain beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzten familietan bizi dira. Izan ere, XXI. mendearen hasieran, hizkuntza-ezagutza oso desberdinak zituzten etorkin-kolektibo berriak heldu ziren Kataluniara. Azpimarratu beharra daukagu olgetaren kontsumoan ikusleek beste bitarteko batzuekin ordezkatu dituztela ohiko kateak, eta gazteek, batez ere, formatu berriak bilatzen dituztela, Youtube eta bideo-jokoak, adibidez.

Lange-k (2012) ohartarazi zuen irrati-difusioko erakundearen erroka zela pantailetan (telebistan, ordenagailuan eta sakelako telefonoan) batera eta modu koherentean agertzea lortzea, eta, aldi berean, programazio klasikoak eta Eskarriepkobideoak ikusi ahal izateko katalogoak sustatzea. Paradigma-aldaketa hori, hain zuzen, gertatu da. Izan ere, Caballero eta Jariod-en arabera (2017), Eskarriepkobideoek % 172 egin zuten gora Europan 2010etik 2015era. Kataluniako Telebistak, 2014ko abendutik, "3alacarta" zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzu horri esker, Internet bidez ikus daitezke, noiznahi eta kalitate handienarekin, Kataluniako Telebistako programa asko eta erakundearen kateetako bertako ekoizpenen programazioa zuzenean, banda zabaleko konexioen bitartez (<https://www.ccma.cat/324/3alacarta-el-nou-servei-que-permet-veure-des-dinternet-els-videos-de-tvc/noticia/81415/>). Ordea, bertako ekoizpenak baino ez ditu eskaintzen eta, beraz, bikoizketa eskaintza horretatik kanpo geratzen da.

Halaber, katalanezko kateetan fikzio oso gutxi dago. Besalú-ren arabera (2017), 2015ean, TV3en emanaldien % 23,5 izan ziren fikziozkoak, eta 8TVn emanaldien % 25,1. Argi dago, beraz, kopuru horiek bikoizketari aukera gutxi ematen diotela, are gutxiago pentsatzen badugu gero eta bertako ekoizpeneko lan gehiago daudela, aurrerago ikusiko dugun moduan. Hori guztia ikus-entzunezko edukien kontsumoa aldatu egin den garaian: lehen "zer ematen ari dira orain" esaten genuen, eta gaur egun, berriz, "zer ikusi nahi dut orain" (Domènech 2017).

Aldera ditzagun datu horiek ekoizpenen jatorriarekin. Besalú-ren arabera (2017, 153):

Telebista katalanek 2015ean eman zituzten lanak eta emankizunen-zerrendan izan zuten pisua (...), TV3en izan zuten ekoizpen katalanek presentzia gehien (% 81,5), eta haren atzetik zetozen 33 katea, Esport 3, 8TV eta, azkenik, Super3; hori guztia Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren (CAC) datuen arabera. Super3 kateak eskaini ziren denbora gehien lpar Amerikako eta beste herrialde

batzuetako programei, batez ere japoniarrei, haurrentzako animazio-telesailak ematen baititu gehienbat. Orobat, 8TV katea izan zen Espainiako gainerako erkidegoetan egindako programei denbora gehien eskaini ziena; eta, aldez, programa katalanek emisio-denboraren erdia baino gutxiago hartu zuten.

Halaber, bikoiztu daitezkeen lanen kopurua izugarri jaitsi da. Izan ere, Kataluniako Telebistaren Eskarriepkozerbitzuan ez da kanpoko lanik eskaintzen eta, beraz, lanak bikoiztu arren, ezin dira berriz erabili, baldin eta ez badira berriz programatzen Kataluniako Telebistaren edo beste hedabideren baten bitartez.

Ikuspegi zabalagoa izateko, ezinbestekoa da alderatzea ohiko telebistan bikoizketak izan duen beherakada eta sarearen erabilerari buruzko datuak:

1. irudia. Vidal Villoria (2017)

Interneteko zerbitzuen erabilera azken hilabeteen Katalunian (2016)

	Biztanleria osoa	14-19 urte	20-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urte eta gehiago
Berehalako mezularitza	95.1	97.0	97.5	97.5	96.9	94.3	93.0	89.7
Informazioa bilatzea	88.8	93.3	92.2	93.2	91.1	88.1	84.0	80.5
Posta elektronikoa	79.3	83.6	89.1	85.1	82.4	78.5	72.4	66.8
Bideoak ikustea	72.7	87.2	87.9	83.0	77.2	68.8	59.2	54.5
Gizarte-sareak	61.9	81.0	82.5	74.8	65.5	55.4	47.1	42.2
App mugikorak	61.5	72.3	74.4	68.0	64.6	58.6	53.2	47.8
Gaurkotasan-albisteak irakurtzea	55.4	53.0	59.8	59.6	57.8	56.1	50.5	49.0
Musika entzutea	38.0	56.5	58.3	52.4	40.1	30.7	23.3	20.9
Banku-eragiketak	32.5	19.6	29.6	36.4	37.6	35.5	30.5	25.3
Telesailak/filmak ikustea	32.4	45.1	50.1	42.1	35.0	26.7	19.6	20.3

Iturria: guk geuk egina, EGM Baròmetre Catalunya elkartearen datuak oinarritzat hartuta (2016).

Oharra: galdeketearen oinarria aurreko hilabeteen Internet erabili duten erabiltzaileak dira.

Irudi horrek berresten du edozein adineko ikusleek "zer ikusi nahi duten" aukeratzen dutela. Dena den, telesailak eta filmak ikusten dituzten 14 eta 19 urte arteko gazteen kopurua 65 urtetik gorakoaren halako bi da. Eta azpimarratu beharra

daukagu 14 eta 19 urte artekoan taldean aukera hori egiten duten ikusleen kopurua batezbestekoa baino % 13 handiagoa dela.

Netflix 2015eko urriaren 20an jarri zuten martxan Espainian, eta eskura izan genuen Eskaripekobideoen lehen plataforma izan zen. HBO, berriz, 2016ko azaroan heldu zen. HBO gai zen Netflixekin lehia egiteko, FORTAko telebista publikoak ez bezala.

Gaur egun, La Xarxa erakundea baino ez da hasi Movistar-en 150 kanalean igortzen (Gertuko 29 telebista eta tokiko 150 irrati daude La Xarxan), eta 2017tik Betevé-k ere badu kanal bat Movistar Plus-en.

Oso zaila izan zen katalanari ikus-entzunezko mundu ez-digitalean leku egonkor bat aurkitzeko helburua betetzea, eta gero eta zailagoa da, gaur egun, presentzia hori ziurtatzea ingurune berrietan, are gehiago ikusleek duten eta garai batean imajinaezina zen ekintza-askatasunarekin. Agerikoa da hizkuntza minorizatuek ezinbestekoa dutela, estatu baten babesik ez badute, laguntza nahikoa jasotzea. Baina, nora bideratu behar dira dirulaguntza horiek? Ezin dugu ahaztu baliabideak mugatuak direla. Nola aurreikusi dezakegu zer erabakik izango duten etekin gehien ikusleriari dagokionez?

Aldaketaren aldeko zifrak

Ikusi bezala, ikus-entzunezko produktueterako sarbidea baldintzatzen duen ingurune berri batean gaude eta, beraz, katalanaren erabilera sustatzeko neurri administratibo berriak behar ditugu. Alde batetik, ekoiztetxeek eta banatzaileek katalanera bikoizteko errezeloak dituzte, nahiz eta araudiak behartu egiten dituen (1/1998 Legea, urtarrilaren 7koa, Hizkuntza Politikakoa; 7/1983 Legea, apirilaren 18koa, Hizkuntza Normalizaziokoa; 20/2010 Legea, uztailaren 7koa, Kataluniako zinemari buruzkoa). Eta beste alde batetik, telebistak dagoeneko ez dira ikus-entzunezko munduan sartzeko pantaila bakarrak, eta gero eta ikusle gehiagok bilatzen dituzte hizkuntza-konbinazio desberdinak, bikoizketaz harago, nahi duten edukia ikusteko.

Administrazioak aldatzen joan dira katalanezko bikoizketarentzako dirulaguntzak, 2. irudian ikusten den moduan. 2017ko Hizkuntza Politikako Txostenaren arabera (<https://llengua.gencat.cat/web/.content/documents/informepl/arxiu/IPL-2017.pdf>), bikoizketarako dirulaguntzak honela banatu zituzten:

2. irudia. Hizkuntza Politikako Txostena (2017).

- **TVck 958 programazio-ordu bikoiztu ditu katalanera:**
 - Animazioa: 479 ordu.
 - Zinema: 207 ordu.
 - Telesailak: 157 ordu.
 - Dokumentalak: 115 ordu.
- **TVck bikoiztutako 1.306,36 ordu utzi dizkie beste telebista-zerbitzu batzuei:**
 - Filmin: 686,03 ordu.
 - IB3: 305,50 ordu.
 - Selecta Vision: 114,09 ordu.
 - TD8: 109,05 ordu.
 - IMPS: 51,36 ordu.
 - Betevé: 28,35 ordu.
 - Reel One: 6,12 ordu.
 - Era Cinematogràfica: 3,32 ordu.
 - Adremalynmedia: 2,14 ordu.

Datuak aztertuz gero, ikusten da animazioak jaso zuela diru gehien. Hau da, laguntza ikusle gazteen programetara bideratu zen batez ere, beharbada katalanez fidelizatzeke itxaropen zahar harekin, nahiz eta jakin Eskaripekobideoak gazteek ikusten dituztela gehien.

Azpirarratzekoa da, gainera, Kataluniako Telebistaren programazioko bikoizketa-orduak berriz aprobetxatzen saiatzen direla eta, horretarako, laga egiten dituztela beste kate batzuetan emateko.

Filmin-i (<https://www.filmin.cat>), adibidez, 600 ordu baino gehiago eman zizkieten; plataforma hori "katalanezko zinema eta sailen katalogo bakar" gisa aurkezten dute. 2017ko Hizkuntza Politikako Txostenaren arabera, Filmin urte hartako ekainean jarri zuten martxan, katalanezko azpitoluekin eta/edo katalanera bikoiztutako bertsioan ikus zitezkeen 1000 film eta 200 telesail baino gehiagorekin. Datu horiek testuinguru zabalago batean kokatzeko, Caballero eta Ariod-en arabera (2017), 2017an Filmin plataformak katalogoaren % 5,20 bakarrik eskaini zuen katalanez, hau da, 6.999 lanetik 364 baino ez. Yomvi-k (Movistar) 2014ko maiatzaren 29an Kultura

Sailarekin adostutako hitzarmena berri zuen, 2017. urtearen amaieran katalanezko azpitoludun 610 lan (filmak eta telesailen atalak) eskaintzeko asmoarekin, urtero 85.000 euroko laguntza jasotzearen truke (VilaWeb.cat, 2016–7–11).

Bikoizketarako aurrekontu-sailaren zenbaterainokoa kulturako beste arlo batzuekin alderatzeko, lagungarri izan dezakegu 2017ko Hizkuntza Politikako Txosteneko taula hau:

3. irudia. 2017ko Hizkuntza Politikako Txostena.

Deialdiak	
Dirulaguntza-deialdia, zinema-aretoetan estreinatzeko film luzeei katalanezko azpitoluak jartzeko edo katalanera bikoizteko.	2,091,155.09 €
Dirulaguntza-deialdia, estreinatutako zinema-aretoetan ustiatzeko film luzeei katalanezko azpitoluak jartzeko edo katalanera bikoizteko eta telesaileri katalanezko azpitoluak jartzeko.	1,000,000.00 €
Dirulaguntza-deialdia, katalana produktu teknologikoetan sartzeko.	100,000.00 €
Dirulaguntza-deialdia, irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat, Katalunian katalanaren erabilera sustatzeko proiektuetarako.	375,000.00 €
Dirulaguntza-deialdia, obra literario eta ez-literarioak katalanera itzultzeko.	300,000.00 €
Dirulaguntza-deialdia, Katalunian okzitaniaren (Aranen, aranera) ezagutza eta erabilera sustatzeko.	55,000.00 €

Taula hori oinarritzat hartuta hainbat gogoeta egin ditzakegu.


Alderatuz gero Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiak (DGPL) bikoizteko eta azpitoluak jartzeko emandako zenbatekoa eta obra literario eta ez-literarioak katalanera itzultzeko emandakoa, ikusten da lehenaren aurrekontua bigarrenaren halako hamar dela.

Gainera, badirudi katalanaren ezagutza eta erabilera sustatzeko dirulaguntza- eta laguntza-deialdietan dagoeneko ez direla bikoizketa eta azpitoluak bereizten. Hori gertatzen da, beharbada, gaur egun ikusleak autonomoagoak direlako eta, ondorioz, azpitoluak jartzeko joera hedatzen ari delako. Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiak 2017an emandako laguntzei esker, 115 film labur bikoiztu zituzten, eta 542 film laburri eta hainbat telesailen 71 denboraldiko 505 atali azpitoluak jarri zizkieten. Zehazki, Movistar Plus-ek laguntzak jaso zituen 256 filmetarako eta fikziozko hainbat telesailen 60 denboralditako 434 ataletarako (2016an baino 16 gehiago).

Zinema-aretoetako arduradunei esker, 2019an beste ekimen bat heldu zen 76 areto horietara: "Hileko dokumentala". 2017an 9 dokumentali jarri zizkieten azpitoluak, eta Kataluniako 50 aretotan eman zituzten (2016an baino 7 gehiago), 24.319 ikuslerentzat, jatorrizko bertsioan azpitoluekin. Emankizun horiek doakoak dira eta, datuen arabera, proposamenak harrera oso ona du.

Orokorrean, katalanez ikus-entzunezko lan gutxi ikusten dira:

4. irudia. Hizkuntza Politikako Txostena (2017).



Nahiz eta dirulaguntzak jaso, ikusle-kopuruak oraindik oso txikiak dira. 2014-2017 hirurtekoan, adibidez, gaztelaniaz ikusitako ikus-entzunezko lanen kopurua katalanezkoen halako 3,3-4,5 da. 2017an Interneten ikusitako film eta telesaileri dagokienez, % 16,6 katalanezkoak ziren, % 70,6 gaztelaniazkoak eta % 21,6 beste hizkuntza batzuetakoak; hori, 2017ko Hizkuntza Politikako Txostenaren arabera. Txostenak azpimarratzen duenaren arabera, "Interneten zinemari baino eduki gehiago ikusten da katalanez eta beste hizkuntza batzuetan: katalanez portzentajezko 5 puntu gehiago eta beste hizkuntza batzuetan 10 puntu gehiago".

Ehunekoak txikiak dira, baina, Caballero eta Jádiod-en arabera (2017), Cinemas Texas aretoetan Ventura Pons zinemagileak sustatutako proiektu pribatuak ikusle-kopurua asko igo du, orokorrean txikia bada ere. Ventura Ponsel hitzarmen bat sinatu zuen 2015ean Kataluniako Generalitateko Kultura Sailarekin, urtean 84 film luzeri azpigituluak jartzeko. Autore horiek berek azaldutakoaren arabera, ekimen horri esker ikusle-kopurua % 400 handitu da 2015etik, eta % 735 2013tik.

Kataluniako Estatistika Institutuaren datuak (<https://www.idescat.cat/pub/aec/778>) oinarritzat hartuta egindako beheko taulan ikusten da zer eboluzio izan duen zineman filmak katalanez ikusten dituzten ikusleen kopuruak. Ikusle-kopuru absolutua izugarri jaitsi da; eta, gainera, alderantzikatu egin dira, 2012tik 2016ra, katalanezko jatorrizko filmak eta katalanera bikoiztutako filmak ikusten dituztenen kopurua eta filmak katalanezko azpigituluekin ikusten dituztenena.

5. irudia. Katalanezko zinema (2012-2016), ikusleak eta bilketa, bertsio-motaren arabera.

	2012	2013	2014	2015	2016
Ikusleak	847.495	488.666	461.576	587.934	572.802
Katalanezko jatorrizkoak	205.538	107.139	77.432	126.604	51.425
Katalanera bikoiztuak	635.855	370.992	360.021	443.721	388.034
Katalanezko azpigituludunak	6.102	10.535	24.123	17.609	133.343

Ferré-ren arabera (2017), ikusleek katalanezko zinema oso gutxi ikusten duten arren, 2015ean biztanleen % 22k adierazi zuen nahiago zuela zinema katalanez ikusi (Kataluniako Iritzi Azterketen Zentroaren Òmnibus azterlana). Ordea, 2015-2016 biurtekoan, ikusleen % 5,2k bakarrik aukeratu zuen katalanezko zinema. Beraz, ikusleek egin nahi dutenaren eta egin dezaketenen arteko aldea oso handia da.

Gazteak al dira katalanezko itzulpenen etorkizuneko erabiltzaileak?

Lehen esan dugun bezala, gazteentzako ikus-entzunezkoen bikoizketa lagundu da gehien diruz, nahiz eta jakin gazteek ikusten dituztela gehien Eskaripekobideoak eta Internet erabiltzerakoan beste lehentasun batzuk dituztela; izan ere, lineako jokoetan ibiltzen dira eta *youtuber* eta *influencer*-en jarraitzaile dira.

Navarro eta beste batzuen arabera (2012), egin zituzten elkarrizketetan joera hauek aurkitu zituzten gazteen foku-taldean:

1. Foku-taldean parte hartu zuten hamahiru urtetik beherako adingabeek gehien erabiltzen duten hedabide tradizionala telebista da, eta tarte libreetan ikusten dute. Marrakiz bizidunak ikusten dituzte, baina kirol-programak ere atsegin dituzte; futbolari buruzko kate tematikoak, adibidez. Garrantzitsua da azpimarratzea zapping ugari egiten dutela.
2. Bideo-jokoei dagokienez, badirudi etxean nolabait kontrolatzen dituztela. Gurasoek/tutoreek tarte libreetan eta eskolaz kanpoko beste ekintza batzuen ondoren uzten diete jolasten. Lineako jokoak mutil handixeagoek erabiltzen dituzte gehiago, eta ekintza- eta kirol-jokoetan ibiltzen dira gehien. Txikienek kotsola-sorta handiagoa erabiltzen dute.
3. Neskek musika entzuten dute Spotify-n, erosketak egiten dituzte linean eta batzuek kotsola dute. Azkenik, lineako eta lineaz kanpoko jokoak dituzte eta gizarte-sareren batera konektatuta daudenean jokatzen dute.

Lehen joeran ikusten da gazteek telebista ikusten jarraitzen dutela, baina zapping eginez, gainerako taldeek bezala ziur asko. Horregatik du Club Super 3 kateak ikusle gutxiago (Ferré 2017), beste batzuekin lehia egiten duelako: Boing, Clan eta Disney Channel. Kaltegarria izan da, halaber, 16 eta 25 urte arteko gazteentzako 3XL katea itxi izana 2012an.

Bigarren eta hirugarren joerak erakusten dute lineako eta lineaz kanpoko bideo-jokoetan gazteak aritzen direla gehien. Orain azalduko ditugun datuek berresten dute sektore horretan ez direla nahikoa ahalegintzen ari katalanaren erabilera sustatzeko, nahiz eta mundu osoan –baita Katalunian ere–, hazten ari den sektore bat izan. Contreras eta Ribes-en arabera (2017):

Industria Kulturalen Institutu Katalanaren (ICEC) 2015eko datuek diote Kataluniako biztanleen % 21,8 jokalaria dela, eta horietatik % 73,37 gizonak eta % 26,63 emakumeak direla (...). Adinari dagokionez, jokalarien % 30,63k 14-19 urte ditu, % 22,50ek 20-24 urte, % 20,33k 25-34 urte, eta % 12,88k 35-44 urte. Nagusiagoak atzerago daude: jokalarien % 7,91k 45-54 urte ditu, eta % 3,62k 55-64 urte. Azkenak 65 urtetik gorakoak dira: % 2,06. Jokalarien merkatua, beraz, oso zabala da (biztanleen % 21,8), egileak katalanezko bideo-jokoak sortzera motibatzen bezain handia.

Alabaina, jakin nahi badugu jokalaria katalanek zer aukera duten katalanez jokatzen, alde handia dagoela ikusiko dugu, eskura dauden film eta telesailekin gertatzen zen bezala.

Hemen ikus daiteke plataformetan katalanezko zenbat bideo-joko dauden: <https://www.gaming.cat/webs-en-catala-sobre-videojocs/videojocs-en-catala/>. Katalanezko oso joko gutxi daude: 12 kontsoletarako, eta gainerakoak, 35, ordenagailuan ibiltzeko.

Katalunian sektore horretako enpresak nolatan jarri dituzten ulertzeko, esan beharra daukagu hazten joan dela bideo-jokoen inguruko negozio-bolumena. Contreras eta Ribes-en arabera (2017), sektoreko enpresen fakturazioa 70 milioi eurotik 217 milioi eurora igo da hiru urtean (2013-2016), eta aldi horretan langile-kopurua bikoiztu egin da ia (983 langiletik 1687 langilera).

Hala eta guztiz ere, sektore horretan katalanera itzultzeko laguntza gutxi jasotzen dituzte. 2017an, adibidez, Hizkuntza Politikako Zuzendaritzak bi bideo-joko itzultzeko laguntza baino ez zuen eman (Stay, Appnormals Team SMrena; eta Etherborn, Altered Matter Games SMrena). Hau da, Contreras eta Ribes-en hitzetan (2017), "Hizkuntzaren aldeko Plataformak (Plataforma per la Llengua) 2015ean katalanezko bideo-jokoek eta ordenagailurako jokoek merkatuan zuten egoera aztertze egindako txostenaren arabera, katalanezko jokoen indizea % 9 baino ez zen, ingelesezkoena eta gaztelaniazkoena baino askoz txikiagoa (% 100 eta % 93, hurrenez hurren)". Hori guztia, honako hau kontuan hartuta: gure ingurune akademikoan, "Katalunian 12 eta Valentzian 3 unibertsitate-ikastegi daude eta, bideo-jokoekin zerikusia duten ikasketak eskaintzen dituzten arren, katalana gradu ikasketetan bakarrik dago, graduondokoetan ez. Gauzak horrela, lexiko espezifikoa falta da, eta, ondorioz, gero oso gutxi erabiltzen da" (Contreras eta Ribes, 2017).

Etorkizunerako ondorioak

Eskarriekobideoak heldu zirenetik, ikusleek gero eta joera handiagoa dute azpigituluak aukeratzeko. Hori, batez ere, ingelesezko hizkuntza hegemonikoa delako eta gero eta jende gehiagok dakielako, noski; baina, baita ere, Kataluniako hiztunen hizkuntza-profila aldatu egin delako eta etxean ikasi duten hizkuntzan dagoen programazioa eskuratu dezaketelako, katalanez eta gaztelaniaz dagoenaz gain.

Eskarriekobideo-plataformetan, katalana ez da natural bizi gainerako hizkuntzekin. Enpresek ez dute katalanera bikoizten, ezta katalanezko azpigitulurik egiten ere (Espainiako estatuko banatzaileek ere ez, araudiak behartzen dituen arren). Gauzak horrela, katalana ez da ia inon agertzen, soilik katalanezko bertako ekoizpenak plataforma horietan badaude edo, plataformaren batek –Filmin-ek, adibidez– erakundeek laguntza jasotzen badu katalanezko azpigituluak jartzeko.

Espero genuen gazteak haurrentzako programazioaren bitartez katalanezko telebistarekin fidelizatzea, baina, gaur egun, gazteek profil eta zaletasun desberdinak dituzte eta, gainera, tarte libreetan bideo-jokoetan ibiltzen dira, eta ia ez dago katalanezko jokorik. Belaunaldi berriek katalana arlo guztietan erabiliko dutelako itxaropenari eutsi nahi badiogu, bideo-jokoak itzultzeko politika berriak sortu beharko ditugu.

Ez dugu ahaztu behar katalan hiztunok gure hizkuntza-eskubideak bete daitezela aldarrikatzen jarraitu beharko dugula eta ikus-entzunezkoen katalanezko gozatzeko nahia bete ahal izatea eskatu beharko dugula.

Bibliografia

Reinald Besalú (2017): "La televisión". *Informe de la Comunicació a Catalunya 2015-2016*. Marta Civil i Serra, Joan M. Corbella Cordoní, Carme Ferré Pavia, Joan Sabaté i Salazar (editoreak). Incom-UAB: Kataluniako Generalitatea. Zabalkunde Zuzendaritza Nagusia. 133-157.

Juan José Caballero Molina, Daniel Ariod, (2017): "El cinema". Marta Civil i Serra, Joan M. Corbella Cordoní, Carme Ferré Pavia, Joan Sabaté i Salazar (editoreak). Incom-UAB: Kataluniako Generalitatea. Zabalkunde Zuzendaritza Nagusia. 157-172.

Ruth Contreras Espinosa, Xavier Ribes (2017): "El videojoc". Marta Civil i Serra, Joan M. Corbella Cordero, Carme Ferré Pavia, Joan Sabaté i Salazar (editoreak). Incom-UAB: Kataluniako Generalitatea. Zabalkunde Zuzendaritza Nagusia. 197-206.

Eudald Domènech (2017): "Plataformes de distribució de contingut audiovisual". *Informe de la Comunicació a Catalunya 2015-2016*. Marta Civil i Serra, Joan M. Corbella Cordero, Carme Ferré Pavia, Joan Sabaté i Salazar (editoreak). Incom-UAB: Kataluniako Generalitatea. Zabalkunde Zuzendaritza Nagusia. 240-255.

Hizkuntza Politikako Txostena (2017): <https://llengua.gencat.cat/web/.content/documents/informepl/arxiu/IPL-2017.pdf> (azken kontsulta: 2019ko azaroak 28).

Kataluniako Estatistika Institutua: <https://www.idescat.cat/pub/aec/778> (azken kontsulta: 2019ko azaroak 28).

André Lange (2012): "La fragmentación del modelo dual europeo en el marco de la convergencia". *Retos del audiovisual europeo*. Quaderns del CAC, 38, XV (1) lib., 57-78.

Xoán Montero (2017): "El doblaje en el Estado español: de la nacionalización a la normalización lingüística". *El doblaje. Nuevas vías de investigación*. Xoán Montero (ed.), Interlingua, 163. Granada: Comares. 5-20.

Héctor Navarro (koord.), Zahaira González, Eulàlia Massana, Irene García, Ruth Contreras (2012): "El consum multipantalla. Estudi sobre l'ús de mitjans tradicionals i nous per part de nens, joves, adults i gent gran a Catalunya". Quaderns del CAC, 38, XV (1) lib., 87-96.

Ikus-entzunezko Hedabideen Korporazio Katalanaren hizkuntza-ataria: <http://esadir.cat/filmoteca> (azken kontsulta: 2019ko azaroak 28).

Miquel Vidal Villoria (2017): "L'entorn tecnològic". Quaderns del CAC, 38, XV (1) lib., 69-84.

Bideo-jokoak katalanez: <https://www.gaming.cat/webs-en-catala-sobre-videojocs/videojocs-en-catala/> (azken kontsulta: 2019ko azaroak 28).

Coppieters fundazioaren mezua

2007an sortu zenetik, Coppieters fundazioa ideia berriak garatzen eta Europako eztabaida publikoan behin eta berriz agertzen diren gaiei buruzko jakintza sortzen aritu da. Horien artean daude autodeterminazioa, maila anitzeko gobernantza, geografia, aniztasuna, genero-berdintasuna, migrazioak, garapen ekonomikoa, bakegintza eta giza zein gutxiengoen eskubideen defentsa.

Ikerketa-zentro gisa, beti saiatu izan gara kalitate handiko liburuak eta txostenak produzitzen, Europa inklusiboago eta jasangarriagoa eraikitze gogoeta eta ikuspegi berriak ekarriko dituztenak. Gure argitalpenen egileek alorreko jakintza eta esperientzia zabala izaten dute.

Hori guztiak aintzat hartuta publikatzen dugu argitalpen hau eta ni bereziki harro nago politika publikoari buruzko Europako eztabaidetan ekarpen berria eta garrantzitsua egiten duelako. Ziur nago eragin nabarmena izango duela Europako politikariengan, akademikoengan, aktibistengan eta herritarrengan.

Eskerrak eman nahi dizkiet azterlan honen egile, editore eta koordinatzaileei Fundazioaren lanean egindako ekarpen bikainagatik. Eta eskerrak ematen dizkizut irakurle, gure proiektuetan duzun interesagatik.

Antonia Luciani
Coppieters fundazioaren idazkari orokorra
www.ideasforeurpe.eu

Coppieters fundazioaren helburuak

- Ideia berriak garatzea eta jakintza sortzea kultura- eta hizkuntza-aniztasunean, eskubide kolektiboetan, maila anitzeko gobernantzan, deszentralizazioan, estatuen eta konstituzioen erreforman, estatugintza-prozesuetan, autodeterminazioan, migrazioan, gatazken ebazpenean, bakegintzan eta giza eskubideen babesa Europan.
- Fundazioarentzat eta bere kideentzat interes berezia duten gaiei buruz kezka sortzea.
- Europa mailan erabakiak hartzeko prozesuetan eragina izatea eta lege-esparru bat sortzea zeinak honokoen garapenean sakontzea ahalbideratuko duen: subsidiarotasun-printzipioan, autodeterminazio-eskubidean, aniztasuna eta gutxiengoen eskubideak hobeto babesten eta Europako giza eskubideen errespetuan.
- EB erakunde-egitura alternatibo demokratikoago baterantz bultzatzea, eskubide kolektiboak gehiago errespetatuz eta EBko kide diren estatuen errealitate konplexuez (multinazionalak eta kultura-aniztunak) gehiago jabetuz.
- Akademiaren, Europako erakundearen (Europako Parlamentua, Europako Batzordea eta Erregioen Batzordea) eta beste eragile politiko batzuen arteko elkarriketa-plataforma izatea.
- Zientzia politikoetako, ekonomiako, soziologiako, filosofiako eta historiako arloetako jakintza zientifikoa ekintza politikorako kontzeptu erabilgarri bihurtzea.
- Europako Aliantza Librean politikoki garrantzitsuak diren kontzeptuz, ideiaz, datuz eta jakintzaz elikatzea, bai eremu instituzionalean, baita Europako instituzioetatik kanpoko EALren ekintza-eremuan ere.

Coppieters Fundazioak bere esku dagoen guztia egiten du goian aipatutako helburuak sustatu eta lortzeko, Europar Batasunaren oinarri diren printzipioak betez, hau da, demokraziaren printzipioak, giza eskubideen errespetua, oinarrizko askatasunak eta zuzenbide-estatua.

Coppieters Fundazioaren eremu geografikoa Europar Batasuna da, EBko herrialde hautagai eta hautagai potentzialekin batera. Erakundeko bazkideak EBko 8 estatu kidean oinarrituta daude, eta 14 erregiotan edo estatutik gabeko naziotan daude aktibo.

Maurits Coppieters (Sint-Niklaas, 1920 – Deinze, 2005)

Maurits Coppieters flandriarrak historia ikasi zuen eta gero Zuzenbideko doktore bihurtu zen eta Ekialdeko Europako ikasketetan maisutza lortu zuen. Bigarren Mundu Gerran, alemaniar okupatzailentzat lan egiteari uko egin zion. Irakasle lanetan urte asko eman ondoren, abokatu gisa aritu zen denbora batez. Flandriako Herri Mugimendua (Vlaamse Volksbeweging) berrezarri zuten pertsonetako bat izan zen eta 1957tik-1963ra mugimenduaren presidente izan zen.



Coppietersen karrera politikoa 1954an sortutako Volksunie (VU) alderdi nazionalista flandriarreko kide bihurtu zenean hasi zen. Bi urtetan izan ezik, Coppieters zinegotzi izan zen 1964 eta 1983 bitartean. Belgikako Ganberako (1965-1971) eta Senatuko (1971-1979) kide ere hautatu zuten. Era berean, Coppieters 'Cultuurraad voor de Nederlandstalige Cultuurgemeenschap' (Flandriar hiztun-komunitatearen Kultura Kontseilua) sortu berriaren lehendakari bihurtu zen. Kontseilua Flandriako parlamentuaren aurrekaria izan zen. 1979an, Europako Parlamenturako lehen zuzeneko hauteskundeetan hautatua izan zen.

Erregionalista gisa, Talde Independenteen eta Europako Parlamentuko Kideen Koordinazio Tekniko eta Defentsarako Taldeko kide bihurtu zen. Besteak beste, ospetsu egin zen kortsikarren auzia defendatu zuenean. Bitartean, Coppieters ere aitzindari izan zen Europako Aliantza Librea sortzen zeinen Ohorezko Lehendakari bihurtu zen. 1981ean politika aktiboari agur esan ondoren ere EALren zabaltearen alde lanean segitu zuen. Coppietersek bat egin zuen Norbert De Batselier Flandeko Parlamentuko lehendakariarekin, 'Het Sienjaal' izeneko proiektua sustatzeko, helburua zuena alderdiaren mugetatik haragoko pizkunde politikoa lortzea. Coppieters 2005eko azaroaren 11n hil zen.

Besteak beste, Coppietersek lan hauek idatzi zituen: 'Het jaar van de Klaproos', 'Ik was een Europees Parlements lid' eta 'De Schone en het Beest'. EAKko ohorezko kidea izan zen.

Coppieters fundazioaren kideak

- ADEO – Associacion pel Desvelopament de l'Eschrich Occitan Occitània (Okzitania), adeo-oc.eu
- Alkartasuna Fundazioa. Portuetxe 23, 10, 20018 Donostia (Euskal Herria), alkartasunafundazioa.eus
- Arritti. Bd de Montera 5, 20200 Bastia Kortsika, p-n-c.eu
- Ezkerraberi Fundazioa. Aduanaren txokoa 16-18, 31001 Iruñea (Euskal Herria), ezkerraberi.eus
- Fundación Galiza Sempre. Av. Rodriguez de Viguri 16, Baixo 15702, Galiza Sempre (Galizia), galizasempre.org
- Fundació Emili Darder. Isidoro Antillon 9, Palma de Mallorca (Balearak), fundacioemilidarder.cat
- Fundació Josep Irla. Calabria 166, 08015 Bartzelona (Katalunia), irla.cat
- Fundació Nexe.(Valentzia), fundacionexe.org
- Home of Macedonian Culture. Stefanou Dragoumi 11, PO Box 51, 53100 Florina Mazedonia, Grezia
- Le Peuple Breton. Rue Pinot Duclos 9, 22000 Saint-Brieuc (Bretainia) peuplebreton.net
- Welsh Nationalism Foundation. Department of Humanities, University of Wales, Western avenue, Cardiff, CF5 2SG, Cymru (Gales) welshnationalismfoundation.eu

Elkartutako kideak

- CIEMEN (Katalunia), ciemen.cat Catalonia
- Enbata, Bayonne (Euskal Herria), enbata.info
- Free State of Rijeka Association, Rijeka
- Hungarian National Council of Transylvania – Erdély (Transilvania), emnt.org
- Istituto Camillo Bellieni, (Sardinia), istituto-bellieni.it
- Kurdish Institute of Brussels, Belgika, kurdishinstitute.be

Coppieters fundazioaren beste azterlan batzuk

- 2020 — **Flexicurity as a Labour Policy** A Comparative analysis, Professor Montse Solé
- 2020 — **Transforming Tourism** Regional perspectives on a global phenomenon, Marina Abad Galtzakorta, Aurkene Alzua-Sorzabal, Pedro Bravo, Igor Calzada, Rebecca Finkel, Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Majella Sweeney eta Julie Wilson
- 2019 — **Minority women in politics**
Dr Justine Séran, Charlotte Andrews, Juweria Ali, Migmar Dhakyel, Roseanna McPhee, Irene Gómez Santos, Mona Silavi eta Virginia Wangare Greiner
- 2018 — **The Future of Sustainable Energy**
Elsje Catharina de Groote, Symke Aleyt Nieboer, Samantha Gan Kristensen, Catherina De Zilva
- 2018 — **Stateless nations and media landscapes**
Ezkerraberri Fundazioa
- 2017 — **The phenomenon of second home buying in the European Union's peripheral regions**, Arriti eta Le Peuple Breton
- 2017 — **Size, Efficiency and Equality Successful cases in the global economy**
Xavier Cuadras-Morató, Modest Guinjoan eta Miquel Puig
- 2017 — **Feminism on the Peripheries of Europe: An Inclusive eta Intersectional Youth Approach**
- 2016 — **The Emergence of a Democratic Right to Self-determination in Europe**
- 2015 — **Democracy and European Emerging Values: The Right to Decide**
- 2015 — **A Quality Democracy for a New State**, Dr. Jaume López
- 2014 — **Paradiplomacy**, Adam Grydehøj, Linda Fabiani, Jordi Solé i Ferrando, Lorena Lopez de Lacalle Aristi eta Maria Ackrén
- 2013 — **An Alternative Economic Governance for the European Union**
Xavier Vence, Alberto Turnes, Alba Nogueira. With eta ICEDEko kide Oscar Rodil, Brais Yáñez eta Jorge Fernández
- 2012 — **The Future of Europe: An Integrated Youth Approach**
- 2012 — **The Ascent of Autonomous Nations 2nd edition The institutional @ advantages of being an EU member state**, Matthew Bumford. Welsh Nationalism Foundationarekin elkarlanean
- 2012 — **Variations autour du concept d'empreinte culturelle Définition du concept et metodes de Mesure**, Elna Roig Madorran eta Jordi Baltà Potolés
- 2011 — **Approaches to a Cultural Footprint Proposal for the concept and ways to measure it**, Elna Roig Madorran eta Jordi Baltà Potolés
- 2010 — **The Internal Enlargement of the European Union 3rd edition Analysis of the legal and political consequences in the event of secession or dissolution of a Member State**, Jordi Matas, Alfonso Gonzalez, Jordi Jaria eta Laura Roman. Fundació Josep Irlarekin elkarlanean
- 2009 — **Electoral Contestability and the Representation of Regionalist and Nationalist Parties in Euro**, Simon Toubeau
- 2008 — **A Different Kind of Kinetics Establishing a network of heritage and research institutions for the (historical) study of national and regional movements in Europe**, Luc Boeva

Coppieters fundazioaren txostenak

- 2019 | 2 **Diversity and Media**, Anne Esser
- 2019 | 1 **Women's refugee experienc**, Pilar Kaltzada
- 2018 | 2 **Digesting Brexit in Northern Ireland**, Dr Anthony Soares
- 2018 | 1 **For a European Agency for Multilingualism**, Bernat Joan i Mari
- 2017 | 1 **The Situation of Refugee Women in Europe, the Spanish State and Catalonia** Diagnosis and gaps for improvement, Helena Castellà
- 2016 | 4 **Minorities and Cultural and Linguistic Minorities in Europe**.
Coordinated by Inaki Irazabalbeitia
- 2016 | 3 **'Yes Scotland' vs 'Better Together': How did it all happen?**
Carlos Neira Cortizas eta Sandrina Ferreira Antunes
- 2016 | 2 **Europe: A Dream & A Project**, Bernat Joan i Mari
- 2016 | 1 **The Economic Strategy of Stateless Nations in the Framework of the European Cohesion**, Nuria Fernandez Conejero, Rocio Cortés Fuentes eta Luis H. Rodríguez Ruiz
- 2015 | 3 **Language, Identity & Power. What Future for Minority Languages in Europe? Conference organized**, CJill Evans, Herbert Dorfmann eta Csaba Sógor europarlamentarioek antolatutako konferentzia
- 2015 | 2 **Cross-border Cooperation and Cultural Communities in Europe**
Jordi Baltà Portolés
- 2015 | 1 **Which Federalism for Europe?** Antonello Nasone eta Attilio Pinna
- 2014 | 1 **The Fiscal Balance of Stateless Nations with the EU**
Jaume Garau eta Félix Pablo
- 2013 | 2 **Internationalism vs Globalism** Isidor Marí, Santiago Castellà Surribas eta Josep Bargalló. Fundació Josep Irlarekin elkarlanean
- 2013 | 1 **Law and Legitimacy: The Denial of the Catalan Voice** Huw Evans. Welsh Nationalism Foundationekin elkarlanean
- 2012 | 3 **Making Ideas Spread New Media, Social Networks, Political Communication, advocacy and campaigns**, Jorge Luis Salzedo Maldonado
- 2012 | 2 **The Size of States and Economic Performance in the European Union**
Albert Castellanos i Maduell, Elisenda Paluzie I Hernández eta Daniel Tirado i Fabregat. Fundació Josep Irlarekin elkarlanean
- 2012 | 1 **2014-2020 Un autre cadre financier pluriannuel pour une nouvelle Europe Pour une Europe des peuples**, Roccu Garoby. Arrittirekin elkarlanean
- 2011 | 3 **From Nations to Member States**
Lieven Tack, Alan Sandry eta Alfonso González
- 2011 | 2 **Diversité linguistique: Un défi pour l'Europe**
- 2011 | 1 **Tourism and Identity** Marien André. Fundació Josep Irlarekin elkarlanean
- 2010 | 1 **Language Diversity: A Challenge for Europe**

Publikazio honi buruzko oharra

Argitaratzaileak

Coppieters Foundation, Boomkwekerijstraat 1, 1000 Brussels, www.ideasforeurope.eu
Ezkerraberri Fundazioa, www.ezkerraberri.eus

Argitaratze-data, saila eta zenbakia

2020/03, Coppieters Foundation, 3. argitalpena

Koordinazioa

Inaki Irazabalbeitia, Ignasi Centelles eta Julie Duval

Argitalpen-batzordea

Xabier Macías, Josep Vall, Antonia Luciani, Alan Sandry, Sharon Webb, Inaki Irazabalbeitia, Alix Horsch, Marianna Bekiari, Antonello Nasone, Ann Mares, Gonçal Grau eta Krisztina Sándor

Batzorde zientifikoa

Alan Sandry – Zientzia politikoetan aholkularia
Josep Huguet – Historia garaikidean eta gobernantza pulikoan aholkularia
Daniel Turp – Nazioarteko zuzenbidean eta autodeterminazioan aholkularia
María do Carme Garcia Negro – Ekonomia aplikatuan aholkularia
Sandrina Antunes – Nazioarteko zuzenbidean eta autodeterminazioan aholkularia
Ann Mares – Historiaren ikerketan, artxibistan eta mugimendu nazionalen historian aholkularia
Inaki Lasagabazter – Zuzenbide konstituzionalean eta prozesu demokratikoetan aholkularia

Grafismoa eta maketa

Wils&Peeters – Lier

Azaleko argazkiak

Andrew Mantarro / Unsplash

Itzulpenak

Elhuyar fundazioa – Usurbil

Inprimategia

Drukkerij V.D. – Temse

© Coppieters Foundation eta Ezkerraberri fundazioa, Brusela 2020

Publikazio honen zatirik ezin da kopiatu edo erabili egilearen edo argitaratzailearen berriazko baimenik gabe.



Coppieters fundazioa
BRUSELA | 2020